

TOKIKO
IRAUNKORTASUNAREN
DIAGNOSTIKOA

ATXONDO

2006ko Uztailak 12

DIAGNOSTIKOAREN LANTZEAN LAGUNDU DUTEN ERAKUNDE ETA PERTSONAK

Atxondoko Udala

Jose Antonio Igarza Mandizabal. Alkatea
Miguel Angel Buruaga Aguinaga. Alkateordea
Francisco Javier Barrutia Gastelurrutia. Alkateordea
Angel Alejo Pedrosa. Zinegotzia
Maia Ezkarne Goienaga Muruaga. Zinegotzia
Juan Jose Alonso Cañas. Zinegotzia
Pedro Jose Leon Lozano. Zinegotzia
Sabino Gamboa Jainaga. Zinegotzia
Francisco Berrocal Morer. Zinegotzia

Olga Bolinaga Santiesteban. Idazkaria. Kontu-hartzailea
Fermín Plaza. Arkitektoa
Venancio Bilbao. Arkitekto Teknikoa

Beste Administrazio eta Erakundeak

Durango Merinaldearen Amankomunazgoa
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa IHOBE A.B.
Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saila
Mendien eta Ingurumen Naturalaren Zuzendaritza
Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio saila
Errepideen Zuzendaritza Orokorra
Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Saila
Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolaketarako eta Ingurumen Saila
Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
Biodibertsitate Zuzendaritza
Ingurumenaren Planifikazio, Parte-hartze eta Kontrol Zuzendaritza
Uraren Zuzendaritza
Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
Energia Euskal Erakundea
Iberdrola SA
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

Laguntza Teknikoa: Ingurune S.L.-Prospektiker, SA

Julen Rekondo. Teknikaria
Carlos Alonso. Teknikaria
Arkaitz San José. Teknikaria
Ibon Zugasti. Teknikaria
Mikel Irasuegi. Teknikaria
Olatz Errazkin. Teknikaria

AURKIBIDEA

O. SARRERA.....	4
0.1. UDALERRIA ETA TOKIKO AGENDA 21.....	4
0.2. DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA.....	5
1. DEMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA	7
2. EKONOMIA ETA ENPLEGUA.....	12
3. GIZARTE-EKINTZA, ELKARBIZITZA ETA ELKARTASUNA.....	18
4. LURRALDEA, ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA.....	23
4.1. INGURU FISIKOA ETA NATURALA.....	23
4.2. LURRALDE-ANTOLAMENDUA ETA PLANIFIKAZIOA	34
4.3. HIRIGINTZA-PLANEAMENDUKO EGITURA ETA EZAUGARRIAK.....	36
4.4. HISTORIA-, ARKITEKTURA- ETA ARKEOLOGIA-ONDAREA	40
4.5. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOAK	42
5. INGURUMEN SEKTOREAK.....	46
5.1. URAREN ZIKLO INTEGRALA	46
5.2. KALITATE ATMOSFERIKOA ETA AKUSTIKOA.....	49
5.3. ENERGIA.....	51
5.4. LURZORUA	53
5.5. HONDAKINEN KUDEAKETA	55
5.6. INCIDENCIA Y RIESGO AMBIENTAL DE ACTIVIDADES	59
6. ABIDURA HANDIKO TRENA.....	63
7. UDAL EGITURA ETA BERTAKO GIZARTEA.....	66
7.1. GIZARTEA ETA HIRITARREN PARTE-HARTZEA.....	66
7.2. INGURUMEN INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA	73
7.3. UDAL-EGITURA	73
7.4. UDALEKO INGURUMEN KUDEAKETA.....	74
8.ATXONDOKO TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA.....	75

0. SARRERA

0.1. Udalerria eta Tokiko Agenda 21

Tokiko Agenda 21 kontzeptua Rio de Janeiron (Brasil, 1992ko ekaina) sortu zen, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian edo "Lurreko Goi bileran". Gailur horretan "Agenda 21" (edo Programa 21) onartu zen, Garapen Iraunkorra lortzeko bidean ekintza-plan orokorra. Agenda 21en 28. atalak "Agenda 21 babesteko Tokiko Agintarien Ekimenak" izena du eta hauxe dio:

- *1996rako, herrialdeetako herri-agintari gehienek beren komunitaterako "Tokiko Agenda 21"ri buruzko galdeketa-prozesua gauzatu beharko lukete beren herrietan.*
- *Herri-agintari bakoitzak elkarrizketa ezarri behar du bere komunitatearekin, gizarte-erakundeekin eta enpresa pribatuekin eta Tokiko Agenda 21 zabaldu behar du.*

EB-ko Ingurumen Arloko VI. Ekintza Programak ere ("Garapen Iraunkorra lortzeko bidean") herri-agintariak animatzen ditu zentzu bereko ekimenak garatzeko (3. eta 5. kapituluak).

1994ko maiatzean, ICLEIk deituta (The International Council for Local Environmental Initiatives), 600 pertsona baino gehiago bildu ziren Danimarkako Aalborg hirian, besteren artean: Europako tokiko agintaritzetako ordezkariak, nazioarteko erakundeak, gobernu nazionalak, zentro zientifiko aholkulariak eta partikularrak. Europako Hiri Iraunkorren Lehen Biltzar honetan, Iraunkortasunera iristeko Hiri Europarren Gutuna heldu eta sinatu zen, egun, Aalborg-eko gutuna bezala ezagutzen dena.

Gutunean, atxikidura azaldu zutenen artean borondatea azaltzen zen Tokiko Ekimen Plana edo Tokiko Agenda 21 idazteko, honek ekimen eta estrategia bateratuak eskatzen zituen, modu honetan hiriak XXI. mendean iraunkortasunerantz eramanez.

Aalborg-eko gutuna hedatzeko lehen denbora bat pasa eta gero, beharrezkoa zen ekintzara pasatzea, eta horrela, Lisboan, 1996an, Iraunkortasunera iristeko Hiri eta Herrien Bigarren Biltzarra iragarri zen, non lanerako hamabi puntu adostu eta sakondu ziren Tokiko Agenda 21en idazteko prozesuan eta beraien ezarpenean. Urte berean, Istanbulen iragarritako Nazio Batuen Biltzarrak Gizakiaren Kokalekuaz (Habitat II) aritu zen, bertan pertsona guztiek etxebizitza duin bat izateko eskubideaz eztabaidatu zen eta gizakien kokalekuen garapen iraunkorraz, honek Agenda 21ren printzipioak bere hartu zituen.

2000ko otsailean, Hannover-en izan zen Iraunkortasunari buruzko Europako Hiri eta Herrien III. Biltzarra, bertan 1400 pertsonak hartu zuten parte, autoritate nazionalen ordezkariak, eskualdekoak eta tokikoak, unibertsitateak eta Tokiko Agenda 21eko prozesuetan inplikaturik dauden beste hainbat entitatek.

2004ko ekainean, berrogeita bost herrialdeetako mila politikarik, teknikari adituek, gobernu kanpoko erakundeetako nahiz tokiko administrazioetako ordezkariak Aalborg-eko Konpromisoak sinatu zituzten Aalborg+10 Herri eta Hiri Iraunkorren Konferentzian. Aipatu

Konpromiso horiek hiriko iraunkortasunaren arlo ezberdinei lotuta daude; eta tokiko gobernuek helburu kualitatiboak eta kuantitatiboak identifikatzen lagundu behar dute 10 urte lehenago zehaztutako printzipioak finkatzeko.

Euskal eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Babeserako 3/98 Lege Orokorrak Udalerriek iraunkortasunean oinarritutako estrategiak hartzea onartzen du, beti ere gai urbano guztien inguruan ikuspuntu orokor bat izanaz.

Azken urteetan Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Saitetik batik bat Tokiko Agenda 21eko prozesuak sustatu dira euskal udalerrietan, zentzu honetan egin diren ekimenetatik honakoak nabarmendu daitezke:

- “Tokiko Agenden antolakuntzarako Gida Europarra” –ren Itzulpena, argitalpena eta banaketa.(ICLEI Gida)
- Urtero Udaletxeentzako diru-laguntza deialdiak Ingurumen Ekimen Planak eta prozesuak sustatzeko.
- “EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 prozesuak Sustatzeko Programa 2000-2003”.
- “EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 garatu eta ezartzeko Gida praktikoaren” argitalpena.
- EUDEL-ek, IHOBE-k eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako UDALTALDE 21 Proiektua; EAEko 9 udalerritan Tokiko Agenda 21en gaineko proiektu-piloteak ezartzeko.
- UDALTALDE 21 eskualde mailako Lan Taldeak garatzea; Mankomunitateak, Eskualdeko Garapen Agentziak eta Foru Aldundiekin lankidetzan.
- UDALSAREA 21en edo Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarearen osaketa, EUDELeK, IHOBE-Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta honezkero tokiko Ekintza Plana duten 66 udalerrik osatzen dutena.

Gaur egun, 200 udalerrri baino gehiago eta 22 UDALTALDE 21 inplikaturik daude Tokiko Agenda 21en ezarpenean. Garapen Iraunkorraren EAEko Ingurumen Estrategian (2002-2020) 2006. urterako ondoko konpromisoa biltzen da: 5.000 biztanle baino gehiago dituzten EAEko udalerrri guztiek Tokiko Agenda 21eko beren programa diseinatuta izatea da, banaka edo eskualdeka.

2004ko Azaroan Durangoko Merindateko Amankomunazgoak, Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoa den IHOBek eta Bizkaiko Foru Aldundiak kolaborazio hitzarmena sinatu zuten DURANGALDEKO UDALTALDE 21 lan taldea martxan jartzearren. Lan taldea ondoko udalerriez osatua aurkitzen da: Abadiño, **Atxondo**, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar. Garai beranduago barneratu zen lan talde honetan.

0.2. Diagnostikoaren aurkezpena

Aurkezten den Iraunkortasunerako Diagnosi hau pertsona askoren arteko lanaren ondorio bat da, administrazio ezberdinen, enpresa publiko zein pribatuen, eta entitate nola herritarren lankidetzarekin batera. Diagnosi hau 2005ko abenduaren eta 2006ko martxoa bitartean egin da.

Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoak, iraunkortasun irizpide eta modu integratzaile batean aztertzen du egungo egoera. Analisi honetatik abiatuz, Ingurumen Diagnostia egiten da, eta hau Ingurumen Ekintza Plana definitu eta eraikiko duen oinarria izango da. Baina Planak ez du espero den jo muga bakarrik izan behar, baizik eta Tokiko Agenda 21aren prozesuaren abiapuntua ere beharko du izan.

Tokiko Agenda 21 konpromisozko dokumentu bat nola gerorako proiektu bat izango da, eta bertan gobernariak, herritarrak eta biltzen diren entitateak, beraien Udalerriko garapen iraunkorra lortzearren oinarriak jarriko dituzte.

1987an iraunkortasunaren kontzeptua iritzi publikoari aurkeztu zitzaion lehendabizikoz. Gro Harlem Bruntland andereak koordinaturiko informe batean, Ingurumen eta Garapenaren Munduko Batzordeak eskatuta, gizateriaren geroa garapen iraunkorrari erabat atxikita azaltzen da, hau da, gizarteak egungo beren beharrak ase behar baditu ere ondorengo generazioen beharrak konprometitu gabe izan beharko da.

Ondoko Diagnosti hau kapitulu ezberdinetan zatikatzen da ondoko gai esparruen arabera:

- Demografia eta biztanleria
- Ekonomia eta enplegua
- Gizarte ekintza, elkarbizitza eta elkartasuna
- Lurraldea, antolaketa eta hirigintza
- Ingurugiro sektoreak
- Udal egitura eta udalerriko gizartea

Azken Kapituluan, gai esparru bakoitzeko ondorioak aurkezten dira.

Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoa *DURANGALDEKO UDALTALDE 21* Lan Taldeak egin du Udaleko arduradun politiko eta teknikoen zuzendaritzapean eta udalaz gaindiko beste erakunde batzuen teknikarien eta enpresa publiko zein pribatuen elkarlanean. Horretarako, eragile sozial eta ekonomikoen parte hartzea eta *INGURUNE S.L.* eta *PROSPEKTIKER S.A.* Aholkularitzen Laguntza Teknikoa kontuan hartu da

1. DEMOGRAFÍA ETA BIZTANLERIA

1.1 Biztanleriaren eboluzioa

Atxondoko udalerria antzinako Apatamonasterio, Arrazola eta Axpe herriek osatzen dute, eta Durangaldeko eskualdearen ekialdean kokatzen da, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Hego-ekialdean. Iparraldera Abadiño eta Elorriorekin du muga, Ekialdera Elorriorekin, Hegoaldera Arabarekin eta Mendebaldera Abadiñorekin.

23,41 Km²-tako azalera batekin, 2004. urtean Atxondok 1.450 pertsonako biztanleria zeukan, eta honek 61,9 bizt./km² dentsitate bat ematen du. Hala ere dentsitate hori ez da berdina auzo guztietan, Apatamonasterioko kasuan askoz handiagoa baita, gainontzeko eremuak gune txikiak edo sakabanatutako baserriak baitira. Eskualde mailan tamaina ertaina duen udalerrri bat da Atxondo, eta bere biztanleriaren dentsitatea nahiko baxua da, eskualdeko balore ertainetik behera, nahiz eta datu hori Durangok duen dentsitate altuagatik oso eraginda dagoen.

Atxondoko udalerria Urkiolako Parke Naturaleko mugetan barrena zabaltzen da, aipatutako natur gune horri bere azalera osoko zati handi bat emanez; dituen 2.340 Hektareatik 613 hain zuzen ere (udal lurren %26,2).

Biztanleriaren banaketa eta dentsitatea. 2001

Udalerria	Biztanleak		Km ²	Dentsitatea
	Kopurua	% Durangald.		
Abadiño	6.843	12,7%	36,26	188,7
Atxondo	1.427	2,6%	23,41	60,9
Berriz	4.312	8,1%	29,95	143,9
Durango	25.003	46,6%	15,1	1.655,8
Elorrio	7.157	13,3%	37,40	191,3
Garai	252	0,4%	7,1	35,4
Iurreta	4.144	7,7%	18,48	224,2
Izurtza	266	0,5%	4,32	61,5
Mañaria	453	0,8%	17,63	25,6
Otxandio	1.017	1,9%	12,40	82,0
Zaldibar	2.877	5,4%	11,8	243,8
Udaltalde	53.571	100%	213,85	250,5
BIZKAIA	1.122.637		2.217,0	506,3

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta


XX. mendeko azken 15 urteetan Atxondok izan duen biztanleriaren bilakaera eskualdekoaren antzekoa izan da. Biztanleriaren bilakaerak biztanleriaren beherapen motel baina jarrai bat adierazten du. Eskualdean 1986-2001 urte tartean biztanleriaren bilakaera positibo bat aurkezten duen udalerrri bakarra Berriz da, eta hala ere ez da oso esanguratsua.

Biztanleriaren bilakaera

<i>Udalerría</i>	1986	1991	1996	1999	2001
Abadiño	7136	7079	6855	6844	6.843
Atxondo	1504	1509	1487	1462	1.427
Berriz	4197	4244	4139	4159	4.312
Durango	27152	22710	23970	24781	25.003
Elorrio	7768	7438	7303	7194	7.157
Garai	245	253	247	248	252
Iurreta	(Durangon)	4883	4507	4308	4.144
Izurtza	276	271	274	262	266
Mañaria	525	505	469	460	453
Otxandio	1200	1123	1038	1005	1.017
Zaldibar	3308	3137	3018	2917	2.877
Udaltaldea Guztira	53.311	53.152	53.307	53.640	53.571

Iturria: EUSTAT eta Bizkaiko Foru Aldundiaren datuetan oinarrituta

Atxondok gaur egun bere historiako biztanleria maila handienak aurkezten ditu, 60 eta 70 hamarkadetan izan zuen beherakadatik era nabarmenean errekeratuz.



Iturria: EUSTAT eta "Añamendi" Euskal Herriko Ilustraturiko Entziklopedia orokorraren datuetan oinarrituta

1.2. Biztanleriaren egitura

2001ean, Atxondoko biztanleriaren egitura ondorengo moduan zegoen banatuta: biztanleriaren %21,1 19 urtetik beherako pertsonak ziren, %63,7 adinen ertaineko multzoan zeuden; hots, 20 eta 64 urte bitartean, eta %15,2 65 urtetik gorako taldean zegoen.

1981-2001 epean, udalerriko biztanleriaren egituraren eboluzioak ondorengo aspektuak azalarazten ditu: biztanleen zahartze-joera eta adinen araberako egiturak aldaketa esanguratsuak agertzea. Hala ere eskualdean, Bizkaian eta orokorrean Euskal Autonomi Erkidegoan baino biztanleria gazteagoa duen egitura bat mantentzen da.

19 urtetik beherako adin-multzoak pixkanaka eta arinki behera jotzen du, 64 urtetik gorako biztanleriaren garrantzia gero eta handiagoa da eta 20 eta 65 urte bitarteko multzoak pixkanaka-pixkanaka aurrera darrai. Zifra hauek zera islatzen dute: lan-mundutik kanpora dagoen biztanleria hartzen ari den garrantzia, etorkizunean gero eta handiagoa izango dena.

Sexuaren araberako banaketari dagokionean, bi generoen artean egoera oso orekatu baten aurrean aurkitzen gara, gizonezko gehiago egotera zuzenduriko joera historiko bat ikus

badaiteke ere.

Biztanleriaren egitura adin-multzoen arabera

	1.981	1.986	1.991	1.996	2001
Adinak (guztira)	1.363	1.504	1.509	1.487	1.427
0 - 19 (%)	29,9	30,1	29,8	26,4	21,1
20 - 64 (%)	60,3	58,6	56,7	60,0	63,7
>= de 65 (%)	9,8	11,2	13,5	13,6	15,2
Gizonak	698	776	757	743	722
Emakumeak	665	728	752	744	705

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Biztanleriaren egitura adin-multzoen arabera. Inguruarekiko konparaketa (%)

Urtea	Adina	Atxondo	Bizkaia	Bizkaia
2001	0-19	21,1	16,6	17
	20-64	63,7	64,8	65
	>64	15,2	18,5	17,9

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

1.3. Berezko mugimendua eta migratzailea

EUSTATek emandako datuen arabera, 1996-2003 epean udalerriko jaiotze-kopurua 11 izan zen eta epe berdinean heriotza-kopurua, aldiz, 19 izan zen. Aztertutako epe horretan hazkunde begetatiboko tasa negatiboa izan zela (-8) erakusten dute datu hauek. Azken hamarkadan hau joera orokor bat izan da, motela baina jarraia.

Analizatutako azken urtean, 2003. urtean, jaiotze-tasa (jaiotze-kopurua bider 1.000/biztanle-kopurua, eta urteko batez bestekoa eginez) %7,73 izan zen. Bitartean, heriotza-tasak jaiotze-tasak baino garrantzi handiagoa dauka, hau %13,3koa izan baitzen.

Biztanleriaren berezko mugimendua.

Urteak	Berezko mugimendua		
	Jaiotzak	Heriotzak	Hazkunde begetatiboa
1996	14	1	-1
1997	7	9	-2
1998	8	11	-3
1999	10	9	1
2000	10	15	-5
2001	11	16	-5
2002	12	14	-2
2003	11	19	-8

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Mugimendu migratzaileaz ari garenean administratiboki definituta dauden bi eremu geografikoren artean ematen den bizileku ohikoaren aldaketaz ari gara; zentzu horretan, migrazioak beti bi ekinbide ditu sortzez, emigrazioa edo bizileku duen lekua bertan behera uztea, eta immigrazioa edo beste zonalde baten bizitzen hastea. Barne migrazioa abiapuntua eta helmuga EAEko udalerrri banatan duenean deitzen zaio. Kanpo migrazioak dira EAE eta Estatuaren edo atzerriaren artean ematen direnean mugimenduak.

1996-2003 epean gertatu mugimendu migratzaileari dagokionez, inmigrazioa emigrazioa baino zertxobait altuagoa da; beraz, migrazio-saldoa edo sarreren eta irteeren arteko aldea positiboa

da kasu guztietan, baina beti ere kopuru oso txikitaz ari gara, eta horrek joera nagusiz hitz egin ezin izatea eragiten du. Kanpo migrazio mugimendurekin gertatzen den bezala barne migrazioa ere positiboa da azken urte honetan, baina kasu honetan bai ondoriozta daitekeela historikoki Atxondo eskualdeko gainontzeko udalerriekiko edo EAeko beste udalerriekiko balio negatiboak aurkeztu dituela, eta honek azaltzen du izan duen biztanleriaren galera motel baina etengabea.

Migrazioak, moten arabera.

Urtea	Inmigrazioa	Emigrazioa	Kanpoko miq. saldoa	Barne-miq. helburua	Barne-miq. jatorria	Barne-miq. saldoa	Udalerrri barruko migrazioak
1996	3	3	0	21	29	-8	19
1997	27	3	24	18	27	-9	13
1998	4	3	1	18	27	-9	13
1999	13	9	4	28	37	-9	13
2000	7	6	1	34	46	-12	28
2001	11	3	8	27	48	-21	16
2002	10	2	8	46	37	9	14
2003	13	12	1	26	42	-16	26

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Ez dago herri barneko migrazioen inguruko daturik, baina interesgarria izango litzateke hiru gune oso desberdin dituen herri batean haien arteko mugimendu argirik egon den jakitea, batez ere kontuan izanda Apatamonasterio izan daitekeela erakargarritasun gehien duena, eta horregatik dauka biztanleria gehien.

1.4. Hiri-nukleoak eta biztanleriaren espazio banaketa

Atal honen hasieran adierazi den bezala Atxondo 1962. urtean eman zen hiru herriren arteko batuketaren emaitza da: Apatamonasterio, Arrazola eta Axpe. Izaerari dagokionean beraz lurraldearen banaketa gaur egun ere mantentzen da, batez ere bi eremu nahiko desberdin mantenduz: alde batetik Apatamonasterio, komunikazio ardatz nagusiei loturik dagoen populazio gune eta gune industrial bezala, eta bestaldetik udalerriaren gainontzeko espazioa, landa izaera nabarmen batekin, auzo egiturako nukleo txiki eta sakabanatutako baserriz osatuta.

Banan-banan aztertuta, **Apatamonasterio** herri buruaren papera hartzen du, bertan udalerriko biztanleriaren gehiengoa kokatzen delarik. Azken mendean hazkunde nabarmen bat izan du, batez ere Durangoren garapen industrialaren eraginez, eta eskualde hau Gipuzkoarekin lotzen duen bideetako batean kokatua dagoelako (Durango eta Elorrio lotzen dituen errepidea).

- 2033. urtean udalerriko biztanleria osoaren %75,7 hartzen zuen, 1981. urtean baino 9 puntu gehiago.
- Gune honetako adinaren arabeko egitura udalerrian ematen denaren oso antzekoa da, 20-30 eta 40-55 urte bitarteko adin taldeen gehiengo batekin, eta hirugarren adinekoen ehuneko nahiko murriztarekin (%11,2).

Arrazola: bigarren gune hau udalerrian biztanleria gutxien duen eremua da, 139 biztanlerekin, biztanleria osoaren %9,5. Bere garrantzia galduz joan da, biztanleriaren pisuari dagokionean, nahiz eta azken hamarkadan ez duen aldaketa nabarmenik jasan.

- Axperekin batera populazioaren ehuneko gehien galdu duen eremua izan da (%23 1981

eta 2002 urte bitartean), baina hala ere azken hamarkadan nahiko egonkorra mantendu da, joera hori nahiko motelduz.


Axpe: Hirugarren gunea Axpe edo Axpe-Marzana bezala ezagutzen da, eta Marzana, Olazábal, San Juan eta Santiago auzoek osatzen dute. Gune hau, nahiz eta Arrazolak baino biztanle gehiago izan, aipatutako auzoaren parekoa izan da biztanleria galeran, ehuneko antzekoak galduz (%23 inguru galdu duelarik), baina kasu honetan ez da ikusten joeraren aldaketarik.

2. EKONOMIA ETA ENPLEGUA

2.1 Jarduera eta egitura ekonomikoa

2001. urtean, sektore ekonomikoen arabera biztanleria landuna ondorengo moduan zegoen banatuta:

16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, lurralde-eremuka, jarduera-adarren arabera, 2001



16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, lurralde-eremuka, jarduera-adarren arabera, 2001. %

	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Atxondo	3,8	46,9	8,6	40,7
Bizkaia	1,5	23,6	9,2	65,5
Euskal A.E.	1,77	27,4	8,6	62,0


Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Industria sektorea da zalantzarik gabe nagusi biztanleria okupatzeko garaian, zerbitzuen sektoreagatik jarraitua. Eraikuntzaren sektoreak ez du garrantzi handirik, eta lehenengo sektorea ia ez du presentziarik. Egitura hau ia bere osotasunean errepikatzen da eskualde mailan, eta goragoko mailetan ere errepikatzen da, nahiz eta zerbitzuen sektoreak garrantzi apur bat gehiago duen.

Jarduera-adarren arabera establezimenduei dagokienez, 2004an establezimenduen %42,4 merkataritza, ostalaritza eta garraioen alorrari zegokion; Industria eta energiari lotutakoak %22,6 ziren; %16 Eraikuntzakoak, %13,2 Zerbitzuen bestelako jarduerekin zerikusia zutenak eta gainerako %5,6 Bankua, aseguru-etxeak eta enpresak izeneko taldeari zegokion.

Datu hauen arabera, azpimarratu daiteke zerbitzuek gero eta garrantzi gehiago hartzen dutela Atxondon, eta, aldi berean, industriak bere presentzia mantentzen duela. Garrantzizko gabezi bezala Bankuak, aseguruak..... establezimenduak ez egotea adierazi daiteke, agian mota honetako zerbitzuak bere egoitza izateko garrantzi nahiko duen gunerik ez dagoelako.

Establezimenduak jarduera-adarren arabera. 2004



Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

2000.urteko udalerriko balio erantsiaren egitura kontuan hartuz gero, Industriaren sektorea da produkzio sektore klabea eta udalerriri aberastasun gehien ematen diona.

Udalerriko Balio erantsiaren egitura. 2000

	Lehen Sekt.	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Atxondo	1,4	75,8	4,1	18,6

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Beraz, Atxondo batez ere industrian oinarritzen den udalerrri bat dela ondoriozta dezakegu, nahiz eta sektore honek udalerrian dituen establezimendu kopurua sektore guztietan handiena ez den. Zerbitzuetan aritzen den jende kopurua hain altua izateak eskualdeari dagokio udalerriri baino gehiago.

Atxondon, 2001ean, biztanleria aktiboa (aktiboak/biztanleria osoa) 648 pertsonatakoa zen, hau da, biztanleria osoaren %45,4 Durangaldea eskualdekoa baino (%46,5) aktibitate-tasa baxuagoa eta Bizkaiko Lurralde Historikokoaren (%45,4) berdina.

Biztanleria jardueraren arabera. Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE). 2001

Udalerria	Guztira	Aktiboak LANE					Inaktiboak LANE
		Guztira	Lana dutenak LANE	Langabetuak LANE			
				Guztira	Lehenengo lana	Lan egin dute	
Atxondo	1.427	648	612	36	12	24	779
Udaltalde	53.751	25.004	22.971	2033	408	1.625	28.747
Bizkaia	1.122.637	509.869	441.967	67.902	16.943	50.959	612.768

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Biztanleria jardueraren arabera (LANE) (2001). Ehunekotan(%)

Udalerria	Guztira	Aktiboak LANE					Inaktiboak LANE
		Guztira	Lana dutenak LANE	Langabetuak LANE			
				Guztira	Lehenengo lana	Lan egin dute	
Atxondo	1.427	45,40	94,44	5,55	1,85	3,70	54,59
Udaltalde	53.751	46,51	91,86	8,13	1,63	6,49	53,48
Bizkaia	1.122.637	45,41	86,68	13,31	3,32	9,99	54,58

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

2.2. Sektore ekonomikoak

Lehen sektorea.

Lehen sektorea historikoki aurkitu izan da erliebeak suposatzen duen arazoarekin. Nekazal ustiaketak aldapa gutxien dituzten lurzoru eta haran ondoetan aurkitzen dira, batez ere abeltzaintzara zuzenduak (behi haragia eta esnea eta korta hegaztiak, mendi inguruekin loturiko beste espezie batzuekin, ardiak eta ahuntzak). Haranetako eremu baxuenetan negutegien bitartez landatutako eremuen sistema intentsiboetan oinarritutako ortuak dira nagusi. Erabil daitezkeen maldak basogintzarako erabiliak izan dira, batez ere hazkunde azkarreko espezieekin, hauek produktuak inguruetako paper fabrika edo zerrategietara zuzentzen direlarik.

XIX mende bukaeran lehen sektoreko ohiko nagusitasunak bidea uzten dio udalerria pixkana egituratzen ari den garapen industrial eta hiritar bati. Garapen horren inguruan gizarte-elkartek bildu eta haraneko lur onenak okupatzen dira, nekazaritzako jarduera bigarren plano batean geratuz. 2000. urtean, lehen sektoreak udalerrian sortutako balio erantsia erabat testimoniala da, %1,4ra iritsiz.

Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak ustiatutako azalerari dagokionez, 1999. urtean Atxondon kokatutako 163 ustiategi zentsuetatik %55,2 abeltzaintzarekikoak ziren, %44,8 abeltzaintzarik gabekoak eta ez zegoen lurrik gabeko ustiategirik. Bestalde, Atxondon landa-erabileretara bideratutako guztizko azalera 2.010 Ha ziren, eta horietatik %36,8 abeltzaintzarekikoak eta gainerako %63,2 abeltzaintzarik gabekoak.

Ustiapen zentsatuak eta guztizko azalera. 1999

	Guztira		Abeltzaintzarekin		Abeltzaintzarik gabe		Lurrik gabeko ustiategiak
	Nº	Ha./Exp.	Nº	Ha./Exp.	Nº	Ha./Exp.	Nº
Atxondo	163	2.010	90	729	73	1.281	0
Udaltalde	1.738	16.543	903	6843	825	9.698	10
Bizkaia	20.333	171.712	9.398	78.604	10.787	93.109	148
EAE	39.956	606.187	19.066	245.930	20.568	360.257	322

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Lurraren erabilpen banaketari dagokionez, 1996an Atxondoko lurraldearen %12,8 ez zen produktiboa; %15,7 larrek hartzen zuten; %1,8 larrediak ziren; azalera osoko %3 sastrakak ziren; %66 zuhaitz-baso trinkoari eskaintzen zitzaion; eta %0,7 zuhaitz-baso barbanak ziren.

Lurzoruaren erabileren banaketa, hektareak, 1996

	Etzeak	Larreak	Larrediak	Sastrakadia	Zuhaitz-baso trinkoa	Zuhaitz-baso barbana	Lan trinkoak	Guztira
Atxondo	302	372	43	72	1.557	16	-	2.362
Bizkaia	19.129	50.867	4.114	17.533	121.259	6.985	1.836	221.723
EAE	45.259	111.078	25.378	53.971	359.547	30.458	97.790	723.481

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Bigarren sektorea.

2001ean Atxondoko industria-sektoreak udalerriko biztanleria landunaren %46,9 biltzen zuen. Sektore honek udal ekonomian duen berariazko garrantzia handia izan arren, 2000. urtean guztizko balio erantsiaren %75,8 zekarren, bere garrantzia gutxituz joan da Zerbitzuen sektorearen mesederako.

16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, lurralde-eremuka, jarduera-adarren arabera. 2001. %

Eremua	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Atxondo	3,8	46,9	8,6	40,7
Bizkaia	1,5	23,6	9,2	65,5
EAE	1,77	27,4	8,6	62,0

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Udaleko balio erantsiaren egitura. 2000. %

Eremua	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Atxondo	1,4	75,8	4,1	18,6

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Atxondon, egungo industria enpresa txiki eta ertainak dira gehienbat (handienak ez dira 200 langiletara heltzen). Eskualdean gertatzen den bezala, galdaketa, forja-lan, lanabes makina eta transformadore metalikoen sektorean espezializatutako industria da batez ere. Hauetatik, erdiek gutxi gora-behera autoentzako osagaiak ekoizten dituzte. Bi dira garrantzi handien daukaten enpresak, Celulosas Moldeadas Hartmann, edukiontzietarako paperaren eraldaketan aritzen dena, eta Fuchosa, autoentzako osagaien ekoizpena egiten duena.

Izena	Langile-kopurua	Jarduera
AEMATIK, S.L.	Garaje-ateak txalet, komunitate eta pabilioietarako, aurre-espekadunak, irristatzaileak, burdin-langak eta abar, eskuzkoak eta automatikoak. Ateen eta urrutiko aginteen konponketak eta mantenimendua.	15
CELULOSAS MOLDEADAS HARTMANN, S.A.	Zelulosa moldeatuzko ontzien fabrikazioa, arrautzen, fruituen, botilen eta beste zenbait elikadura-produktuen enbalajerako.	220
ESTAMPACIONES LARRETXE, S.L.	Haqatxoen eta tutuen estanzazioa. Galdaraqintza arina eta estanzazioa oro har. Etxetresna elektrikoaren eta automozioaren industriarako piezak.	14
FUCHOSA, S.A.	0,1 Kq-tik 6 Kq-ra bitarteko eta grafito esferoidaleko galdaketako (nodularra) pieza kritikoen eta segurtasun-piezen fabrikazioa serie luzeetan, automozioaren sektorerako, balazta-sistemen osagaiak batez ere.	200
HIRUMET, S.L.	Txatarraren bilketa, manipulazioa eta prestaketa burdinurtu gris eta nodularerako.	14
INDUSTRIAS LORPA, S.A.	Trokelen fabrikazioa. Fresatzeko makinen bidezko mekanizazioa. Piezen estanzazioa.	23
INDUSTRIAS TEY, S.L.	Altzairuaren tratamendu termikoak: tenplaketa eta iraoketa.	25
KELMAN, S.L.	Arrantzarako produktuen fabrikazioa.	4
PREFABRICADOS APALATEGUI, S.L.	Eraikuntzarako egituren fabrikazioa, barlasaiak, qailurrak, erlaitzak, karqa-habeak, barandak, jardinerak eta aurrefabrikatu bereziak.	10
URMEDI-ARTIA, S.L.	Zerrategietarako makineriaren fabrikazioa. Zerrategi osatuen diseinua eta eraikuntza.	27

Iturria: Euskal Industria eta Esportatzaileen Katalogoa.2006ko Martxo

Zerbitzuen sektorea.

2001. urtean, zerbitzuen sektoreak udalerrian lanpostu ugariaren sorreran laguntzen du, enplegu osoko %40,7 (249 lanpostu). Bestalde, merkataritza-establezimenduak sortzeari dagokionez sektore nahiko dinamikoa da, guztizkoaren %61,3 (2004. urtean, 106 establezimendutik 65).

Zerbitzuen sektoreak sortutako balio erantsiaren dagokionean, sektore produktibo honek udal balio erantsiaren %18,6 dakar.

2.3. Lan-merkatua, enplegua eta gizarte-bazterketa

2001ean Atxondon bizi ziren 1.472 pertsonatik %45,4 aktiboak ziren, eta horietatik %94,4 okupatuta zeuden eta gainerako %5,6 besterik ez zen langabezia.

Bestalde, biztanleria ez-aktiboa; hots, haurrak, etxekoandreak edo pentsiodunak bezala ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenean esku-hartzen ez duten hiritarrak biztanleriaren %54,6 zen.

Biztanleria, jarduerarekiko erlazioaren arabera. LANE. (2001)

Udalerrria	Guztira	LANE aktiboak					LANE ez-aktiboak
		Guztira	LANE aktiboak	LANE langabetuak			
				Guztira	Lehen enplegua	Lanik egin dutenak	
Atxondo	1.427	648	612	36	12	24	779
Udaltalde	53.751	25.004	22.971	2033	408	1.625	28.747
Bizkaia	1.122.637	509.869	441.967	67.902	16.943	50.959	612.768

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Biztanleria, jarduerarekiko erlazioaren arabera. LANE. (2001) (%)

Udalerrria	Guztira	LANE aktiboak					LANE ez-aktiboak
		Guztira	LANE aktiboak	LANE langabetuak			
				Guztira	Lehen enplegua	Lanik egin dutenak	
Atxondo	1.427	45,40	94,44	5,55	1,85	3,70	54,59
Udaltalde	53.751	46,51	91,86	8,13	1,63	6,49	53,48
Bizkaia	1.122.637	45,41	86,68	13,31	3,32	9,99	54,58

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Langabeziaren azterketa eta eboluzioa

2002. urtetik langabetuaren definizioa aldatu egiten da, Europar Batasuneko araudiari jarraiki. Urte horretatik aurrera langabetu bezala sailkatzeko aurrez ezarrita zeuden irizpideez gain, azken lau asteetan lana bilatzeko aktibitatearen bat egitea beharrezkoa litzateke. Ez da aktibitate bat bezala ikusten lan eskakizun agiria berriztatzea edo informaziorako lan bulego publikoarekin harremanetan jartzea.

Udalerriko langabezia-tasa biztanleria aktiboaren %6,5a zen 2005ean. Indize hau, aurreko urte bietakoa baino handiagoa da, baina azken 10 urteotako garapena aztertuz gero, egoera irregularra izan dela ikus dezakegu, nahiz eta irregularidade horren barruan langabezia jaisteko joera egon den. Garapen hau eskualdekoaren oso antzekoa da, baina langabezia-indize altu samarragoekin, eta oso altuak Bizkaia eta EAeko orokorrarekin alderatzen badugu.

Langabeziaren urteroko eboluzioa 1997-2005 (Balore absolutuak)

	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Atxondo	48	32	46	34	27	35	29	28	42
Udaltalde	2.055	1.697	1.430	1284	1.275	1.196	1.214	1.226	1.502
Bizkaia	62.206	53.652	48.183	45.539	42.794	43.236	43.915	41.776	47.915
E.A.E.	109.367	93.596	82.779	77.153	73.726	75.596	74.791	71.620	83.390

Iturria: INEM-Egailan

Langabeziaren urteroko eboluzioa 1997-2005 (%)

	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Atxondo	8,2%	5,5%	7,8%	5,8%	4,6%	6,0%	4,5%	4,3%	6,5%
Udaltalde	9,0%	7,5%	6,3%	5,6%	5,6%	5,3%	4,8%	4,9%	6,0%
Bizkaia	13,1%	11,3%	10,1%	9,6%	9,0%	9,1%	8,6%	8,2%	9,4%
E.A.E.	12,2%	10,4%	9,2%	8,6%	8,2%	8,4%	7,7%	7,3%	8,5%

Iturria: INEM-Egailan

Adinaren eta generoaren arabera banaketari dagokionez, datuek banaketa desorekatu bat azaltzen dute emakumezkoen kalterako. 2005ean, langabezia- bulegoetan inskribatutako emakumezkoen kopurua 27 zen (%64,28), gizonezkoen kopurua 15 (%35,72) zen bitartean.

Adinaren arabera banaketari dagokionez, 25 eta 44 urte arteko emakumezko zein gizonezkoak dira langabezia gehien kontzentratzen duten multzoak.

Erregistratutako langabezia sexuaren eta adinaren arabera. 2005

Udalerrria	Guztira	Gizonak			Emakumeak		
		<25	25-44	>=45	<25	25-44	>=45
Atxondo	42	-	11	4	1	19	7

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Sektore produktiboaren arabera biztanleria langabetuari dagokionez, aipatu beharra dago langabezia-tasa handienak zerbitzu eta industriaren sektoreetan kontzentratuak daudela, aipatutako sektoreak ere udalerrian enplegu gehien sortzen dutenak baitira.

Erregistratutako langabezia jardura-sektorearen arabera. 2004

Udalerrria	Guztira	Sektoreak				
		Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Aurreko lanik gabe
Atxondo	42	-	13	2	25	2

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

3. GIZARTE-EKINTZA, ELKARBIZITZA ETA ELKARTASUNA

3.1. Laguntza, ongizatea eta gizarte zerbitzuak

Oinarrizko Errenta (antzinako Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera)

Oinarrizko errenta laguntza izaera duen aldizkako laguntza ekonomikoa da, bizirauteko oinarrizko diru-sarrerak ez dituzten pertsonen beharrak asetzeko helburua du. Izaera subsidiarioa du eta egungo legedian aurreikusitako laguntza sozial eta ekonomikoaren osagarria da, horiek erabili beharko dira oinarrizko errentara jo aurretik.

Durangoko Merindatearen Amankomunazgoko datuen arabera, 2004an bi biztanlek jasotzen zuten Oinarrizko Errenta Atxondon, 10.393,10€tako gastuarekin.

Oinarrizko Errentak udalerrian azkeneko urteetan izan duen bilakaera hurrengo koadroan azaltzen da:

Udalerrria	2002	2003	2004
Atxondo	53.676,47	60.482,74	76.278,85

Iturria: Durangoko Merinaldearen Mankomunitatea (Gizarte Zerbitzuak)

Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL)

Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren, edo bizikidetzaren unitateko kideak diren, onurarako laguntzak dira, euren bitartekoak oinarrizko gastuei aurre egiteko adinakoak ez direnean, gizarte-bazterketa saihesteko.

Durangoko Merinaldearen Makomunitatearen datuen arabera, 2004an biztanle batek jasotzen zuen Gizarte-Larrialdietarako Laguntzarik Atxondon, 13.163,69 €ko gastu batekin.

Ez dago GLL azken urteetan izan duten bilakaeraren inguruko daturik.

Servicio de mujer y familia

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekintza Sozialerako Sailak Emakume eta Familia Zerbitzuaren lan ordutegitik kanpo funtzionatzen duen zerbitzua eskaintzen du tratatu txarrak sufritu dituzten emakumeentzako, eta baita euren seme-alabentzako ere, Larrialdizko Zerbitzu gisa ezagutzen dena. Larrialdizko Zerbitzuaren helburua tratatu txarrak jaso dituzten emakumeei eta euren seme-alabei ostatu ematea da. Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekintza Sozialeko Sailaren memoriaren arabera (2003) Elorrio eta Atxondoko udalerrietan ezaugarri hauetako kasu bakarrari eman zaio arreta.

Asistentzia-zentroi eta azpiegiturei dagokienez, hurrengo taulan ikus daitezke 2003an udalerrian zegoen gizarte-zerbitzuen zentro-kopurua.

Gizarte-zerbitzuen zentro-kopurua, lurralde-eremuaren eta zentro-motaren arabera. 2003

Udalerrria	Guztira	Elkartek	Zerbitzu tekniko orokorrak	Equnek o zentroa	Egoitzak	Lanbide-zentroak eta enplegu-zentro bereziak	Besteak
Atxondo	3	1	1	1	-	-	-
Udaltalde	52	13	11	15	8	2	3

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

*: Lanerako-ikastegiak eta enplegurako zentro bereziak

3.2. Osasun-zerbitzuak eta biztanleriaren osasuna

Udalerriko osasun-zerbitzuak, osasun-zentro bakarrera mugatzen dira, ondorioz, arreta zehatzago beharrezkoa denean, eskualdeko beste zerbitzu batzuetara jo behar izaten da, Durangoko anbulatoriora edo Larrialdietako zerbitzura, edo bestela Galdakaoko ospitalera. Ospitale hauxe da eskualdeari dagokion ospitale-arretarako zerbitzua.

Ospitaleak ez diren zentroak lurralde eremuaren eta zentro motaren arabera. 2.003

Udalerria	Guztira	Anbulatorioak	Kontsultorioak	Osasun-zentroak	Larrialdi-zerbitzuak	Inguruko zentroak	Buru-osasunerako zentroak	Mutuako laquntza-zentroa	Otros
Atxondo	1	-	-	1	-	-	-	-	-
Udaltalde	19	1	4	6	1	2	1	4	0

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Biztanleriaren osasunari dagokionez, Atxondoko heriotzen arrazoi nagusiak hurrengo taulan azaltzen dira:

Generoaren eta heriotza arrazoiaren arabeko heriotzak. 2002

	Generoa				Heriotza arrazoa				
	Guzt.	Gizonak	Emakumeak	Tumoreak	Zirkulazio aparatua	Arnasketa aparatua	Lixeriketa aparatua	Istripuak	Beste gaixotasunak
Atxondo	19	11	8	-	-	-	-	-	-
Udaltalde	511	253	258	88	115	40	19	23	72
Bizkaia	10.684	5.584	5.100	3.182	3.368	1.102	553	433	2.046

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Generoaren eta heriotza arrazoiaren arabeko heriotzak. 2002 (%)

	Generoa				Heriotza arrazoa				
	Guzt.	Gizonak	Emakumeak	Tumoreak	Zirkulazio aparatua	Arnasketa aparatua	Lixeriketa aparatua	Istripuak	Beste gaixotasunak
Atxondo	19	58	42	-	-	-	-	-	-
Udaltalde	511	49,5	50,5	17,2	22,5	7,8	3,7	4,5	14,1
Bizkaia	100,0	52,3	47,7	29,8	31,5	10,3	5,2	4,1	19,2

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Beste udalerrietan ez bezala Eustatek ez ditu Atxondorako heriotza arrazoiaren arabeko daturik, eta ez dago ere osasunari buruzko beste datu edo ikerketarik, eta horrek ezinezko egiten du inolako konklusiorik ateratzea.

3.3. Etxebizitza

Arau Subsidiario berrien onarpenarekin batera (1998 bukaeran) etxebizitza parkea dinamizatzen hasten da, gaur egun udalerrian dauden 602 etxebizitzak lortu arte.

70 hamarkadako eraikuntzaren hazkunde booma igarotakoan, hazkunde motelduago batek jarraitu zuen, apurka gutxitzen joan zena, 86-91 epean ia geldoa izan arte. Ondoren 1991-1996 urte tartean 25 etxebizitza eraiki ziren. Azken urteetan aurreikusitako 256 etxebizitzetatik 74 eraiki dira, hau da, %29a, aurreko epearekin desberdintasun handia suposatzen duena.

ATXONDOKO ETXEBIZITZA PARKEAREN BILAKAERA

URTEA	FAMILIA ETXEBIZITZAK	ETXEBIZITZA AZALERA	HUTSIK	ETXEBIZITZA AZALERA	ETXEBIZITZAK GUZTIRA
1981	352	73,2	129	26,8	481
1986	401	79,9	101	20,1	502
1991	421	84,4	82	16,3	503
1996	434	82,1	93	17,6	528
2003	508	843	-	-	602

Iturria: EUSTAT, Lantik ETA Atxondoko Udalaren datuetan oinarrituta


Azken finean, aztertutako indizeei jarraituz, Atxondon etxebizitza parke egoki batez ari garela esan daiteke, berez oso etxebizitza zaharrak ez direlako eta baita beti ere eskaerari egokitu delako eta etorkizunerako dauden aurreikuspenengatik. Aldi berean udalerriko landa eremuetan baserri kopuru altu bat dagoela esan behar da., Arau Subsidiario berrien barruan hazkunde berriak aurreikusi direlarik, gune horietan 34 etxebizitza berri jartzeko aukera planifikatuz.

Etorkizunari begira, eta kontutan izanda Atxondok bere gaurko beharrak aseta dituela eta biztanleriaren bilakaera gorabehera gutxiarekin mantendu egiten dela, desazelerazio honetan galdutako bidea berreskuratzeko eta demografikoki egoera geldoan ez geratzeko era bakarrik proposaturiko planeamendua aurrera eramatea posible egingo duen politika bat aurrera eramatea litzateke. Ildo horretan 20-29 urte bitarteko biztanleriaren etxebizitza eskakizunak aseko lirateke, oso garrantzitsua den biztanleriaren sektore bat, etxebizitza eskaintzarekin udalerritik ez aldegitte eraginez, eta aldi berean bere garaian etxebizitza eskaintza urriaren eraginez udalerria utzitako biztanleria ere erakarritu.

Azken finean aurrera eramaten den etxebizitza udal politikak gutxienez herri barneko eskaera hau asetzeko nahikoa izan beharko litzateke, landa eremuak kontrolatu gabeko inbasio demografiko batetik zainduz.

3.4. Hezkuntza eta kultura

2001ean, eskolatzeko-mailaren arabera biztanleriaren banaketa Atxondoko udalerrian Durangaldea eta Bizkaiko ertaineko baloreak baino baxuagoa zen, bakarrik oinarritzko ikasketak dituen biztanleriaren ehunekoa altuagoa baita, bigarren mailakoek eta goi mailakoek pisu gutxiago dutelarik.

Biztanleriaren banaketa ikasketen mailaren arabera 2001

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Udalerriko ikastetxeak

Eustaten datuen arabera Atxondon izaera publikoa duen ikastetxe bakarra dago, 2004-2005

ikasturtean 57 ikasle zituen.

Araubide orokor ez unibertsitarioko ikasketak. Ikasketak maila eta ikasketak ikastetxe motaren arabera . 2004-2005.

	Publikoak	Pribatuak	Guztira
Haur hezkuntza	24		
Lehen hezkuntza	33		
Derriqorrezko Biqarren Hezkuntza			
Batxilergoa			
Lanbide heziketa			
Guztira	57	-	57

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

Araubide orokor ez unibertsitarioko ikasketak. Ikasketak maila eta ikasketak elebidun ikasketen arabera. 2004-2005

	A-X	B	D
Educación infantil (1)	-	-	24
Educación primaria (2)	-	-	33
Educación secundaria Obligatoria (3)	-	-	-
Bachillerato (4)	-	-	-
Formación Profesional (5)	-	-	-

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

- A. Euskara ikasten dute ikasgai bezala. X. Ez dute euskararik ikasten
- B. Hezkuntza elebiduna
- D. Ikasgai guztiak euskaraz

Datuen arabera ikasle guztiek D erduan ikasten dute.

3.5. Euskara

Euskararen ezagutzari dagokionez, 2001.urtean, biztanleriaren %67,4 euskaldunak ziren, %7,6 ia euskaldunak ziren, eta %25 erdaldunak ziren.

2 urteko eta gehiagoko biztanleria, lurralde-eremuaren eta euskara-maila orokorraren arabera. 2001

Udalerría	Guztira	Euskaldunak				Ia-euskaldunes				Erdaldunak
		Guztira	Alfab.	Erdizka alfab.	Ez alfab.	Guztira	Alfab.	Ez alfab.	Pasiboak	
Atxondo	1.403	947	704	198	45	104	42	51	11	352

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta.

Población de 2 y más años clasificada por ámbitos territoriales, según el nivel global de euskera. 2001

Udalerría	Guztira	Euskaldunak				Ia-euskaldunes				Erdaldunak
		Guztira	Alfab.	Erdizka alfab.	Ez alfab.	Guztira	Alfab.	Ez alfab.	Pasiboak	
Atxondo	1.403	67,49	50,17	20,90	4,75	7,41	40,38	49,03	10,57	25,08

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta.

1986-2001 aldiko garapenak, euskaldunen kopurua eta ia euskaldunena nabarmen hazi da, eta gaztelera soilik ezagutzen duten pertsonen kopurua ere asko gutxitu da, are gehiago, zenbaki oso horiek, biztanleriaren beherakada orokorrarekin eman direla hartu behar da kontuan:

Euskararen garapen maila orokorra 1986-2001

Jarrera linguistikoaren garapena				
	1986	1991	1996	2001
Euskaldunak	844	1.486	980	947
la euskaldunak	147	166	117	104
Hiztun erdaldunak	462	394	366	352
Guztira	1.453	2.046	1.463	1.403

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Euskararen garapen maila orokorra 1986-2001 (%)

Jarrera linguistikoaren garapena				
	1986	1991	1996	2001
Euskaldunak	58	72,6	67	67,5
la euskaldunak	10	8,1	8	7,5
Hiztun erdaldunak	32	19,3	25	25
Guztira	1.453	2.046	1.463	1.403

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

4. LURRALDEA, ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA

4.1. Ingurune fisikoa eta naturala

Atxondo Durangaldeko eskualdeko ekialdean kokatuta dago. Atxondok iraganean udalerrri ziren Apatamonasteriok (3,3 km²), Arrazolak (9,2 km²) eta Axpek (10,7 km²) osatzen dute. 23,2 Km²-ko azalera hartzen du; eskualde osoko %7,3 eta Bizkaiko %1,0, hain zuzen ere. Iparraldean Abadiño du mugakide; Hegoaldean, Otxandio; Ekialdean, Elorrio; eta Mendebaldean, Izurtza.

4.1.1. Geologia, klima eta hidrologia

Geologia eta Geomorfologia

Udalerrriak korridore egitura bat du, Iparraldean Memaia mendiak eta hegoaldean kareharrizko mendizerra batek ixten baitute. Egiturari dagokionean Durangaldeko eskualde osoa egituratzen duen HE-IM norabidea duen mendizerraren barruan aurkitzen da. Litologikoki berriz Behe Kretazikoko materialak dira nagusi, Urgoniar Konplexukoak, eta haien artean 1.200 metro dituzten Kareharri Arrezifalak dute nagusigoa. Orokorrean erliebe ia bertikalak agertzen dira, distantzia laburretan aldaketa asko izanda. Bere punturik gorena Anboto mendian aurkitzen da, bere ekialdeko isurialdean 1.000 metrotako horma ia bertikal batekin Atxondo gainean altxatzen dena. Antiklinal indartsu baten parte da, inguruan eragin zuten indar tektonikoen eraginez tolestua. Iparralderago eta altuera baxuagoekin mendizerra bat aurkitzen dugu, Memaia (669m.) mendia buru duena.

Bi eremu horien artean eskualdean ohikoan diren lurzoru tuparritsuak eta kareharrien tartekatzeak azaltzen dira. Higaduraren aurrean material ezberdinek duten portaera ezberdinaren eraginez topografikoki oso irregularra den paisai bat sortu da, eremu lau bat inguratzen duten bi malkar garrantzitsurekin. Material bigunen gainean ibaia haran bat egituratu du, Txareta harana.

Klima eta meteorologia

Euskal Herriko klima atlantiar eta mediterranearen klimen arteko trantsizio eremuan kokatzen da eta hainbat faktore dinamiko orokorrek baldintzatzen dute, horien artean azpimarratu behar dira Mendebaldeko korrantea eta Frente Polarra. Mendebaldeko korranteak berarekin dakartza masa lainotsuak, hezetasunez beteta iristen dira Euskal Herrira Atlantiar ozeanoa igaro ostean eta prezipitazio askoren eragileak dira. Tenperaturetan berebiziko garrantzia du Frente Polarra urrunago edo gertuago egoteak.

Bestalde, maila lokalean, Euskal Herriko klimak lotura estua du egoeraren baldintzatzaileak deitzen direnekin. Baldintzatzaileak dira erliebea eta ozeanoarekiko gertutasuna. Erliebeak pantaila orografiko gisa ekiten du ekialdetik mendebalderako kokapena baitu orokorrean eta ozeanoarekiko gertutasuna kontraste termikoen erregulatzailea da. Kantauriar isurialdeko baldintza klimatiko ozeanikoen ondorioz euria maiz egiten du eta tenperaturak epelak dira. Durangoko udalerrria kantauriar zonaldean dago, eta beraz klima atlantikoak eragiten dio, klima epel hezea da eta ez du urtaro lehorrik.

Prezipitazioei dagokionez urteko batez bestekoa 1.100 eta 1.800 l/m² baino gehiagokoa da. Euri egunak asko dira, urtean 180 inguru batez beste.

Temperaturei dagokionez, neguko batez bestekoa 8° ingurukoa da eta izotz arriskua dago azaroa eta urtarrila bitartean. Urteko batez besteko tenperatura 14°C-koa da, nahiz eta neguaren eta udararen arteko ezberdintasunak Durangaldean nabaritu daitezkeen.

Haizea mendebaldeko eta iparraldekoa izan ohi da, udaran salbuespena bada ere, haize lehorrak eta beroak nagusitzen baitira, hego-ekialdekoak. Haize bolada handienak 100 eta 105 Km/o abiadurakoak izaten dira.

Hidrologia

Hegoaldetik iparraldera Txareta ibaiak zeharkatzen du udalerria, Ibaizabal ibaiaren ibaiadarra, mendilerroetatik datozen ubide eta erreka ugarien ur emaria jaso ondoren berarekin Apatamonasterion lotzen dena. Bakarrik Arabarekin mugakide den Atxondoko eremua Mediterranean arroari dagokio, bertako urak Azunza ibaira baitoaz, Urkiola ibaiaren adarra.

Uren kalitatea

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien Ingurumen Egoeraren Uren Kalitatea Zaintzeko Sareak kontrolatzeko zazpi estazio ditu Ibaizabal arroan.

Atxondotik gertuen dauden estazioak ondorengoak dira: I-140 (Smurfit Nervión, S.A. paper-fabrikatik ibaian gora) eta I-160 (Smurfit Nervión, S.A. paper-fabrikatik ibaian behera), biak Ibaizabalen kokatuta daudenak; eta IE-140 (Matienatik igarotzean), Elorrio ibaian kokatutakoa. Ez dago bera Txareta Ibaian estaziorik.

Ondoren aipatutako estazioak emandako datuak azaltzen dira.

2002ko laginketa.

Ibairen ekosistemaren inpaktua		
Estazioa	Ekosistemaren mantenuaren galeraren maila	Arrainen faunaren toxikotasuna
I-140	99	N
I- 160	100	B
IE- 140	0	N

2002ko laginketa.

Estazioa	Ingurumen egoera	Ibaiertzen mantenua	Egoera ekologikoa
I-140	E2	Eskasa	Eskasa
I-160	E1	Eskasa	Eskasa
IE- 140	E4	Onargarria	Onargarria

1. Arrainen faunaren toxikotasuna:

N: Ur normalak

B: Efektu toxiko eta patologikoak eragiten dituen biometanizazioa duten urak.

I: Arrainen bizirako bideraezina

2. E indizeak zehazten du urek biodebirtitate ahalik eta handiena izatek probabilitatea. Terminologia: E1 Hipereutrofia-inguru oso gogorra, E2 Kutsadura; ur kutsatuak, inguru gogorra, E3 Eutrofizazioa-inguru gorabeheratsua, E4 Ur garbiak-inguru establea, E5 Ur oligomesotrofitoak; inguru oso heterogeneoa.

Datu hauetatik ondorioztatu daiteke Ibaizabal ibaiak mantenuaren %100eko galera duela, arrainen bizitzaren garapenerako inguru egoera oso gogorra da eta ibai-ertzaren mantenua oso baxua da bi estazioetan:

- EZEREZA I-140an, ertzean eraikuntzak daudelako, zuhaitzak sartu direlako eta zaborrak isurtzen direlako.
- BAXUA I-160 estazioan

Elorrio ibaiari dagokionez, ingurumenaren gainbehera bizi da ibaiaren ekosistemaren mantenu baxuarekin eta ingurumen heterogenitate handia galtzen ari da. Hurrengo taulan ikus daiteke ingurumen egoeraren garapena:

Laginketa puntuen ingurumen egoeraren garapena.

INGURUMEN EGOERA						
Laginketa puntua	1993 udaberria/ udara	1994 udaberria/ udara	1995 udaberria/ udara	1996 udaberria/ udara	1997 udaberria/ udara	1998 udaberria/ udara
I-140	E2/E3	E2/E3	E2/E3	E2/E3	E3	E2
I-160	E2/E3	E2/E3	E3/E3	E3/E3	E2	
IE-140		E3/E3	E3/E3	E3/E3	E4	E3
INGURUMEN EGOERA						
Laginketa puntua	1999 udaberria/ udara	2000 udaberria/ udara	2001 udaberria/ udara	2002 udaberria/ udara		
I-140	E3	E1	E1	E2		
I-160	E2	E1	E1	E1		
IE-140	E2	E2	E3	E4		

Ikus daiteke ibaiaren arroaren ingurumen egoeraren galera 1997tik aurrera, garai honen aurretik I-140 eta I-160 estazioek E3 motako kalitate mailak erakusten zituzten maitasun handiagoz.

Ur kalitatea

EUROPAKO ARTEZARAUAK			
Estazioa	Horniketa ¹	Estazioa	Horniketa ¹
I-140	A4	Ez egokia	III
I-160	A4	Ez egokia	III
IE-140	A4	Ez egokia	III

1. 75/440/CEE hornikuntza artezarua: Hornikuntza (A1, A2, A3)

A4 ur edangarrirako erabilgarria ez den ura, salbuespen kasuetan izan ezik, tratamendu zehatzekin.

2. Kontseiluaren Artzazarua 76/160/CEE: Bainua (Egokia, Ez egokia)

3. Kontseiluaren Artzazarua 78/659/CEE: Arrainen Bizitza (S.C, III)

III Ur kutsatuak, kalitate txarra

Uraren kalitate fisiko-kimiko orokorra

Ibaizabalen arroa oso humanizatua dago, hirigune garrantzitsuak ditu (Durango bera) eta industrializazio handia bizi du, bi arrazoi horiek kutsadura handia eragiten dut, beraz, kalitate orokorra “Ez da iristen kalitate kimiko onera”.

Urak dituen kutsatzaile organikoen presentzia handia da, azpimarratu behar dira zinka, kobrea, kromoa, burdina eta beruna:

- Elorrio ibaiko estazioan (IE-140) uraren kalitatea baxua dela esan daiteke. DBO5ak hobetzeko joera erakusten du, azken aldietan balio oso baxuak aurkitu dira. Hala ere, DQOk balio baxuak erakusten dituen arren ez du inolako joera argirik erakusten. Gatz kutsadurak aldi ezberdinak erakutsi ditu, batzuetan kutsadura izan da eta beste batzuetan ez. Baina, 2001etik aurrera okertzeko joera ikusi da.
- Ibaizabal ibaiko estazioak (I-140 eta I-160): kromo presentzia handia erakutsi dute, industria handia duelako inguruan eta beste estazioetan baino arro inguratzaile txikiagoa duelako. DBO5 balioek (Oxigenoaren Eskaera Biologikoa gazteleraz – *Demanda Biológica de Oxígeno*, 5 egun) txikitze joera dute, baina DQO balioak mantendu egiten dira; honek badirudi esan nahi duela izaera biologikoko kutsadura gutxitzen ari dela (arazkatze instalazio berriak eraiki direlako), eta izaera kimikoa duenak garrantzitsua izaten jarraitzen du. Gatz kutsadura I-140 estazioan hobetu eginda, 1999tik ez dago kutsadurarik.

Arrain komunitatearen konposizioa

Ibaizabal ibaiaren bizitza biologiko oso pobretuta dago, ez dago espezieak berriz bere eremu naturalak hartzea posible egingo duen errekupeazio kimikorik. Azken urteetako bilakaera aztertuz Durango eta ere inguruetatik pasatzean duen aberastasuna arrisku handian daudela egiaztatzen da. 4 oinarrizko arrain espezie ikusten dira: Amuarraina, Loina, Zarboa eta Ezkailua, aniztasun indizea oso baxua delarik. Ibai hauetan agertzen ez den arrain familia nagusia Izokinarena da.

Arrain komunitatearen Kontserbazio Egoeraren diagnostikoa Moderatua da, eta horrek esan nahi du azken urteetan mantendu egiten dela. Aldiz “Faunaren konposizio eta aniztasuna” diagnostikoan egoera Oso Kalitate edo Egoera txarreko balorazio bat ematen digu.

4.1.2. Flora eta fauna

Flora

Kontuan izanik normalean landarediaren baldintzatzaile diren faktoreak (klima, litologia, topografia...) euskal lurraldearen potentzialitatea zuhaitz-duna da. Soilik gazitasunean, harkaitz gandorretan eta hidromorfia garrantzitsuko eremuetan dauden lurrek izan ditzakete bestelako landaredia komunitateak.

Hala ere, berezko zuhaiztiak aldatu egin dira denborak aurrera egin ahala, leku askotan gizakiarentzat ekonomikoki errentagarriagoak diren espeziekin ordezkatuak izan dira, eta bertan behera utzi diren lekuetan basoaren berezko etapa jarraituekin. Eraitza euskal paisaiaren dibertsifikazioa izan da; gaur egun, landaredi komunitate eta formazio aniztasuna eta aberastasuna dira eraitza. Beraz, Durangoko Jarduera Eremuaren baitako paisaiaren osagarri nagusiak koniferak eta zelai atlantikoak dira, potentzialki hariztiak eta ameztiak behar luketen lurretan.

Artadien eta pagadien kontserbazio egoera, hala ere, askoz ere hobea da. Nekazal balio txikiagoa duten lurrak hartzeak, batez ere artearen kasuan, eragin du bi baso formazio hauen zonalde handiak iristea gaur egun arte. Landaredia potentzialaren eta hauen kontserbazio egoeraren ingurukoak jarraian azaltzen dira modu laburrean.

Pagadiak

- *Espezie nagusia*: FAGUS SYLVATICA pagoa.
- *Espezie kideak*: gorostia eta otsalizarra pagadi oligotrofoetan. Hurritza, elorri zuria, hostazuria eta elorri beltza pagadi basofilo eta onbrofiloetan. Arrosa eta ezepe generoko espezieak pagadi basofilo eta xerofiloetan.
- *Txoko ekologikoa*: Pagoaren balio ekologiko zabalak izaera edafiko eta topografiko anitzeko biotopoak hartzeko aukera ematen dio, beraz, bi pago mota ikus daitezke. Ereku menditarreko zorurik sakonenetan landaredia nagusia pagadi basofilo eta onbrofiloak dira. Kareharri gogorak dauden lurretan, aldapa handikoetan eta euriek 1.200 mm gainditzen ez dituztenetan pagadi basofilo eta xerofiloak ageri dira.
- *Kontserbazio egoera*: Altuera handi samarrean egotearen ondorioz, normalean 600 metrotik gora, pagadien kontserbazio egoera ona dela esan daiteke, gainontzeko osaketa naturalek zigor gogorragoa jasan dute.
- *Kidego fitsoziologikoak*: Saxifraga hirsutae - Fageto S. Y Carici sylvaticae -Fageto S., Epipactido helleborines-Fageto S.

Pagadiak 600 metrotik gora egon ohi dira, atmosferako hezetasuna altua den lekuetan, batez ere laiotzean. Hauek kaltzikolak liriateke hego-mendebaldeko sektorean eta azidofiloak ipar-ekialdean.

Lur azidoetan, hauek substratutik zuzenean edo lixivazio naro batetik eratorriak izan, finkatzen da pagadi azidofiloa. Oihanpea ez da oso itxia eta erabat baldintzatzen du pagadien errezelak eragindako itzalak. Basoaren garbiguneetan garoa eta txilarra dira nagusi, baita otadiak ere. Nahikoa ohikoak dira urkia eta hostazuria ere. Pagadi hauen nagusitasuna agerikoa den eremua askotan bazkaleku bihurtu dira, eremurik altuenetan, eta bertan sartu dira oreina bezalako alpetar espezieak.

Kareharria nagusi den eta aldapa handiko egoerak jasotzen diren mendilerroetan, bada bigarren pagadi mota bat, "pagadi xerofiloa" deitzen dena. Bertan, berezko flora ezinean ibili ohi da hezetasunaren ondorioz; aldiz, espezie berriak sortzen dira eta horien artean

azpimarratzekoak dira orkidearen hainbat genero. Lurralde eremu altu eta zailtan izan ohi denez, erabilpen aldaketa oso zaila da eta ondorioz, baso honen erakusgarri txukunak gordetzen dira.

Artadia

- *Espezie nagusia*: artea, QUERCUS ILEX karraska.
- *Espezie kideak*: karraskila, gurbitza, gogortxua, arrosa eta abaritzia.
- *Txoko ekologikoa*: harkaitza karedunei lotua azaldu ohi da ia beti, hauen gainean azaleko lurra sortu ohi da, urari eusteko gaitasun gutxikoa. Aldapa handiko edo gandor eta ezproi eremuetan, bestelako osaketak izateko eremu zaila.
- *Kontserbazio egoera*: iristeko eremu zailtan egoteak eta ez produktiboak izateak zaila egiten du lur hauek nekazaritzarako, abeltzaintzarako edo basogintzarako, horrek asko lagundu du kontserbazioan.
- *Kidego fitsoziologikoak*: Lauro nobilis-Querceto ilicis S., Spiraeo ovobatae - Querceto rotundifoliae S. Y Querceto rotundifoliae S.

Kareharriko erdiaren baitan, berezko harria gogorra da eta lurra murrizta, beraz, artedi kalzikolak izango lirateke landaredi heldua osatuko luketenak.

Ameztiak

- *Espezie nagusia*: erkametza, QUERCUS PYRENAICA ametza.
- *Espezie kideak*: gorostia, elorri zuria, pagoa, otea eta txilarra.
- *Txoko ekologikoa*: ametza normalean ura eusteko gaitasun gutxi duen lurtean izan ohi da, eremu onbloklimatiko hezeetan (600-900 mm.), harea-lurretan.
- *Kontserbazio egoera*: Euskal Herrian ez dira oso ohikoak ameztiak, batez ere kantauriar isurialdean, normalean gandorretan eta mendi silizeoen eguteraan izan ohi dira.
- *Kidego fitsoziologikoak*: Melampyro pratensis - Querceto pyrenaicae S. Y : Festuco heterophyllae-Querceto pyrenaicae S.

Ingurunean ametza beti bereziki lehorrak diren egoera edafotopografikoek baldintzatuta dago: hegoaldeko esposizioan, harea-substratuetan... Bere lore osaketa eta belaunaldiz belaunaldiko ordezkapenetan antza du harizti azidofiloena, are gehiago, ohikoa da bi espezien arteko hibridazioa.

Hariztiak

- *Espezie nagusia*: QUERCUS ROBUR.
- *Espezie kideak*: lizarrak, astigarra, hurritza, elorri zuriak, elorri beltzak, zuhandorra eta harizti mesotrofoen sasiak. Gaztainondoak, urkiak, gorostiak, eta zumalakarrak harizti oligotrofoetan.
- *Txoko ekologikoa*: harizti mesotrofoak baso higo-mesofitikoak, neutrofiloak edo basofiloak dira eta elikagaietan aberatsak diren lurtean osatzen dira. Bestalde, harizti oligotrofoak oinarrian txiroak diren lurtean osatzen dira.

- *Kontserbazio egoera*: Baso hauek oinarrian zuten lurraren etengabeko erabilpenak (normalean arantako eremu lauetan ziren) ekidin egin du hauen kontserbazioa eta eraldatu egin dira larretan eta labore-lurretan bilakatuz. Gaur egun, garai batean hartzen zutenaren zati txiki bat hartzen dute.
- *Kidego fitsoziologikoak*: Polysticho setiferi-Fraxineto excelsioris S., Hyperico pulchri-Querceto roboris S y Crataego laevigatae-Querceto roboris S.

Euskal Herriko kantauriar isurialdeko haranetan eta zelaietan ezartzen dira hariztiak. Baso hauek lurzoru sakon eta aberatsetan osatzen dira, eta horrek lore sail jarraitu anitza sortzen du, bai basoan eta baita honen amaieretan ere. Harizti mestrofoak dira, "baso atlantiarrek" deitzen direnak, eta espezie anitzeko zuhaitziak dituzte (haritzak, astigarrak, lizarrek, gaztainondoak...). Euren egungo kontserbazio egoera prekariora da, bere eremu potentziala laboreetarako eta sega zelaietarako erabili baita.

Bada harizki kantauriar hauen eratorri azidofilo bat, aberastasuna askoz ere txikiagoa den arren. Zuhaitz masetan nagusi da haritz kanduduna, nahiz eta oso ohikoa den zuhaitzi ez horren itxiak aurkitzea, horietan ohikoak dira ote zurien, genisten eta txilarren moduko sastrakak izatea. Hartzen dituzten lurrak oso txiroak diren arren, potentzialki hauen sorrerarako egokiak ziren lurretan gizakiak segarako zelaiak eta hazkuntza azkarreko espezieak ezarri ditu.

Aurrez aipatu den moduan, gaur egun haritz kandudunak eraldatutako eremu gutxitan daude eta ia azalera osoa zelai-labore atlantiarrek eta koniferen birpopulaketek hartzen dute.

Erriberako basoak

- *Espezie nagusia*: haltzak, zumarrak eta makalak. ALNUS GLUTINOSA.
- *Espezie kideak*: lizarrek, haritzak, sahatsak, hurritzak, ahien zuriak eta atxaparra.
- *Txoko ekologikoa*: lurzoru alubialen gainean garatzen dira eta hezetasuna, izaera heterogeneoa, porositate altua eta azalerako aire ona dira hauen ezaugarri nagusiak.
- *Kontserbazio egoera*: erriberako basoen landarediarentzako potentzialki egokiak diren ibarreko lur gehienak eraldatuak izan dira eta sega zelai edo laboreetarako lur bilakatu dira. Hala ere, oso ezaguna da baso mota honek uraren uholdekotasuna baretzeko lanean egiten duen lan ona. Beraz, harroen higaduran beherakada eragiten du egoerak eta uholde larriei aurre egiteko gaitasunean atzerapausoa dakarte; horregatik, gaur egun erriberako basoen berreskurapenari heltzen ari zaio.
- *Kide fitsoziologikoak*: Hyperico androsaemi-Alneto S., Rubio-Populetum albae S. eta beste batzuk.

Ibaien eta erreken erriberetako landaredia kantauriar isurialdean baso mistoak osatzen du, bertan zuhaitzen errezela haltzek, lizarrek eta haritzek elkarbanatzen dute. Behin hazitakoan baso itzaltsua eta oso hezea da, bertan iratzearen ugaritasuna agerikoa da.

Haltzadi kauntariek inguratzen dute ipar-mendebaldeko ur jariora, baina ez dute garapen handirik hartzen. Bestalde, kareharriaren inguruan dauden ibaien ibarrean lizardi-zumardiak

dira nagusi.

Hegoaldera dauden zonaldeetan, ibaiaren arroa handiagoa den eremuetan, garatzen dira makaldiak eta zumardiak. Nahiz eta badiren komunitate hauen eredu batzuk, erriberako baso hauek gaur egun oso eraldatuak daude, laboreetarako lur oso produktiboak direlako. Gainera, zumardiek kalte handia jasan dute zumarrak izan duen gaixotasun baten ondorioz, grafiosiaren ondorioz.

Ibaien ertzetan zelaiak eta baso landareak dira nagusi eta kasu askotan hirigintza lanak jasan dituzte. Ondorioz, erriberako basoak zuhaitz solteetara edo zuhaitz ilaretara mugatzen dira.

Bertako basoen desagerpenaren ondorioz bestelako baso landareak ezarri ez diren eremuetan sastrakak edo belarkarak ageri dira. Lehenen alorrean otalur azidofiloa eta elorri-lahardia dira nagusi.

Osaketa belarkarek neurri handian egin diote ekarpena Durangoko Jarduera Eremuko paisaiaren osaketari, batez ere, guztietan aiagarrietan, zelai atlantiarrenari. Belar komunitate seminatural hauek, baso landareekin batera, altuera erti eta baxuko azalaretan elementu nagusienak dira. Altuera ertain-altuetan, pagadien nagusitan potentziala, aurreko belarkaren osaketen orde mendiko zelaiak dira nagusi.

Fauna

Urkiolako Parke Naturaleko ornodunen fauna 126 espeziek osatzen dute, nagusiki jatorri edo / eta dispertsio eurosiberiarrekoak. Horietako asko Mehatxupean diren Espezien EAEko Katalogoan daude.

Anfibioen komunitatea aberatsa da eta balio handiko bi espezie aurkezten ditu: gailurretako uhandrea eta baso-igel jauzkaria, arabar hariztietako ezaugarri den anuroa. Bestalde, narrastien presentzia eskasagoa da, nahiz eta badiren kantauriar isurialdera zabaltzen diren espezieak: musker berdea, sugandila bizi-errulea, suge leuna eta sugedorri kantabriarra. Iberiar penintsula kontuan izan ezkerro arraroak direla esan daiteke.

Hegaztien artean harrapariak dira nagusi. Horien artean saia, aztorea, zapelatz liztorjalea eta belatz handia. Balio gehien duenetako, Euskal Herrian gutxi direlako, mendi-tuntuna da, gailur handietako harkaitz eta zelaietan soilik egon ohi da.

Ugaztunen faunaren ezaugarria dira intsektujale txikiak eta karraskariak, muturluze piriniarra bezalako bereziak dira aipagarriak, edo ur-satitsua eta satitsua. Haragijaleen artean lepahoria, bisoi europarra eta basakatua.

4.1.3. Paisaia eta ekologia intereseko guneak

Atxondoko udalerrria Urkiolako Parke Naturaleko inguruko mendien barrena zabaltzen da, eta

babestutako natur gune horri bere azaleraren zati garrantzitsu bat ematen dio; %26,4, hain zuzen ere, 613 Ha.

Urkiolako Parke Naturalak Aramotzeko mendizerrako lursail altuenak biltzen ditu, modu horretan kareharri hesi handia sortzen du Arratia, Durangaldea eta Aramaioko aranaren artean, ibaien kauntariar eta mediterraneer arroak ere bereizten ditu. Mendi hauen posizio geografiko eta fisiografikoak paisaia malkartsua sortzen du, harkaitzak eta bazkaleku altuak dira nagusi, beheraxeago eta mendi hauen magalean pinudiak, artadiak eta pagadiak agertzen dira. Urkiolako paisaia multzoa hego-ekialdetik ipar-ekialdera doan ardatzean kokatzen diren kareharri mendizerra handiek osatzen dute; gandor zorrotzuko eta malda handiko harkaitz handiak daude. Gandor hauen behealde artadi ilunek, pagadiak eta landaketa zonalde handiek hartzen dute, paisaia aberasgarria eginez. Paisaian eraldaketa gehien egin dutenak azpiegiturak izan dira, azpimarragarria trafiko handia duen BI-623 errepidea, izan ere, parkea erdi-erditik zeharkatzen du iparraldetik hegoaldera; harrobiek egindako inpaktu bisuala ere oso handia da.

4.1.4. Paisaiaren eta biodibertsitatearen mantenuan eragina duten ekimenak

Aurretiaz esan bezala, Atxondoko udalerrriak 23,2 Km² ditu azaleran, gutxi gorabehera, eskualdeko azaleraren %7,3 eta Bizkaiko %1,0.


Lurraren erabilpen banaketari dagokionez, 1996an Atxondoko lurraldearen %12,78 ez zen produktiboa; %15,74 larrek hartzen zuten; %1,82 larrediak ziren; azalera osoko %3,04 sastrakak ziren; %65,91 zuhaitz-baso trinkoari eskaintzen zitzaion; eta %0,67 zuhaitz-baso barbanak ziren.

Lurraren erabilpeneren banaketa lurralde eremuen arabera (hektareak). 1.996

	Etzeak	Larreak	Larrediak	Sastrakadia	Zuhaitz-baso trinkoa	Zuhaitz-baso barbana	Lan trinkoak	Guztira
EAE	45.259	111.078	25.378	53.971	359.547	30.458	97.790	723.481
Bizkaia	19.129	50.867	4.114	17.533	121.259	6.985	1.836	221.723
Atxondo	302	372	43	72	1.557	16	-	2.362

Iturria: Eustat eta berezko elaborazioa

Lurraren erabilpeneren banaketa (hektareak) 1996



Iturria: Eustat eta berezko elaborazioa

Nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren ustiatutako azalerari dagokionez, 1999. urtean Atxondon kokatutako 163 ustiategi zentsatuetatik %55,22 abeltzaintzarekikoak ziren eta %44,78 abeltzaintzarik gabekoak. Bestalde, Atxondon landa-erabileretara bideratutako guztizko azalera 2.010 Ha ziren, eta horietatik %36,26 abeltzaintzarekikoak eta gainerako %63,74 abeltzaintzarik gabekoak.

Ustiategi zentsatuak eta guztizko azalera. 1999

Lurraldea	Guztira		Abeltzaintzarekin		Abeltzaintzarik gabeak		Lurrik gabeko ustiategiak
	Kopurua	Ha.	Kopurua	Ha.	Kopurua	Ha.	
EAE	39.956	606.187	19.066	245.930	20.568	360.257	322
Bizkaia	20.333	171.712	9.398	78.604	10787	93.109	148
Atxondo	163	2.010	90	729	73	1.281	0

Iturria: Eustat eta berezko elaborazioa

Abeltzaintzako jarduerari dagokienez, kopuruari dagokionez garrantzitsuenak direnak ardi-aziendak dira, 980 abelburu guztira.

Ganadería: Situación de la cabaña ganadera 1999

	1999	
	Ustiategiak	Abelburuak
<i>Behi-aziendak</i>	-	331
<i>Ardi-aziendak</i>	-	980
<i>Ahuntz-aziendak</i>	-	169
<i>Txerri-aziendak</i>	-	10
<i>Zaldi-aziendak</i>	-	43
<i>Hegaztiak</i>	-	-
<i>Untxi-amak</i>	-	-

Iturria: Eustat eta berezko elaborazioa


Abeltzaintzako ustiategi gehienak nekazaritzako beste jarduerekin batera garatzen dira, edo familiako beharrezanean begirako ustiategi txikiak dira eta baserrietako ekonomien osagarriak dira.

Baso-berritzeak

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendiak Sailaren arabera, 2000-2005 epean Atxondoko udalerrian 12,00 hektareako basoak Pinu intsignis berritu dira.

Baso-azalera zehazteztatua

Udalerriko baso-azalera zehazteztatuaren banaketari dagokionez, 1999. urtean azalera osoa 1.572 Ha ziren, eta horietatik 18 Ha hostozabalak ziren; eta beste 1.328 Ha, koniferoak.

Baso-azalera zuhaitzeztatua, espezieen arabera (hektareak) 1999

Iturria: Eustat eta berezko elaborazioa

Baso-suteak

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saileko datuen arabera, 1999-2005 epean sute bat izan zen Atxondon, eta kasu horretan 3.000 Hektareako azalera bat kaltetua suertatu zen.

Udaltalde 21eko udalerrietan gertatutako baso-suteak 1999-2005 epean

Udalerria	Inzidentzien kopurua	Kaltetutako azalera (m2)
Abadiño	10	19.800
Atxondo	1	3.000
Berriz	12	64.150
Durango	4	6.000
Elorrio	12	35.300
Garai	4	10.000
Iurreta	5	800
Izurtza	1	10.000
Mañaria	2	Alarma faltsuak
Otxandio	0	-
Zaldibar	10	29.000
TOTAL	61	178.050

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saileko

Aterakuntzako jarduerak

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak emandako informazioaren arabera, gaur egun ez dago jardunean ari den aktibitaterik.

4.2. Lurralde antolaketa eta planifikazioa

4.2.1. Lurraldean Antolaketarako Artezbidetarako (LAA) eta Lurraldearen Zatikako Plana

Lurraldearen Antolaketarako Artezbidetarako

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolaketarako Artezbidetarako (LAA) dira lurraldearen legegietan aurreikusitako antolaketa planak eta lurraldearen antolaketarako tresnak osatzeko erreferentziatzeko marko nagusia.

Artezbidetarako finkatzen dute jarduerarako eremu egoki gisa lurraldearen antolaketarako eskualdeko eremua, gure kasuan Durangoko Jarduera Eremua.

Lurraldearen Antolaketarako Artezbidetarako zonalde hauen mugapena "jarduera" irizpideen arabera zehaztu behar dira, eta bera osatu behar dute udalerririk ardatzak eta bere eragin eremuan dauden udalerririk. Honako baldintzak jasotzeko behar dira Lurraldearen Jarduera Eremu ezberdinen osaketa eta egituratze egokia egiteko:

- Homogenitate geografikoa
- Bere inguru geografikoarekiko hirigune baten edo gehiagoren lidergoa
- Osagarritasuna, barne mailako harreman handiagoa dagoenean kanpo mailakoa baino.

Irizpide horiek kontuan hartuz osatu da Durangoko Jarduera Eremua, Durango da eremu ardatza eta berearekin batera dira honako udalerririk: Abadiño, Amorebieta - Etxano, Atxondo, Berriz, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.

LAA-ek proposatzen duten Lurralde Ereduak lurzorua kudeaketarako irizpideak ematen ditu bizitegitarako edo jarduera ekonomikorako lurraldearen erabilpen gaitasuna definituz eta horretarako landuko diren eremuak zehazten ditu; bereziki Amorebieta-Etxano – Durango ardatza zehaztuz. Azken urtetako joera ikusita, ardatz hau zabaldu ahalko litzateke Amorebietatik Berriz, Abadiño, Atxondo eta Elorrio arte. Hala ere, azpimarragarria da eremuak Erkidego Autonomoaren jarduera industrialen baitan hartzen duen garrantzia. Bizitegitarako lurraldearen erabilpenaren aurreikuspenei dagokionez, Durango-Abadiñoaren hazkunde garrantzitsua proposatzen da, eta bigarren etxerako erabilpena bezalako aukeririk ez zaie garrantzirik ematen.

Lurraldearen Zatikako Plana

Euskal Hiriburuen Sistema Polinuklearraren (EHSP) baitan eta Lurralde Antolamendurako Artezbidetarako (Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua, 12/2/97an EAO.-n argitaratua) zehaztutako jardute eremuen barruan Atxondo Durangoko Jarduera Eremuaren barruan kokatzen da.

Lurraldearen Zatikako Planek (LZP) LAA-ek zehazten dituzten udalerririk gaindikotako guneen garapena dute xede, berak aurreikusitako irizpideak zehaztuz.

Durangoko Jarduera Eremuko LZPren Helburuak

Durangoko Jarduera Eremuko LZPren aurrerakina 2002ko otsailean osatu da eta COTPV-ra (Euskadiko Lurraldearen Antolamendurako Komisiora) bidaltzekotan da.

Bere Memorian proposatzen diren helburu nagusiak hauek dira:

- Durangoko Jarduera Eremua indartu Euskal Herriaren eta Bizkaiaren artikulaziorako gako gisa, bere kokapen estrategikoagatik.
- Aranaren amaierako urbanizazio handiaren eta baserrian oinarritutako nekazal jardueraren arteko elkarbizitza zaintzea.
- Lurraldearen erabilpen egoki horretan oinarritutako hiri garapena bultzatzea.
- Ibaizabalgo korridorearen kompetibitate eta birkualifikatze elementuak indartzea.
- Eusko Tren Jarduera Eremuaren elementu artikulatzailea: bikoizketaren ezaugarri baikorrak.
- Bitarteko naturalean eta landa paisaiaren babes aktiboa bermatzea, paisaia kalitatearen berme den baserriaren bideragarritasuna ziurtatuz.

Urkiolako Parke Naturalaren Erabilpen eta Kudeaketarako Gida Plana (EKGP)

Ingurumenaren eta Lurraldearen Antolaketarako Sailaren ekainaren 18ko 147/2002 dekretuaren bidez Urkiolako Parke Naturaleko Baliabide Naturalen antolaketarako plana onartu zen.

Urkiolako Parke Naturalaren lurraldeak zortzi udalerrri hartzen ditu bere baitan, horien artean dago Atxondo. Beraz, Urkiolako parkearen baitan dauden lur eremuak Antolaketarako Planaren irizpideen arabera antolatuko da.

Gida Planaren helburuak honakoak dira:

- Erabilpen eta jardueren kudeaketarako arauak definitzea eta garatzea eta eremu natural babestuen helburuak beteko direla bermatzeko baliabide naturalen mantenua ziurtatuko duten ekinbideak egitea. Horren baitan ulertzen dira natura fenomenoaren interpretazioa, ingurumen heziketa, ingurune naturalaren erabilpen antolatua eta parkean edo inguruan bizi diren komunitateen garapen eta ikerketa sozioekonomikoa.
- Baliabide mota bakoitzarentzat babes araudia definitzea.
- Parke Naturalaren barruan garatzen diren izaera sozioekonomikodun jarduerak zehaztuko dituzten arau orokorrak definitzea.
- Eremuz eremu heziketarako eta aisialdirako zonalde batzuk izan dezaketen potentzialitatea eta eremuaren babesa bateragarri egingo dituen Erabilpen Publikoko Plana osatzea.
- Parkea eta bere inguruaren arteko harreman ona erraztuko duen markoa erraztuko duten neurriak bultzatzea.

4.2.2. Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana

Behin betiko onartutako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planei dagokionez, Atxondoko udalerrientzako aurreikuspen zehatzak hurrengoak dira:

- Ibaien eta Erreken hertzak antolatzeko Antolaketa Plana - . Isurialde Kantauriarra (Abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuak onartua) (EAEAO 18/2/99). Udalerriko sare hidrologiko guztiaren inguruan babes arau orokorrak aurreikusten dira.
- EAEko Errepideen Plan Orokorra, 355/1992 dekretuaren bidez onartua. Diagnostiko honen beste atal batzuetan garatzen dira aurreikuspenak.
- EAEko Trenbide Sarearen Plana (otsailaren 27ko 41/2001 dekretuak onartua) (EAEAO 9/4/01). Udalerria zeharkatzen duen Abiadura Handiko Trenari eta Eusko Treni dagozkion aurreikuspenak jasotzen ditu. Diagnostiko honen beste atal batetan garatzen da Habiadura Handiko Trenaren gaia.
- Hezeguneen Antolaketa Plana (uztailaren 27ko 160/2004 dekretuak onartua) (EAEAO 19/11/04).
- Jarduera ekonomiko eta Merkatal Ekipamenduentzako Lurzoru Plana, abenduaren 21eko 262/2005 dekretuak onartua (EAEAO 28/1/05). Atxondoko udalerria “Jarduera ekonomiko eta Merkatal Ekipamenduentzako Lurzoru Planaren” barruan “Lehentasunezko Interes” duen gune bezala sailkatuta dago. Horrela sailkaturiko udalerrientzako hirigintza antolamendu, kudeaketa eta promoziorako lehentasunezko politikaren xede den lurraldearen mugapen eskematiko bat egitea proposatzen da. Udallerri hauentzat bere arazo propioei begira edo etorkizunera begira duten gaitasunaren arabera interbentzio politika ezberdinak proposatzen dira. Atxondoko udala gehienez 30,00 Hektareako dimentsio bat har dezakeela azaltzen da.

4.3. Hirigintza-planeamenduko egitura eta ezaugarriak

Indarrean dagoen planeamendu urbanistikoa, 1998ko azaroaren 18an, Bizkaiko Foru Aldundiak behin betiko onartutako Atxondoko Planeamendurako Arau Subsidiarioen barnean daude. Arau horiek 1986ko Irailaren 4 onartutakoak ordezkatu zituzten.

Arau Subsidiarioen irizpide eta helburuak

Proposatzen den lurralde antolamendua gaur egun udalerrian dauden erabilera urbano eta ez-urbanoetatik abiatuz egiten da.

Indarrean dauden Arau Subsidiarioen arabera, 1986. urtean onartutako arauen irizpide berdinak jarraitzen dira, Apatamonasterioko herrigunea bukatuz, gune historikoak bultzatuz eta errepidean oinarritzen den garapen industrialia bultzatuz.

Aipatutako iharduera industrialak ondo dimentsionaturik daude Iharduera Ekonomikoen Planaren arabera, nahiz eta Apatamonasterioko herrigune inguruan zenbait aldaketaren beharra dagoen, Durango-Bergara Korridorearen eraikuntzaren ondorioz sortuko de zentralitatea aprobetxatuz.

Ingurune fisikoaren inguruko irizpide eta helburuak

Bere eraldaketa eta desagerpen arriskuagatik babestuak izan behar diren balio natural bereziko guneen babesa horiek babestu, mantendu eta beharrezkoa denetan berreskuratzeko beharrezkoak diren neurriekin babestu beharreko eremuen zehaztea eskatzen du.

Zentsu honetan, LAAek proposatzen duten Ingurune Fisikoaren Antolamendua aterako diren eremuak zehazteko lehenengo urratsa izango dira.

Aurreneko puntu bezala hurrengoak azpimarratzen dira:

- Anboto eta Alluitz mendien babesa, Urkiolako Parke Naturala.
- Elorrio Ibaiaren inguruaren babesa, bere ibaiertzetan hirigintza eta eraikuntza galaraziz, uholde arriskua duten eremuak errespetatuz.
- Arrazola errekaen babesa, ibilguaren aldaketa eta bere ertztan eraikitzea galaraziz.
- Berezko basoen azalera babestu, erabilera tradizionalak eta ustiaketa mantenduz, hauek kaltetzea galaraziz.

Ekipamendu sistemaren gaineko Irizpide eta Helburuak

Daude ekipamenduen ikerketaren arabera ez dago gabezi garrantzitsurik udalerrian, eta bestalde LAAek Atxondorako ez dute ekipamendu berezirik aurreikusten.

Plantamendu berriaren arabera:

- Gaur eguneko ekipamenduak eta kokalekuak mantendu.
- Udalerriko enparantza nagusia egituratuko duen espazio irekia Portu.
- Hezkuntza ekipamenduak mantendu.
- Izaera Soziokulturaleko ekipamendu bat Portu, Apatamonasterioko antzinako geltokia berriztatuz, jabego publikoa duela aprobetxatuz.
- Industria eta etxebizitza erabileren arteko hesi berde bat sortu, Urkusun dagoen eremu berdea luzatuz.
- Ibai ertzak bataz beste 25 metro dituzten parke lineal berdeekin babestu, lurzoru urbano zein urbanizagarrietan.
- C632 errepidean gutxienez 12 metroko zabalerako babes berdeko eremuak barneratu, hiri trataera egokiago bat izan eta bidegurutzetan bide sareari irtenbide egokiak aurkitzeko.

Erabileren gaineko Irizpide eta Helburuak

Gaur egungo erabileren lurraldean duten okupazio eredia antolamendu berrian mantendu egiten da, hazkunderik gabe, aurreikusten den eskaera txikiaren eraginez.

Kudeaketaren Irizpide eta Helburuak

Udalerrian aurreikusten den dinamika eskasagatik tamaina txikiko exekuzio unitateen bitartez aurrera eramatea proposatzen da.

Izaera Sektoriala eta Herrizgaindikoa duten erabakiak soilik izango dira bere edukiagatik antolamendutik kanpoko egoera bezala gertuko direnak.

Lurzoruaren sailkapena

Hurrengo bereizketak egiten dira:

- Hiri Lurzorua
- Hiritartzeko Lurzorua
- Lurzoru Hiritarrezina

Hiri Lurzorua

Hurrengo ezaugarrien araberako banaketa bat egiten da:

- Indarrean dauden Arau Subsidiarioek ezartzen dituzten ezaugarri eta mugak mantentzen dituzten finkaturiko eremu homogeneousak.
- Zatikako Planen ondorioz aurreko Arauetan mugatuta dauden sektoreetan antolatutako dauden eremuak.
- Hiri lurzoru barneko eraikuntza askeko guneak, gaur egun finkaturik dauden eremuak osatuko dituzten garapen berriak jasoko dituztenak. Espazio hauen kudeaketa Exekuzio Unitateen bitartez eramango da aurrera.
- Sistema Orokorrei zuzenduriko eremuak, lurraldearen egitura organiko eta orokorreko elementuek osatutako eremuak direnak.

Hiri Lurzoruaren Etxebizitza eskaintza. Laburpen kuadroa.

Esparrua	Etxebizitza kop.	Hiritartzeko Azalera	Erabilera nagusia
1	--	9.535	Industria Orokorra
2	--	--	Industria Orokorra
3	--	7.350	Industria Orokorra
4	--	--	Multzokatutako Etxeb. Kolektiboa
5	50	--	Multzokatutako Etxeb. Kolektiboa
6	32	--	Familiabakarreko Etxeb. Lerrokatua
7	36	--	Elkartutako Familiabakarreko Etxeb.
8	--	--	Isolaturiko Bi familiako Etxeb.
9	--	--	Isolaturiko Bi familiako Etxeb.
10	50	--	Multzokatutako Etxeb. Kolektiboa
11	8	--	Multzokatutako Etxeb. Kolektiboa
12	16	--	Multzokatutako Etxeb. Kolektiboa
13	2	--	Isolatutako Familiabakarreko Etxeb.
14	6	--	Familiabakarreko Etxeb. Lerrokatua
15	--	--	Multzokatutako Etxeb. Kolektiboa
16	20	--	Multzokatutako Etxeb. Kolektiboa
17	--	--	Multzokatutako Etxeb. Kolektiboa
18	6	--	Familiabakarreko Etxeb. Lerrokatua
19	--	--	Multzokatutako Etxeb. Kolektiboa
20	--	16.700	Industria Orokorra
	226	33.585	

Hiri Lurzoruan eman den Etxebizitza hazkundea 226 unitatekoa da, eta unitate eta industrian eraiki daitekeen azalera osoa 33.585 m²-koa da.

Hiritartzeko Lurzorua

Lurzoru mota hau Arau Subsidiarioek hiritarpen prozesuak bertan aurrera eramatea egokia iristen dioten eremuak osatzen dute.

Bere dimentsioa biztanleriaren eta iharduera ekonomikoen dinamikek markatzen dute.

Banaketa eremu bat mugatzen da:

1. Banaketa eremua.

Hurrengo koadroak banaketa eremu bakoitzeko aprobetxamendu mota azaltzen du.

Banaketa eremua	Sektoreak	Azal. Osoa m ² .(ST)	Erabilera - Mota	Eraikitze Azalera m ² .(SEi)	Neurketa erlatibo koefizientea (CPI)	Irabazien Aprobetxamendua Guztira m ² H. (ALT)	Arobetxamendua m ² H/ m ² (AT)
-----------------	-----------	---------------------------------	------------------	---	--------------------------------------	---	--

1	Markoida	33.030	Industria	16.515	1.000	16.515	0,50
1	E. Markoida	35.230	Orokorra Industria	17.615	1.000	17.615	0,50
	M.		Orokorra				
		68.260	34.130	34.130	0,50		

Lurzoru Hiritarrezina

Aurreko bi eremuetan sarturik ez dauden lurzoruak sartzen dira sailkapen honetan, bere nekazaritzarako, basogintzarako edo abeltzaintzarako baloreengatik babestu behar izanagatik edo baliabide natural, paisai balore, balio historiko edo kulturalengatik, faunaren edo floraren babesarengatik edo oreka ekologikoagatik babestu behar diren guneak direlako.

Hurrengo eremuetan banatzen da:

- Urkiolako Parke Naturalaren eremua – Babes Aktiboa
- Berreskurapen eta Hobekuntza eremua
- Gainazaleko uren Babes eremua
- Basogintza Erabilerako eremua
- Nekazal Erabilerako eremua
- Abeltzaintza Erabilerako eremua
- Populatutako Guneen eremua

Izaera orokorreko Espazio Irekiak. Justifikazioa

Izaera orokorreko espazio irekiak zenbatzeko orduan hurrengo espazioak hartzen dira kontutan:

EL-1 Foruen Plaza.....	2.705 m ²
EL-6 Vega Arrazola Parkea.....	9.927 m ²

	12.632 m ²

Dagoen Etxebizitza kop.....	503 ud.
Eskainitako Etxebizitza kop.....	238 ud.
Biztanle/Etxebizitza.....	3,2
Plan bukaerako Ha kopuru teorikoa.....	2.371 ud.

Datu hauekin eskainitako espazio irekien sistema orokorra %,32 m²/biztanleko modulu bat ematen du.

ONDORIOAK

Orokorrean, azken urteetan indarrean dauden Arau Subsidiarioak era nabarmenean Garate dira, etxebizitza aurreikuspenen %30 baino gehiago aurrera eramanez, baina ez da horrela gertatu industria aurreikuspenetan. Hauetan bakarrik Markoida Ekialdeko sektorean hiritartu daiteken lurzoruaren gainean ekin da, gune honen zatikako plana onartua izan baita.

Landa guneei dagokionean ere aktibitateak garrantzi nahiko izan du, Arau Subsidiarioen arabera egin zitezkeen 34 etxebizitzetatik 8 eraman baitira aurrera, hau da, garapen posiblearen %24. Hala ere bere banaketa oso irregularra da, lizentzien gehiengoa Axpe gunean biltzen direlarik. Datu hauek Atxondoko etxebizitzaren mugimendua konfirmatzen dute, Arau Subsidiarioak indarrean jarri zirenetik egindako aurreikuspenen ehuneko garrantzitsu bat garatu delarik, Atxondo biztanleriarentzako lehenengo etxebizitza bezala duen erakargarritasunaren adierazle.

Hirigintzaren ikuspegitik nahiko mugatzen dira Apatamonasterio bezalako guneen etorkizuneko hazkundeak, bideen egitura oinarritzat hartuta garatu direnak. Apatamonasterioko kasuan, BI-4332 errepideari jarraiki egituratzen da, iparraldean BI-632 errepidea eta dagoen industrigunean muga duelarik. Ekialde eta Mendebaldetik orografiak berak mugatzen ditu hirigintza hazkunderen aukerak, eta horrek eragiten du berezko hirigintza hazkundera hegoalderantz izatea, lurrek baldintza hobekak dituzten eremuetan.

Hala ere puntu honetan Abiadura Handiko Trenaren proiektua igarotzen da, Sistema Orokor bat izateak dituen eraginekin, eta horrek hegoalderako hazkundera ere mugatzen du, hesi efektu bat eragiten duelako.

4.4. Historia-, arkitektura- eta arlekologia-ondarea

Babesteko eraikin eta guneen zerrenda:

GUNEAK:

- a) Axpeko Donibane gunea, San Juan Eliza, Elizalde Etxea, Udal Eskolak eta San Miguel Umiltegiak osatua.
- b) San Martin gunea, Marzanan kokatua, San Martin Eliza, Etxezarra Etxea eta Gamboa Etxeak osatua.
- c) Ziarreta-Barrena Baserria
- d) Zubieta Baserria
- e) Ziarreta baserria
- f) Santiago Hilobia
- g) San Pedro Eliza
- h) San Juan Eliza
- i) Elizalde Baserria
- j) Axpeko Udal Eskolak
- k) San Miguel Umiltegia
- l) Santa Lucia Baseliza
- m) Dorronsoroko Lastategia
- n) Dorronsoroko Baserria
- o) San Pedro Hilobia
- p) Santiago Baseliza
- q) San Martín Eliza
- r) Etxezarra Etxea
- s) Gamboa Etxea
- t) Jauregi Etxea
- u) Urrutia Etxea
- v) San Migel Eliza
- w) Ollargane Baserria
- x) San Roque Baseliza

Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen 49 artikuluan azaltzen denaren arabera Usteko Arkeologi-guneak arautzen dira. Gune horietan obrak egin nahi izan ezker obra horien jabea edo promotoreak orube edo eraikinaren arkeologi balioaren inguruko ikerketa bat egin behar du, eta balio horrek obraren proiektuan izan dezakeen eragina adierazi, Urriak 8ko 234/1986 Dekretuaren 7. artikuluan eta ondorengoetan azaltzen den bezala.

Usteko Arkeologi-guneak hurrengoak dira:

Fitxa	Izendapena
1.	Ziarreta Baserría (A)
2.	San Pedro Eliza eta Hilobia (B)
4.	Marzanako San Martín Eliza (A)
5.	Marzana Dorrea (A)
6.	Santa Lucía Tenplua eta Hilobia (B)
8.	Olazarra Burdinola (aferiko egiturarik qabea) (E)
9.	Santiagoo Baseliza (B)
10.	Urrutia Baserría (A)
11.	San Miquel Arcángel Eliza(A)
12.	Ollaerqane Baserría (A)
13.	San Roque baselizatik hurbil daqoen Burdinola
	(aferiko egiturarik qabea) (E)
14.	Olabarria Dorretxe/Burdinola (A/D)
15.	Arrazola Dorretxea (qaur equn Baserría) (A)

4.5. Mugikortasuna eta garraioa

4.5.1. Azpiegiturak: ezaugarriak eta proiektuak

Udalerrria zeharkatzen duten azpiegiturak

Durangoko eskualdea lau komunikazio ardatz nagusik osatzen dute. Haietako bi Euskal Errepide Oinarrizko Sarearen parte dira: Vitoria-Gasteiz Durangorekin Urkiolako mendatearen bitartez lotzen duen BI-623 errepidea eta Elorriorekin lotzen duen BI-636 errepidea, biak iparralde-hegoalde norabidearekin. Hirugarren ardatza A-8 autopista da, Ekialde-Mendebalde norabidea duena, eta honi paraleloa eta Donostiarako norabidean N-634 errepidea. Aipatutakoez gain eskualde eta udalerrri mailako hainbat errepide dago. Udalerrriko sarearen barruan BI-3313 eta BI-4332 errepideak Apatamonasterio Axpe eta Arrazolarekin batzen dute hurrenez hurren.

Trafikoaren intentsitatea

Durangoko eskualdea eta Atxondo zeharkatzen duten errepide nagusien intentsitateari buruzko datuak Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Herrilan Saileko edukiera estazioek eskaintakoak dira.

A-8 Autopistak erregistratutako Eguneko Batez besteko Intentsitateek (EBI) ondorengo eboluzioa izan dute :

A A-8 autopistako Eguneroko Batez besteko intentsitatea. 2004.

Korridorea	Errepide tartea	Km.	Eguneroko Batez besteko Intentsitatea (EBI)							Urteko tasa pilatua (1999-2004)
			1999	2000	2001	2002	2003	2004		
			EBI	EBI	EBI	EBI	EBI	EBI	% Astunak	
Autopista A-8	E. Basauri – E. El Gallo	5,2	29.505	31.226	33.418	34.508	36.725	33.308	12,2	2,5
	E. El Gallo – E. Erletxe	2,5	25.506	27.077	28.730	29.726	31.615	28.701	11,8	2,4
	E. Erletxe – Amorebieta O.	3,1	28.684	30.540	32.312	33.453	36.192	38.821	11,9	6,2
	Amorebieta O. – Amorebieta E.	3,7	22.893	24.269	25.557	26.412	28.292	30.476	11,9	5,9
	Amorebieta E. – E. Durango	8,2	23.815	25.291	26.653	27.545	29.597	31.936	11,9	6,0
	E. Durango – E. Ermua	13,4	17.603	18.559	19.385	20.027	20.945	23.124	15,1	5,6
	Guztira	36,1	22.769	24.117	25.447	26.300	27.985	29.080	12,9	5,0

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Herrilan Saila, 2004.

Informazio horren arabera Eguneko Batez besteko Intentsitate ia %21,70 hazi da 1999-2004 urte tartean. Azken urtean Amorebieta E. – E. Durango tartean neurturiko trafikoa 31.936 ibilgailukoa izan zen, eta horietatik %11,9 ibilgailu astunak izan ziren. E. Durango – E. Ermua zatiari dagokionean berriz Eguneko Batez besteko Intentsitatea eguneko 23.124 ibilgailukoa izan da, astunen ehunekoak 15,1 izanik.

A-8 autopistaren beste estazio batzuekin alderatzean ikus daiteke EBlaren bilakaera eta trafikoa datuak datu baxuenak islatzen dituztela geroz eta probintzia arteko mugatik gertuago egon.

BI-363 errepidean izandako ibilgailuen igarotzeari dagokionez, udalerrria igarotzean duenean bi neurketa estazio daude, bata Durangotik Axpeko desbideratzera heldu baino lehen (175A) eta bestea Elorrioko saihesbidera heldu baino lehenago (176A). 2004 urtean ibilgailuen Eguneko Batezbesteko Intentsitatea lehenengo estazioan 13.665 ibilgailukoa izan zen, zeinetatik 11% astunak ziren. Bigarren neurketa estazioan datuak altuagoak dira, EBI 15.018 ibilgailukoa izanik, hauetatik %12,5 ibilgailu astunak. Lortutako batezbesteko Indizeak errepide osoaren batezbestekoaren gainera ibili ziren neurketa puntuetan. Horrez gain 175A estazioan 1999-2004 urte tartean %7,5 hazkundera eman zen, eta 176A estazioan 517-ko hazkundera. Honen arabera trafikoa handiagoa da Elorrio aldera, eta beraz segur aski Gasteiz eta Debagoiena haran aldera.

BI-636 errepidean Eguneroko Batez besteko intentsitatea. 2004

Korridorea	Errepide tartea	Km.	Eguneroko Batez besteko Intentsitatea (EBI)							Urteko tasa pilatua (1999-2004)
			1999 EBI	2000 EBI	2001 EBI	2002 EBI	2003 EBI	2004		
								EBI	% Astunak	
BI-636	Durango – Abadiño	3,0	9.440	9.949	10.206	11.973	12.319	11.382	10,0	3,8
	Abadiño – Apatamonasterio	3,0	12.713	13.010	13.261	13.696	14.322	13.665	11,0	1,5
	Apatamonasterio – Vte. Elorrio O.	0,3	12.795	13.094	13.459	13.791	15.860	15.018	12,5	3,3
	Vte. Elorrio O. – E. Elorrio	2,0	5.352	5.477	5.630	5.769	5.722	5.518	17,0	0,6
	E. Elorrio – Vte. Elorrio S.	2,0	4.698	4.870	4.943	5.032	4.995	4.455	17,0	-1,1
	Vte. Elorrio S. – L.P. (Pto. Kanpazar)	5,6	5.923	6.266	6.232	6.344	6.464	5.880	16,0	-0,1
	Guztira	15,9	7.771	8.087	8.207	8.696	8.951	8.335	12,9	1,4

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Herrilan Saila, 2004.

Udalerritik igarotzen diren beste bi errepideak BI-3313 eta BI-4332 errepideak dira, biak udalerriko izaerakoak. Udalerrian dauden neurketa estazioak behin Apatamonasterio igarota eta Axperako desbideraketaren aurretik (175B) eta Martzanatik Axpera doan errepidean (175C) kokatzen dira. Bizkaiko errepideen trafikoaren bilakaera azaltzen duten datuen artean ez dago estazio hauetan 2004koa ez den daturik, eta horren eraginez ezin dezakegu eman den joeraz hitz egin, nahiz eta gainontzeko eremuek izan duten bilakaera ber aizan dutela atzeman daitekeen.

BI-3313 eta BI 4332 errepidean Eguneroko Batez besteko intentsitatea. 2004.

Ikurra	Izena	Errepide tartea	Km.	Eguneroko Batez besteko Intentsitatea (EBI)	
				2004	
				EBI	% Astunak
BI-3313	Donibanetik Santiagora (Axpetik)	Donibane – BI-4332	2,8	1.540	9,0
BI-4332	Atxondotik Arrazolara	Apatamonasterio (BI-632) - Arrazola	5,2	654	5,0

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Herrilan Saila, 2004.

4.5.2. Herri barneko eta herri arteko mugikortasuna**Parke mugikorra**

Atxondon aipatzekoa da dagoen automobil-parkea handia. 2003an zegoen ibilgailu-kopurua 925 zen; hots, herriko biztanleria (1.427 biztanle) kontuan hartuz gero, herriko motorizazio-indizea altua zen: 648,21 ibilgailu 1.000 biztanleko.

Autoak	Motorrak	Kamioiak	Bestelakoak	Traktore ind.	Besteak	Guztira
646	20	190	-	6	28	925

Iturria: Eustat eta berezko elaborazioa

Motorerik gabeko mugikortasuna (oinez edo bizikletaz)

Gaur egun Atxondo udalerrian ez dago bidegorririk lurraldeko area desberdinak beraien artean komunikatu edo eskualdeko beste udalerriekin edo eremuekin lotzeko. Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiak landutako “2003-2016 Bidegorrien Plan Zuzentzailearen” helburu eta jarduera nagusien artean “Bilbao-Lemoa-Amorebieta-Durango-Elorrio” izeneko 1. ardatza eraikitzea aurreikusita dago, Bizkaiko Lurralde Historikoa egituratzen duten 9 ardatzen artean.

2003-2016 Bidegorrien Plan Zuzentzailea

Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraio eta Herrilan sailak landutako “Bizikletaren erabilera sustatzeko 2000-2003 ekintza planaren” helburu eta ekimenen artean garrantzitsuenetariko bat “2003-2016 Bidegorrien Plan Zuzentzailea” aurrera eramatea izan da.

Aipatutako Plana hasiera batean diseinatutako sare eran antolatutako 9 bizikleta ardatzetan kokatzen diren 22 Udal Bizikleta Saretan osatzen da, LAPetan “Aukerako Bideen Azpiegitura Sarean” jasota datozenak.

Bizkaiko Lurraldearen Aukerako Bideen Azpiegitura Sarea, gaur egun Bizkaiko Foru Aldundiaren Errepideen Arloko Lurralde Planean barneratua dago, eta helburua garraio publikoa eta eraikitako edo proiektaturiko bidegorriekin konbinaturiko bide sare bat ezartzea da, populaturiko guneak, lantegiak, aisialdi eremuak,... lotzeko. Era honetan lurralde guztia inguruarekin errespetu handiagoa duen era batean mugitzea posible egingo lukeen azpiegitura bat izateko.

4.4.3. Irisgarritasuna

Udalak ez du Irigarritasun Planik.

5. INGURUMEN SEKTOREAK

5.1. Uraren ziklo integrala

5.1.1. Uraren hornidura, kalitatea eta kontsumoa

Atxondoko Udala Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoan sarrera eskatu du. Gaur egun sarearen kudeaketa udalarena da.

Ur kontsumoak

Atxondoko Udalak emandako datuen arabera 2003-2005 urte tartean fakturatutako metro kubiko eta benetako irakurpenen arabera ur kontsumoak hurrengoak izan ziren:

2003 URTEKO UR KONTSUMOAK (METRO KUBIKOAK)		
MOTA	KONTSUMOAK	FAKTURATUAK
ETXEKOAK	72.842	84.681
MERKATARITZA	10.466	11.968
INDUSTRIA	64.723	67.393
GUZTIRA	148.031	164.069

2004 URTEKO UR KONTSUMOAK (METRO KUBIKOAK)		
MOTA	KONTSUMOAK	FAKTURATUAK
ETXEKOAK	72.601	84.004
MERKATARITZA	10.298	11.763
INDUSTRIA	39.249	41.872
GUZTIRA	122.148	137.639

2005 URTEKO UR KONTSUMOAK (METRO KUBIKOAK)		
MOTA	KONTSUMOAK	FAKTURATUAK
ETXEKOAK	71.817	83.833
MERKATARITZA	10.977	12.315
INDUSTRIA	53.382	55.865
GUZTIRA	136.176	152.013

Datu hauek argitzera ematen dute urtez urte sektore guztien ur kontsumoa handitu egin dela, aztertutako hiru urteetan industria ur gehien kontsumitu duen sektorea izanik.

2005. urtean Atxondoko udalerrian etxebizitzarako ur kontsumoa 71.817 m³/eguneko izan zen, hau da, 137,40 l/bizt./eguneko, Durangaldeko Udaltalde 21 osatzen duten udalerrien batezbestekoa baino apur bat altuagoa.

Etxeko ur-bolumen kontsumitua urtean

Udalerriak	m³	Litroak eguneko eta biztanleko
Elorrio	358.369	136,9
Iurreta	162.863	107,6
Izurtza	14.879	155,0
Mañaria	17.790	107,6
Durango	1.225.500	130,5
Zaldibar	114.274	108,9

Uraren tasak eta batez besteko kostua

Ur kontsumoaren tarifak 2005ean honakoak dira:

Etxeko erabiltzaileentzat hornikuntzak, barneko zentralizatutako ur bero instalakuntzak barne.

	Ura	Saneamendua
90 eguneko kuota finkoa	4,1924 €	3,9603 €
100 m³/ hiruileko arteko kontsumoentzat	m3 0,3594 €	m3 0,3396 €
100 m³/ hiruileko baino kontsumo handiagoentzat	m3 0,7876 €	m3 0,7440 €

Iturria: Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoa.

Onqintzako eraikinrentzako hornikuntza, kontsumoa edozein izanik

Ura	Saneamendua
m3 0,3163 €	m3 0,2988 €

Iturria: Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoa.

Udalaren kirol ekipamenduentzako hornikuntza, kontsumoa edozein izanik.

Ura	Saneamendua
m3 0,3163 €	m3 0,2988 €

Iturria: Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoa.

Ura lehengai edo ekoiztutakoaren parte duten industriak, edo komertzializazio edo lanen hornikuntzarako prozesuetan erabiltzen dutenak.

	Ura	Saneamendua
90 eguneko kuota finkoa, 40 m³-ko gutxieneko kontsumoarekin, kontsumoa edozein izanik.	25,2225 €	23,8258 €
Gehienezko m³ bakoitza	m3 0,7876 €	m3 0,7440 €

Iturria: Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoa.

Gainontzeko industriak, merkataritza instalakuntzak eta zerbitzuetakoak, zentro ofizialak, erakunde autonomoak, suteen aurkako sareak eta aurrekotan ez dauden gainontzekoak

	Ura	Saneamendua
90 eguneko kuota finkoa, 25 m³-ko gutxieneko kontsumoarekin, kontsumoa edozein izanik.	15,4804 €	14,6232 €
Gehienezko m³ bakoitza	m3 0,7876 €	m3 0,7440 €

Iturria: Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoa.

5.1.2. Uraren saneamendua eta arazketa

Atxondoko hondakin-urak arazteko tratamendua Arriandiko Araztegian egiten da, Durangaldeako gainontzeko herrietakoekin (Iurreta, Izurtza, Durango, Zaldibar, Abadiño, Mañaria eta Berriz) eta sistemara lotutako industriekin batera.

Etxeko hondakin-urak

Ur zikinak arazteko sareak Atxondoko biztanleriaren %70ri (1.427tik) eskaintzen dio zerbitzua. 2004an Arriandiko Arazketak 6.076.324 m³ tratatu zituen eta horietako 151.980m³ Atxondokoak ziren.

Etxeko emarien banaketa. 2004.

Udalerrriak	Etxeko emariak (m ³ / urteko)
Abadiño	989.013
Atxondo	151.980
Berriz	642.911
Durango	3.432.413
Iurreta	390.068
Izurtza	35.295
Mañaria	67.395
Zaldibar	367.248
Total	6.076.324

Iturria: Bilbo Bizkaiko Ur Partzuergoa.

Arriandiko ur zikinen araztegiko tratamendu-linea

Tratamendu-linea ondorengoa da:

Ur-linea	Lokatz-linea
Ponpaketa	Lodiketa
Arbastua	Digestio anaerobikoa
Desondarketa	Deshidratzio mekanikoa
Lehen dekantazioa	
Tratamendu biologikoa	
Bigarren dekantazioa	
Tratamendu fisiko-kimikoa	

5.2. Kalitate atmosferikoa eta akustikoa

5.2.1. Igorpen atmosferikoak eta airearen kalitatea


Atxondon ez dago EAeko Airearen Kalitatearen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Sareko estaziorik, baina bai Durangon. Estazio horrek 15 parametro ezberdin neurtzen ditu: SO₂, NO_x, CO, PM₁₀ eta O₃, kasu.

Airearen kalitate indizea ona, onargarria, txarra eta oso txarra bezala kalifikatzen da. Esan behar da, 2004an bi egunetan airearen kalitatea oso txarra izan zela, 2003an 4 izan ziren mota horretako egunak eta 2001ean bakarria.

Hurrengo taulan Durangaldeako Airearen Kalitatearen Indizea ikus daiteke.

INDICE DE CALIDAD DEL AIRE EN DURANGUESADO

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak eskainitako datuetan oinarritua.



Aztertutako datuen arabera, esan daiteke airearen kalitatea ez dela txarra, baina hobetu daitekeela.

Modu orokorrean, Euskal Herriko zonalde industrialetan komunak diren joera edo fenomeno batzuk azpimarratu daitezke:

- Jatorri industrialeko kutsaduraren gutxitze jarraitua, bereziki balio onargarrietan diren eta legezko mugatik oso behera dauden SO₂ eta NO_x-en kasuan, kasu zehatzetan izan ezik. Gutxitze honen arrazoi nagusiak teknologia oso zaharra zuten enpresen itxiera, sufre gutxi duten erregaien erabilera, erregai alternatibo gisa gas naturala ezartzeko politikaren sorrera eta minimizazio politikak dira.
- PST-ek eta nitrogeno oxidoei (NO_x) garapen txikiagoa dute, txikitze bat dagoen arren denboran gutxiago nabari dena. Euren balio handienak trafiko intentsitate handia edo merkantzia trafiko intentsitate handia duten hirigune zonaldeetan jasotzen dira.
- Gurpildun trafikoak eragindako atmosferaren kutsaduraren hazkuntza jarraitua, bereziki tamaina handiko hiriguneetan, eta CO eta O₃ mailetan arazoak sortzen dituen dentsitatea.

Badira aldikako izaera duen kutsatzaile biotiko batek eragindako arazo eratorriak ere: polenak eragindakoak. Garai zehatzetan (bereziki, martxoa eta ekaina artean) atmosferan euren ugalketa funtzioa betetzeko aurkitzen diren landare organo biziak dira, eta arnasketa arazoak eta prozesu alergiko eta asmatikoen bizitzea eragin dezakete. Gaur egun, ez dago inolako

laginketarik atmosferan duen presentziaren eta giza osasunean duen efektuaren inguruan.

Beste ezaugarri garrantzitsua “energiaren formek” eragiten duten airearen kutsadura da, hotsaz eta bibrazioez gain (beste atal baten lantzen dira) irradiazio ionizanteak eta uhin elektromagnetikoak ere bere baitan hartzen ditu.

Uhin elektromagnetikoen arazoa konplexuagoa da osasunarekiko eta ingurumenarekiko duen eraginaren inguruan dagoen eztabaida zientifikoarengatik eta ez dagoelako behar bezalako lege arautzailerik. Tentsio altuko sare elektrikoek eta antenen izateari lotuta dago (hazten ari den arazoa, telefonia mugikorren hazkundearen ondorioz).

Atxondoko kasuan ez da neurketarik egin.

Azkenik, argiaren kutsadura dago, argiak zeruan egiten duen distira, argi artifizialak atmosferako gasetan eta partikularretan eragiten duena. Distira honek, kanpo argiztapeneko instalakuntzetako argiak sortzen duena, zeruaren berezko distira handiagotzen du. Ez dago Durangoko neurketarik, baina eremu batzuetan gehiegizko kutsadura nabari da.

5.2.2. Zarata eta kalitate akustikoa

Zarata gizakiaren osasunerako kaltegarria den zarata da (gorreria, zefalea, irritabilitatea, loaren galaraztea... sortu ditzake) eta akustikaren kutsadura eragiten du.

Biztanleria batek pairatzen duen hots maila zarata sortzen duten agente ezberdinen konbinaziotik ondorioztatzen da. Zarataren sortzaile ohikoenak honakoak dira: industriak, herri lanak, merkataritza establezimenduak eta ibilgailuen joan etorria, azken hau da denbora eta espazio intzidentzia orokortuena duena. Esan daiteke mugikortasunaren eta zarataren arteko harreman handia dagoela, zarataren azterketa batek mugikortasunarekin lotutako kontuen berri ere ematen du.

Puntu bati eragiten dion soinu maia dBtan (dezibeleetan) jasotzen da, baina dBA-k ere erabiliko dira, gizakiak entzuten duenarekiko gertuago baitaude. Leq-a (ordu betean izandako soinu maila jarraitua) da erabilitako magnitude akustikoa.

Zarataren intentsitatearen arabera dezibel terminoekin gidatzeko, hurrengo taulak zarata (dBtan) eta ahozko komunikazioa harremantzen ditu:

Entzute-atalasak

0-20	Entzumen ataria
20-50	Komunikazio erraza
50-80	Komunikazio balekoa
80-110	Arrisku muga 8 orduko lan egunean
110-140	Komunikazio ia ezinezkoa
>140	Mina

Atxondok ez du udalerriko akustikaren kalitatea ezagutzeko aukera emango lukeen zaraten maparik edo azterketa zehatzik.

Gaur egun ez dago udalerriko zaraten gaineko ordenantzarik.

5.3. Energia

Energia industrializatutako edozein herrialdetako ekonomiaren oinarrizko sektorea da eta garapen ekonomikoaren eremu guztiekin harremanetan dago: etxebizitza, industria eta zerbitzuak, trafikoa eta garraioa... Gainera, eragin zuzena du gizakiaren ekinbidearen ingurumen aspektu guztiekin.

Energiaren kontua udalerriko politikaren mugetatik haratago doan arren, eremu horretatik ere ezarri daitezke energiaren kudeaketa orekatua eta jasangarriagoa eragingo duten politiken garapenean lagunduko dute programak. Bi jardute ardatzetan:

- Zuzena, Udala bera energia kontsumitzaile gisa ikusita, udalaren zerbitzu eta instalakuntzetan energiaren aurrezteak bultzatuz, erregai garbiagoak erabiliz eta iturri berriztagarriengandik datozen energiak erabiliz.
- Zeharkakoa, hiritarren sentsibilizazio eta kontzientziazio lana eginez eta kontsumo energetikoaren beharrak kontuan izango dituen hirigintza garapenerako neurriak hartuz (etxebizitzaren garapenean eta garapen ekonomikoan, hiriko mugikortasunean...)

Udalerrri baten kontsumo energetikoa ikuspegi ezberdinetatik aztertu daitezke:

- Kontsumitzen den energia mota, bere jatorriaren edo kontsumo moduaren arabera.
- Udalerrrian gauzatzen diren eta energia kontsumitzaileak diren aktibitate sozial eta ekonomikoak.

Lehenengoaren zentzuan, kontsumo energetiko nagusiak lehengaien konbustio zuzenaren bidez (petrolio edo bere eratorriak, gas naturala eta erregai solidoak) edo lehengai horiek berak edo beste prozesu batzuk (nuklearra, ura, haizea, eguzkitikoa...) erabiltzen dituzten ekoizpen zentraletako elektrizitate kontsumoaren bitartez egiten dira. Energiaren sorrerako prozesu hauetako edozeinek ingurumen inpaktu handia du, inpaktu hori ekoizpen edo kontsumo eremuan sor daitezke.

Udalerriko energia kontsumitzaile diren jarduerak, modu honetan banatu daitezke:

- Etxebizitzakoak
- Industrialak
- Zerbitzuak
- Besteak

Energia-kontsumoak

IBERDROLAk eskaintako datuen arabera, Atxondoko kontsumo elektrikoak, sektore ezberdinen arabera eta 2000-2004 epealdian honako hauek dira:

Iberdrolako fakturazioaren eboluzioa Atxondon 2000-2004 epean (KWh)

Banaturako energia	2000	2001	2002	2003	2004
Etxebizitza	1.729.945	1.548.961	1.630.352	1.678.785	1.798.944
Industria	60.912.541	77.072.033	79.813.902	82.200.623	82.810.069
Zerbitzuak	1.305.130	1.234.640	1.381.842	1.434.867	1.424.377
Ez sailkatua	422.504	180.311	52.705	54.315	43.168
GUZTIRA	64.370.119	80.035.944	82.878.800	85.368.590	86.076.558

Iturria: IBERDROLAren datuetan oinarritua

Iberdrolako fakturazioaren eboluzioa Atxondon 2000-2004 epean (%)

Banaturako energia	2000	2001	2002	2003	2004
Etxebizitza	2,68	1,93	1,96	1,96	2,08
Industria	94,62	96,29	96,30	96,28	96,20
Zerbitzuak	2,02	1,54	1,66	1,68	1,65
Ez sailkatua	0,65	0,22	0,06	0,06	0,05
GUZTIRA	64.370.119	80.035.944	82.878.800	85.368.590	86.076.558

Iturria: IBERDROLAren datuetan oinarritua

Energia elektrikoa kontsumitzen duen sektore nagusia industriakoa da, eta urtez urte handitzen da. 2004an kontsumo osoko %96,20 izan zen; jarraian eta askoz atzerago Etxebizitza dagoelarik (%2,08).

Iberdrolak emandako datuen arabera, Atxondoko etxeko kontsumo elektrikoak biztanleko eta urteko ondorengoak dira:

Urteak	Kontsumoak urteko eta biztanleko
2000	121.295 kWh. urteko eta biztanleko
2001	108.546 kWh. urteko eta biztanleko
2002	114.250 kWh. urteko eta biztanleko
2003	117.644 kWh. urteko eta biztanleko
2004	126.064 kWh. urteko eta biztanleko

Iturria: IBERDROLAren datuetan oinarritua

Datu hauek etxeko kontsumo elektrikoaren hazkunde jarraitua azpimarratzen dute, moderatua izan arren.

Energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa

Gaur egun, Atxondoko udalerrian biomasatik energia berriztagarriak sortzen duten 3 enpresa daude, nahiz eta Energiaren Euskal Erakundearen (EVE-EEE) informean ez den zein enpresa mota diren adierazten.

Eraikinetako eraginkortasun enegetikorako ziurtagiria

Atxondon CADEM-ek (Energiaren Euskal Erakundea) ematen duen Energia Eraginkortasun Ziurtagiria duten 16 etxebizitza daude, eta aldi baterako Energia Eraginkortasun Ziurtagiria duten beste 16 etxebizitza.

5.4. Lurzorua

5.4.1. Potentzialki kutsatutako lurren inbentarioa

Batzuetan, gizakiaren jarduerak lurzoruaren konposaketa eraldatzen du, kutsatzaileak txertatuz eta denbora askoan eusten dutenak direlako edo kontzentrazio altua ematen delako deskonposatzen ez direnak. Kutsatzaile hauen pilaketak, izaera kimikodunak normalean, lurzoruaren funtzioan eragin dezake, lurzoru kutsatua deitzen dena sorraraziz.

Lurrari eragiten dioten kutsatzaile nagusienak metal pisutsuak, atmosferak baztertutako elementu azidoak, fitosanitarioak eta ongarriak. Industrietatik, nekazaritzatik eta trafikotik iritsi ohi dira lurrera.

Azken urteetan EAEko Udalek daramaten hirigintza berrikuntzaren prozesuak agerian utzi du lur kutsatu asko dagoela. Horregatik, eta ondo landu ostean, Euskadiko Ingurumenaren Babeserako Lege Orokorrak 1998an lehen aldiz lurra airearen eta uraren pare jarri zuen babesari dagokionez.

Arazoak identifikatzea ezinbestekoa da inolako hirigintza garapen eman aurretik, ez soilik giza osasuna eta ingurumena babesteko, baita eskura dauden baliabide ekonomikoak optimizatzeke ere.

Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen sailarentzat IHOBek egindako "EAEko Potentzialki Lurraren Kutsatzaile diren Jarduerak dituzten Eremuen Inbentarioan" erakusten da informazio historikoaren pilaketa egin ostean posible dela denbora luzez lurzoru zehatz batek izan duen jarduerak baldintzatzea potentzialki lur horri zegokion jardueraren jarraipena.

Definizio hori abiapuntu harturik, potentzialki lurraren kutsatzaile izan daitezkeen jarduerak (industrialak edo isurketak) jaso dituzten lurak biltzen dira. Darabilzaten material eta substantzien eraginez giza osasunarentzat, ingurumenarentzat, azpiegiturenentzat edo lurzoruaren produktibitatearentzat kaltegarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituztenak.

Laginak hartzeak eta aztertzeak, soilik, berretsi dezake kutsadura dagoen ala ez.

Inbentarioaren helburua izango da kutsatuta egoteko probabilitate handiena duten kokapenei kasu egitea.

Potentzialki kutsagarriak diren jarduerak orokorrean lau kokapen motatan banatzen dira, guztiak inbentarioan jasotzen dira, eta jarraian aipatzen dira epe motzean landu beharreko garrantziaren

arabera, handitik txikira:

Kokapen ez aktiboak: aurrez potentzialki kutsagarria izan zitekeen jardueraren bat jaso ostean orain erabiltzen ari ez diren eremuak dira. Posible da hiru azpi-talde definitzea: orubeak, eraikuntza zantzurik ez dutenak; aurriak, egoera kaskarrean dauden eraikinak dituztenak; eta azkenik, industria ez aktiboak, jarduera amaitu arren, euren eraikuntzak berriz erabiltzeko moduan mantentzen dituztenak.

Hondakindegia: aktiboak eta ez aktiboak barnebiltzen dira, baimenduak edo ez, hemen biltzen dira hondakindegia kategorian izan ez arren, hondakinak isurtzen diren eremuak. Kokapen ez aktiboekin batera, kutsatutako lurrikiko politikaren lehentasunezko helburua dira; izan ere, askotan arriskutsuak izateaz gain, berriz erabiliak izan daitezke erabilpen berrien segurtasuna bermatu gabe. Talde honetan daude hondakindegia berreskuratuak ere, askotan kokapenean hondakinak mantentzen baitira, kutsadura foku garrantzitsua izanik.

Kokapen aktiboak: Gaur egun potentzialki lurraren kutsatzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten eremuak. Hasteko, inbentariatuak egon behar dute, beharrezkoak diren prebentzio neurriak hartu behar direla ez ahazteko, eta gainera, jardueraren amaieran lurraren kalitatearen azterketa eskatu behar da, eta beharrezkoa balitz baita berreskurapena ere. Talde honen barruko kasu bereziak dira etxabeetan egindakoak. Hauek, orokorrean, ondo babestutako lurren gainean garatutako tamaina txikiko jarduerak dira.

Kokapen eraldatuak: Bere garaian potentzialki kutsagarriak ziren jarduerak jaso ostean eraldatu eta gaur egun kutsatzaileak ez diren jarduerak dituzten lurzorua. Ez dira jasotzen inguruko jarduerak eraginda kutsatu diren zoruak. Beraz, sailkapen honetatik kanpo daude kutsadura zehatza jaso ez dutenak (atmosfera baztertutako hondakinak, plagen aurkako trataera intentsiboak jasan dituztenak eta abar).

IHOBEk eskaintako "EAEko Potentzialki Lurraren Kutsatzaile diren Jarduerak dituzten Eremuen Inbentarioko" datuen arabera udalerrian potentzialki kutsagarriak diren kokapenak 11 dira eta 6,21 hektarea hartzen dituzte; 62,100 m², hain zuzen ere.

5.4.2. Jarduteko aukerak

IHOBEk osatutako "EAEko Potentzialki Lurraren Kutsatzaile diren Jarduerak dituzten Eremuen Inbentarioak" abiapuntu gisa du inbentarioan bildutako kokapen asko ez direla, azkenean, kutsatuta izango, beraz, helburua da lurzoruaren kudeaketa eraginkorra izatea eta ingurumenarekin errespetuan aritzea. Inbentario honek oinarritzko informazio eta tresna gisa balio behar du Udaleko teknikarientzat hirigintza planteamendua eta hiriaren kudeaketa egiteko eta horien baitan lurzoruaren kalitatearen faktorea kontuan hartzeko.

Inbentarioan kapitulu berezi bat dago Udaleko teknikariari ekinbide bakoitzean lurzoruaren kalitatearen faktorea barnebiltzeko irizpideak jasotzen dituena.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Batzordeak 2004ko martxoan Lurzoruaren Kutsaduraren

Prebentzio eta Zuzenketarako Lege proiektua onartu zuen, geroago eztabaidatu eta onartzeko.

Lege horren helburua da EAEko lurzorua babeserako politika oinarritzen den hiru helburuak betetzea:

- Lurzoruko alterazio berriak aurreikustea
- Kasurik larrienei konponbidea ematea
- Epe ertain eta luzean gaur egun urgentziazkoa ez den lur kutsatuen berreskurapena planifikatzea.

5.5. Hondakinen kudeaketa

5.5.1. Hiri-hondakinak

Bildutako zabor-bolumen osoa kamioi konpaktatu batean Garbiker SA-k Durangon kudeatutako instalazio batera eramaten da. Bertan konpaktazio handiagoa egiten da zabortegei kontrolatu batera eramateko. Azken hori ere Garbiker SA enpresak kudeatutakoa da.

Hondakinen bilketa egunero egiten da (astelehentik larunbatera), auzoetan izan ezin non bilketa bolumenaren arabera egin ohi den (astean behin edo bizpahiru egunean behin).

Etxeko hondakinen sorrera (EH)

2004an Atxondoko biztanle bakoitzak 1,12 Kg. egunean sortu zituen; hots, Bizkaiko batez bestekotik gora dagoena (1,09 kg eguneko eta biztanleko). Hurrengo taulan ikus daiteke 2001-2004 epeko eboluzioa. Bertan azpimarratu daiteke epealdi horretan gutxitu egin dela etxeko hondakinen sorrera.

Etxeko hondakinen sorrera 2001-2004

	2001	2002	2003	2004
Kg.	661.154	618.730	606.139	582.614
Kg/bzt/eguneko	1,24	1,16	1,14	1,12
Kg/bzt/urteko	452,6	423,4	416,1	408,8

Iturria: Garbiker-Bizkaiko Foru Aldundia

Atxondon kokatutako edukiontzia masako bilketa zein gaikako bilketarako. 2004

Udalerria	Masako bilketa		Papera/kartoia		Beira	
	Unitateak	Bizt/edukion	Unitateak	Bizt/edukion	Unitateak	Bizt/edukion
Atxondo	72	20	7	204	9	159
	Ontziak			Pilak		
	Unitateak	Bizt/edukion	Unitateak	Bizt/edukion		
	9	159	5	285		

Iturria: Garbiker-Bizkaiko Foru Aldundia

Hiri-hondakinen Plan Nazionalak ezarritako helburuei dagokienez; hots, 2006rako edukiontzi bateko ratioa 500 biztanleko, Atxondo udalerririk duen edukiontzi-ratioak soberan betetzen ditu xede horiek.

Atxondoko Etxeko Hondakinen (EH) eboluzioa

	2002		2003		2004	
	Kqs.	%	Kqs.	%	Kqs.	%
Berreskurapena-birziklapena	111.549	18,02	112.082	18,49	128.845	22,11
Botatakoa guztira	507.181	81,97	494.057	81,50	453.769	77,88
Guztira	618.730	100,0	606.139	100,0	582.614	100,0

Iturria: Garbiker-Bizkaiko Foru Aldundia

Atxondoko etxeko hondakinen kudeaketaren gaineko eboluzioa oso positiboa da, azken urteetan -2002-2004 epean- berreskurapena eta birziklapena modu garrantzitsuan handitu diren heinean, botaketa era adierazgarrian ere gutxitu bitartean.

Gaikako bilketak

Beiraren gaikako bilketa eta edukiontziak kokatzearen maila

Beira biltzen da ondoren ECOVIDRIO enpresak birziklatu ahal izateko.

2004an beira biltzeko edukiontzien hedapena ondorengoa zen; edukiontzi bat 159 biztanleko.

Atxondo udalerrian edukiontzietan bildutako beira-bolumena hazi egin da 2001-2004 epean, baina gorabehera garrantzitsuekin. Beirek 2004an sortutako etxeko hondakinen %7,40 zen, ehuneko ez oso altua.

Beiraren gaikako bilketa eta biztanleen kopurua edukiontzi bakoitzeko

Urtea	Kg	% berreskurapena	Edukiontziak	Bizt/edukion
2001	36.937	5,59	7	209
2002	35.194	5,69	8	183
2003	36.814	6,07	8	183
2004	43.098	7,40	9	159

Iturria: Garbiker-Bizkaiko Foru Aldundia

Papera eta kartoiaren gaikako bilketa eta edukiontziak kokatzearen maila

2004. urtean, papera eta kartoia biltzeko edukiontziak zabaltzeraren maila ondokoa zen; edukiontzi bat 240 biztanleko.

2001-2004 epean edukiontzietan bildutako paper/kartoiaren kopuruak gora jo du urtetik urtera. 2004an, sortutako etxeko hondakin guztien %10,80 zen.

Papera eta kartoiaren gaikako bilketa eta biztanleen kopurua edukiontzi bakoitzeko

Urtea	Kg	% berreskurapena	Edukiontziak	Bizt/edukion
2001	44.959	6,80	7	209
2002	50.430	8,15	7	209
2003	52.614	8,68	7	209
2004	62.914	10,80	7	204

Iturria: Garbiker-Bizkaiko Foru Aldundia

Ontzi arinen gaikako bilketa eta edukiontziak kokatzearen maila

Bilketa Garbikerrek egiten du eta Amorebietako BZB Bizkaiko Zabor Birziklategia SL

enpresaren iglu hori baten ezartzen du bildutakoa. Bertan sailkatu egiten dira eta birziklapen industriak eskatzen dituen gutxiengoaren arabera prestatzen dira.

2004. urtean, ontzi arinak kokatzearen maila ondorengoa zen; ekukiontzi bat 159 biztanleko.

Europako artezarauren ondorioz azkenekoz barneratu den bilketa izan da ontzi arinena, ondoren, berreskurapen helburu garrantzitsuetara behartzen duen ontzien legeak behartu du bilketa.

Ontzi arinak berreskuratzeko indizeak oso baxuak dira oraindik, ziurrenik sistema horren ezarpen berriarengatik.

Ontzi arinen gaikako bilketa eta biztanleen kopurua edukiontzi bakoitzeko

<i>Urtea</i>	<i>Kg</i>	<i>% berreskurapena</i>	<i>Edukiontziak</i>	<i>Bizt/edukion</i>
2001	9.147	1,38	9	162
2002	8.152	1,32	9	162
2003	7.285	1,20	9	162
2004	8.724	1,50	9	159

Iturria: Garbiker-Bizkaiko Foru Aldundia

Bolumen handiko hondakinen gaikako bilketa

Bolumen handiko hondakinen gaikako bilketa

<i>Urtea</i>	<i>Kg</i>	<i>% berreskurapena</i>	<i>Edukiontziak</i>	<i>Bizt/edukion</i>
2001	17.031	2,58	-	-
2002	17.702	2,86	-	-
2003	15.280	2,52	-	-
2004	14.034	2,41	-	-

Iturria: Garbiker-Bizkaiko Foru Aldundia

Bolumen handiko hondakinen gaikako bilketak balore oso moderatuak izan ditu, eta gainera beheranzko joerarekin.

Pilen gaikako bilketa

2001-2004 epean pilen gaikako bilketa egonkortu da Atxondon, 2004an 75 kg bildu izan direlarik.

Pilen gaikako bilketa

<i>Urtea</i>	<i>Kg</i>	<i>% berreskurapena</i>	<i>Edukiontziak</i>	<i>Bizt/edukion</i>
2001	66	0,01	5	292
2002	71	0,01	5	292
2003	89	0,01	5	292
2004	75	0,01	5	285

Iturria: Garbiker-Bizkaiko Foru Aldundia

Erabilitako olio begetala eta etxeke hondakin arriskutsuak biltzea (Puntu berde mugikorra)

Atxondon ez dago horrelako bilketarik.

Arroparen eta beste ehunen gaikako bilketa

Atxondon ez dago horrelako bilketarik.

Hondakinentzako Biltegi alternatiboak edo Garbiguneak

Garbiker enpresak Garbiguneak kudeatzen ditu.

Atxondo Durangoko Garbigunearen eremuan dago. 2001eko abuztuaren 20ean inauguratu zen Garbigune hau eta Durango-Elorrio errepidean dago, Sabecoren parean. Durangaldeko beste bederatzi udalerritako hondakinak jasotzen ditu, zerbitzua 53.808 biztanleri eskainiz. 2.200 m²-ko azalera du. 2004an jasotako kopurua 1.428.473 Kg izan zen, eta ez daude udalerrien arabera bereizita, beraz, ezin da jakin Atxondotik iritsitako hondakin kopurua.

Inausketako eta lorezaintzako hondakinen bailketa

Atxondon ez dago horrelako bilketarik.

Abelburuen hondakinak

Sortutako hondakin organiko guztiak ustategien lurlean aplikatzen dira ongarri moduan.

5.5.2. Hondakin industrialak eta arriskutsuak

Hondakin arriskutsuak

Eusko Jauriaritzako Ingurumen Eta Lurralde Antolamenduko sailaren Ingurumen Kalitateko Zuzendaritzak emandako datuen arabera, 2000-2004 epean Atxondon Hondakin Arriskutsuak Sortzeko Adierazpena eginduten enpresen zerrenda hurrengo taulan azaltzen da:

Atxondon HA adierazpena aurkeztu duten enpresak 2000, 2001, 2002, 2003, 2004

Atxondo	Enpresak
	Celulosas Moldeadas Hartmann, S.A.
	Industrias Tey, S.L.
	Fuchosa, S.A.
	Burdinak, S.L.
	Fabricados Artia, S.A.

Iturria: Eusko Jauriaritzako Ingurumen Kalitate Zuzendaritza

Esan beharra dago horrelako adierazpena egiten duten enpresek ez dutela zertan bat etorri behar hondakin arriskutsuak sortzen dituzten jarduera ekonomikoekin. Adierazpena egiteko betebeharra betetzea exijitzen zaie urtean hondakin-mota horren 10.000 kg-tik gorako kopuruak sortzen dituzten enpresei.

5.5.3. Kontrolik gabeko zabortegiak


Bizkaiko Foru Aldundiko datuen arabera, azken 5 urteotan ez da kontrolik gabeko zabortegirik berreskuratu Atxondon.

5.6. Jardueren ingurumen eragina eta arriskua

5.6.1. Jarduera ekonomikoaren ingurumen eragina

Atxondoko jarduera ekonomikoaren inguruko datuak Eustaten bidez lortu dira. 2004. urteari dagozkionak erakusten dira jarraian:

Udalerrrikako establezimendu kopurua jarduera adarraren arabera. 2004



Iturria: Eustaten datuetan oinarritua.

Industria jardueren eragina:

Diagnostiko honen beste kapitulu batzuetan aztertzen da industriak ingurumen naturalaren elementu ezberdinetan duen eragin nagusia: atmosferan, zaratak, ur arroetan, lurzoruan... laburbilduz, azpimarratu ditzakegun inpaktu nagusiak honakoak dira:

- Airearen eta zarata. Dokumentu honen beste atal batean azaltzen da dagoen akustikaren eta atmosferaren kutsadura. EAEn orokorrean, esan behar da industriak utzi diola, jada, atmosferaren kutsadurarako faktore nagusia izateari. Airearen kontrol eta jarraipen etengabea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak egiten du.
- Ura. Ibaien egoerarekiko utzikieriazko historia tradizionalaren ordean uraren babes eta kontserbazio kultura ari da nagusitzen. Hala ere, saneamendu planak atzeratuta dabilta eta erabilpen industrialerako uraren hornikuntzaren kontrola eskasa da, horrek arazoak sortu ditzake etorkizun hurbilean. Udal interbentzioa eskasa da, eskumen gehienak Eusko Jaurlaritzaren (Uren Zuzendaritza) eta Bilbao-Bizkaia Ur patzuergoaren ardura direlarik.

Poluzioaren Prebentzio eta Kontrol Integraturako Legean (IPPC) bildutako jarduerak

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak EPER Euskadi izeneko erregistroa martxan jarri du. EPER Euskadiren helburua da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen (IPPC izenez ezagutzen dena) I. Eranskinean bildutako jarduerak garatzen dituzten euskal entitateek egiten dituzten

emisioei eta emisioen fokuei buruzko ingurumen-informazioa modu normalizatuan eskuratzea.

2000ko uztailaren 17ko 2000/479/EB Erabakian xedatutakoaren arabera, alegia, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen (IPPC legea) I. Eranskinean bildutako jarduerak garatzen dituzten entitateen instalazioetan sortutako Igorpen Kutsagarriei buruzko Europako Inbentario bat lantzeari buruzkoaren arabera, agintaritzei jakinarazi beharreko substantzia kutsagarriei buruzko datuak modu sistematizatuan bilduko dira EPER Euskadi erregistro honetan.

2003ko Eper Euskadi Erregistroaren arabera, Atxondon EPER Euskadi 2033 Inbentarioan sarturiko 2 enpresa daude (Europako Isurketa Kutsatzaileen Inbentarioa) Celulosas Moldeadas Hartmann, S.A., eta Fuchosa, S.A. dira.

Celulosas Moldeadas Hartmann, S.A.-k egindako isurketak kopuruak hurrengo taulan azaltzen dira:

Enpresa	Isurketak	Kopurua (Kg/urte)	Muqa (Kg/año)
Celulosas Moldeadas Hartmann, S.A.	Karbono Organikoa Guztira (TOC)	95139,2	50000
	Zink eta bere konposatuak	118,924	100

Iturria: EPER Euskadi Gidn oinarritutako datuak

Fuchosa, S.A.-k egindako isurketak kopuruak hurrengo taulan azaltzen dira:

Isurketak

Enpresa	Isurketak	Kopurua (Kg/urte)	Muqa (Kg/año)
Fuchosa, S.A.	Artsenikoa eta bere konposatuak	0,013	5
	Kadmioa eta bere konposatuak	0,001	5
	Karbono Organikoa Guztira (TOC)	607,56	50000
	Zianuroak	0,022	50
	Kloruroak	287,2	2000000
	Kobre eta bere konposatuak	0,99	50
	Organohalogenaturiko Konposatuak	1,32	1000
	Kromo eta bere konposatuak	0,038	50
	Fenolak	0,276	20
	Fluoruroak	3,7	2000
	Fosforoa guztira	43,1	5000
	Nikel eta bere konposatuak	0,071	20
	Beruna eta bere konposatuak	0,071	20
	Zink eta bere konposatuak	7,18	100

Iturria: EPER Euskadi Gidn oinarritutako datuak

Emisioak

Enpresa	Emisioak	Kopurua (Kg/urte)	Muqa (Kg/año)
Fuchosa, S.A.	Azido zianhidrikoa	737	200
	Amoniakoa	406	10000
	Artsenikoa eta bere konposatuak	0,056	20
	Bentzenoa	3817	1000
	Kadmioa eta bere konposatuak	1,21	10
	Kromo eta bere konposatuak	13,7	100
	Karbono Dioxidoa	1436460	10000000
	Karbono Monoxidoa	257	50000
	Nikel eta bere konposatuak	2	50
	Konposatu organiko ez-metaliko lurrunkorrek (NMVOC)	6189	100000
	Nitrogeno Oxidoak	1596	100000
	Beruna eta bere konposatuak	14,9	200
	PM10 (Afnas Frakzioan Esekitako Partikulak)	40600	50000

Iturria: EPER Euskadi Gidn oinarritutako datuak

Potentzialki Atmosferaren Kutsatzaileak diren Jardueren Katalogoan barneraturiko Industriak

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Antolaketa, Parte Hartze eta Kontrolerako Zuzendaritzako informazioaren arabera Atxondoko 2 industria daude "Potentzialki Atmosferaren Kutsatzaileak diren Jardueren Katalogoan" barneratua, otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuak ezarria, Atmosferaren Ingurumenerako Babeserako 38/1972 legea garatzen duena.

Zentroa	Fokua
FUCHOSA S.A.	Hornos 3 y 4
	Horno Inducción nº1 y 2 y Areneria 1
	Areneria 2
	Granalla 2
	Granalla 1
	Enfriamiento 1 Linea 1
	Enfriamiento 2 Linea 1
	Enfriamiento 3 Linea 1
	Enfriamiento 4 Linea 1
	Enfriamiento 2 Linea 1
	Enfriamiento 2 Linea 2
	Enfriamiento 3 Linea 2
	Enfriamiento 4 Linea 2
	Enfriamiento 1 Linea 3
	Enfriamiento 2 Linea 3
	Enfriamiento 3 Linea 3
	Enfriamiento 4 Linea 3
	Granalladora 3
	Areneria 3
	MOLDEADAS HARTMANN, S.A.
Proceso Línea 3 y 4	
Proceso Línea 5	
Proceso Línea 6	

	Proceso Línea 7
	Secado Cliches
	Limpieza Cliches
	Limpieza moldes

Ingurumen kudeaketako sistemak dituzten enpresak (ISO 14001, EMAS eta Ekoscan)

Empresa	Sector	ISO	EMAS	Certificadora	Fecha Cert.
FUCHOSA, S.A.	SIDERURGIA	✓	✓	TÜV SUDWEST	11/02/2000
HIRUMET, S.L.	HONDAKINEN KUDEAKETA / BIRZIKLATZEA	✓		BVQI-España	09/07/2004

Iturria: IHOBE

Nekazaritza-abeltzaintza eta basogintzako jardueren eragina

Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak ingurumenean duten eraginari dagokionez, honakoak azpimarratu behar ditugu:

- Hondakinen trataera eta sorrera, batez ere abeltzaintzatik datozenak. Beste atal batean garatzen da..

Basogintzako jardueri dagokionez, hauek azpimarratzen ditugu inpaktu nagusi gisa:

- Koniferen birpopulatzeen gehiegikeriak, lurzoruen gaitasun produktiboaren txikitze garrantzitsua eragiten dute.
- Baso hustutzeek larriagotu egiten dute, gainera lurzoru produktiboaren galera eragiten dute, prozesu erosiboak eta isurketen areagotzea.
- Baso ustiapenak, gainera, baso pistak egitea dakar; eta horrek lurzoruaren mugimendu handiak eragiten ditu aldapa handiko lekuetan, paisaia inpaktu handia eragiten dute eta ez dira behar bezalako hustubideak egiten.
- Azkenik, ustiaketek duten paisai inpaktu handia azpimarratu behar da, kantauriar isurialdean paisaia erabat aldatu baita, etengabeko kolorebakarreko irudi bat sortuz.

5.5.2. Arrisku natural eta industrialak eta arriskuaren kudeaketa

Atxondoko udalak ez du Larrialdietarako Udal Planik.

6. ABIADURA HANDIKO TRENA (AHT)

6.1. Aurkezpena

2002ko ekainean Atxondoko udalak Abiadura Handiko Trena Atxondoko Udalerritik igarotzen den ibilbidearen Inpaktuaren Ikerketa esleitzeko lehiaketa egin zuen, Apatamonasteriotik igarotzen den zatian, eta baita zuzenketa neurriak proposatzeko eta (BAO , 108 zbk. 2002ko Ekainak 7). 2002ko urrian lanak MECSA aholkularitzari esleitzen zaizkio, honek Ekain, Grama eta Bizilan enpresak laguntzaile bezala aurkezten dituelarik.

Lanen garapenak hiru fase jarraian aurreikusten ditu, eta ondoren fase horien hurbilketa bat egiten da:

- 1. Fasea: Arazoaren analisia. Informazioaren sintesia eta diagnostikoa.
- 2. Fasea: Alternatiben ikerketa, eta bakoitzaren ebaluazioa.
- 3. Fasea: Alternatibaren hautaketa eta hobekuntza neurrien garapena.

6.2. Aurretiko Ebazpenak

Atxondoko haranean, Anboto mendiaren magalean, Bizkaiko lekurik berezietariko bat aurkitzen da, euskal nortasuna duten Axpe eta Arrazola herrixkek osatua, mendi paisai oso interesgarri baten barnean. Edertasuna nabarmena duen eremua da, ingurumen kalitate oso altukoa, ibilbide ugariaren hasiera lekua,... azken finean antzinako euskal landa inguruaren ezaugarriak gordetzen dituen espazio bat.

Haran hau aldaketa nabarmenak jasango ditu hainbat arlotan Abiadura Handiko Trenaren ibilbidearen eraginez, Atxondoko udalerririk era zuzenean eraginez, eta batez ere Apatamonasterion, gunehonetatik 200 metrora igarotzen baita proiektuaren arabera trenbide sarea.

Abiadura Handiko Trena garatzen den azpiko lurzoruari egokitzen ez den azpiegitura bat da, baizik eta alderantziz, gutxieneko aldapa eta erradioak behar baititu, eta horrek tunel eta zubi bereziak behar izatea eragiten du.

Garraio azpiegitura hau ez da Atxondon eragingo duen bakarra, Euskadiko Errepideen Plan Orokorrean Durango-Elorrio-Kanpazar korridorea aurreikusita baitago, eta hau udalerriko iparraldetik igaroko litzateke.

Apatamonasterio etorkizunean bi azpiegitura garrantzitsu hauen artean geratuko litzateke, bi azpiegitura hauek beren hedapen osoan gertuen geratuko diren zatia hain zuzen ere, bakarrik 300 metrotara, 700 metro herrigunea egituratzen duen ardatz nagusia eredutzat hartzen badugu, BI-4332 errepidea.

Aldaketei dagokienean, 65 metro altueran eta ia kilometro bat luzeran izango dituen zubi baten eraikuntzak, begi-bistako hesi nabarmen bat izango da, fisikoa baina baita psikologikoa ere, biztanle zein bisitariarentzako.

Bestalde eragin nabaria izango du ere sortuko duen zaratak.

Azpimarratu behar da ere hirigintzaren aldetik Apatamonasterioko etorkizuneko herri garapenak mugatuko dituela.

6.3. Diagnostikoa

AHT martxan jartzearekin batera egindako ikerketaren arabera hurrengo eraginak izango lituzke:

6.3.1. Eraginak Biztanlerian:

Azken urteetan Atxondon ematen ari den biztanleriaren beherakada indartu liteke proiektu hau aurrera eramatearekin batera, era zuzen zein zeharkakoan hurren adierazle demografikoetan eraginez:

- Biztanlearen hazkundera: Gure gaur egungo gizartean oso era positiboan baloratzen da bizi kalitatea, eta honen galerak asko baldintzatuko du udalerrian etxebizitza berriak egin edo hartzeko orduan.
- Biztanleriaren zati bat, batez ere biztanleria gehien bizi den Apatamonasterio gunean bizi dena, beste lekuetara mugitzea planteatu lezake.
- Ez luke azken 3 urteetan eman den jaiotze tasaren berreskurapena faboratuko, eta ziurrenik mantentzea edo beheratzea eragingo luke, gazteen emigrazioa emango litzatekeelako.
- Zentzu honetan ere migrazio saldo orokorra berreskuratzeko oso zaila izango litzateke, udalerriak bere erakargarritasuna galduko, lukeelako.

6.3.2. Eraginak demografian

6.3.2.1. Etxebizitza

Arau subsidiarioen barruan garatu beharreko etxebizitza aurreikuspenak hein handi batean kaltetuta ikus daitezke, eskaeraren beherakadak udalerraren hazkundera ematea galaraziko lukeelako. Honek herri eremuetan eragin zuzena izan dezake, eta batez ere landa eremuan, landa eremuetan herri lurzorua beharrezkoa den erreferentzia bat baita.

6.3.2.2. Iharduera ekonomikoa

- Lehengo sektorea era oso nabarmen batez kaltetuko litzateke, abereen egokitze epeak gutxienez lehengo hilabeteetan aldatuz, zarata bezalako eragin berrietara.
- Baserrietako bizitza guztiz eraldatuko da etengabeko trenen igarotzearekin, ohiko bizimodu eta erritmoak hautsiz.
- Industriari dagokionez AHT-ren eragina ez litzateke ia nabarituriko, baina ez luke ere eragin positiborik izango.
- Hirugarren sektorea aldiz era nabarian kaltetua aterako litzateke, azken urteetan garrantzia hartzen joan den sektorea. Aisia iharduerak eta turismoa haranean finkatzen ari dira, eta hauentzako eragina oso negatiboa izango litzateke.

6.3.2.3. Ingurumena

Ingurumenaren ikuspegitik, ikerketak adierazten du AHT izango lukeen eraginik latzena eskualdean balio handia duen paisaiaren kalitatearen beherakada izango litzateke, biztanleriaren aisialdirako oso erabilia izaten dena.

Guzti hau erakundeek egindako dokumentu ezberdinetan adierazten da, Apatamonasterio inguruan, Proiektuaren Detalle fasean hobekuntza baten beharra adieraziz, eta baita azpiegituraren integrazioa kontu handiz eraman behar dela aurrera azalduz.

Arrazola ibaiaren harana igaroko duen zubiaren baldintza bereziak (980 metrotako luzera eta 65 metroko altuera) Apatamonasterioko guneko edozein puntutik ikusiko den

azpiegitura bat izango da. Arazo honi irtenbidea bilatzea oso zaila izando da. Zuhaitzez egindako hesiak jartzea posible da lurrazalaren mailan egongo denean, baina zubia den kasuetan zaila izango da inguruan integratzea. Inguru naturaleko gainontzeko elementuen ganean izango duen eragina ez da hain garrantzitsua izango, eta edozein kasutan ere Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio proiektuan zein Ingurugiro Ministerioak emandako Deklarazioan datozen neurri zuzentzaileak aurrera eramanez konpondu litezke.

6.4. Aukeren azterketa

Balio anitzeko matritzetan lortutako emaitza kualitatiboen analisi kritiko bat egitean ikerketan aurkezturiko aukerako proiektu guztietan egokiena **Ibaizabal** deituriko proposamena dela esan daiteke. Ibaizabal proposamenean, inpaktua onargarria da eragindako udalerrri guztientzako, nahiz eta udalerrriarentzako onurak ez diren agerikoak, edo bestela esanda nahiko eskasak dira. Herrizgaindiko izaera duen alternatiba bat da, hainbat udalerrien aurreikuspenei eragiten diena, baina Atxondoko Udalak Ibaizabal proposamenaren alde egin behar duela planteatzen da.

Alternatiba honek komunikazio azpiegitura handiak haran berean kontzentratzea posible egiten du, beste natur espazioen kaltetzea galaraziz, Apatamonasterio, Abadiño, Izurtza, Durango,.... Guneak hegoaldera haztea posible eginez, eta LZP-en aurreikuspenen gaineko eragin ekonomikoak onargarriak izanik.

7. UDAL EGITURA ETA BERTAKO GIZARTEA

7.1. Gizartea eta hiritarren parte-hartzea

Ingurumena babestea eta hobetzea ez dago instituzioen menpe, baizik eta udalerriko hiritar guztien elkarlanaren beharrean dago. Horretarako biztanleriaren sektore guztiei zuzendutako informazio- zein kontzientziazio-kanpainak abiatu behar dira.

Bestalde, "Durangaldeako Udaltalde 21en Talde-Lanaren esparruan, Tokiko Agenda 21 garatzeko, galdetegi bat egin da: "Durangaldeako biztanleriaren iraunkortasun kontzientzia. Herritarren jarrerak eta usteak iraunkortasunari buruz".

Atal honetan biltzen ditugu Tokiko Agenda 21 osatzeko prozesuaren baitan Durangaldeako Udaltalde 21eko udalerrri guztietan egin den galdeketa Atxondoko hiritarrek iraunkortasunaren problematikari buruz azaldu dituzten iritziak.

Informazioaren bilketa egiteko galdera-sorta modu honetan antolatzen zen: arazo sozioekonomikoen, ingurumenezkoen eta sozialen inguruko poztasun maila jakin nahi zen, baita Durangaldeako Udaltalde 21eko udalerrietako hiritarrek zein balorazio egiten duten hauetaz ere, administrazioaren sentsibilizazioa, bizitzaren kalitatea hobetzeko ohiturak aldatzeko prestutasuna, jarduera ezberdinak abiatzeko beharraz duten iritzia eta Tokiko Agenda 21 prozesuaren garapenez duten ezagutza eta problematika horren gaineko foroetan parte hartzeko prestutasuna.

Galdeketa prozesu hau telefono bidez osatu da Durangaldeako Udaltalde 21 udalerrietan bizi diren 834 pertsonako lagin batekin, 2006ko urtarrila eta otsaila artean egin dira elkarrizketak. Horretarako Durangaldeako Udaltalde 21eko udalerrien eta eskualdearen iraunkortasunarekin lotutako gai sozial, ekonomiko eta ingurumenezkoen inguruan zituzten kezka, iritzi eta jarrerak jasotzen zituen galdeketa egituratua erabili da. Atxondon 27 elkarrizketa egin dira:

Taula 1. Inkesten banaketa genero eta adinaren arabera.


	Gizona				Emakumea				GUZTIRA
	26-40 urte	41-64 urte	≥65	18-25 urte	26-40 urte	41-64 urte	≥65	≥65	
Atxondo	2	3	6	2	2	3	7	2	27

Jarraian udalerrian galdekatuak izan diren pertsonen emandako datu esanguratsuenak biltzen ditugu, eta alderatzeko, kide den udalerrri taldearenak eta laginketaren osotasunarenak.

a) Udalerrriak eta eskualdeak bizitzeko eta lan egiteko eremu gisa ematen duen gogobetetze-maila

Hurrengo taulan alde batetik Atxondoko herritarrek euren udalerriarekiko eta eskualdearekiko gogobetetze-maila jasotzen dugu (1etik 4rako eskalan); eta aldi berean, Durangaldeako Udaltalde 21eko udalerrietan lortutako batez bestekoarekin alderatu dugu. Atxondoko herritarrek udalerriarekiko eta eskualdearekiko bizitzeko eta lan egiteko eremu gisa duten gogobetetze-maila 3koa da. Eskualdeari dagokion lan egiteko eta bizitzeko poztasun mailari dagokionez, batez bestekoa antzeko da 2,9koa baita.

Hala ere, aipatu behar da eskualdea osatzen duten udalerrietan lortutako batez bestekoak, udalerriarekiko zein eskualdearekiko gogobetetze-mailari dagokionez, Atxondon lortutakoak baino handiagoak direla; beraz, nahigabearen tamaina nahiko handia da.

Grafiko 1. Eskualdearekiko zein udalerriarekiko gogobetetze-maila**b) Hiritarren artean gogobetetze-maila baxuenak lortu dituzten gaiak**

Ondorengo taulan Atxondoko biztanleen artean kezka gehien sortzen edo pizten duten gaiak azaltzen dira.

Taula 2. Gogobetetze-maila baxuena jaso duten lehen 10 gaiak.

	Batez bestekoa	Eremua
1. Etxebizitzarako sarbidea eta honen kalitatea eta prezioa	1,28	Soziala
2. Abiadura Handiko Trenaren proiektua (AHT)	1,39	Ingurumena
3. Dauden bidegorriak	1,57	Ingurumena
4. Nekazaritza ekologikoaren egoera	1,82	Sozioekonomikoa
5. Mugitzeko ezintasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna	1,91	Ingurumena
6. Nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko egoera	2,05	Sozioekonomikoa
7. Enpresek sortutako kutsadura maila	2,11	Ingurumena
8. Kirol zerbitzu eta ekipamenduen hornidura eta kalitatea	2,11	Soziala
9. Emakumearen desberdintasun egoerari arreta	2,12	Soziala
10. Saltokien egoera	2,17	Sozioekonomikoa

Aurreko taulari jarraiki, gogobetetze-maila baxuena lortzen duen gaia Etxebizitzarako sarbidea eta honen kalitatea eta prezioa da. Bestalde, Abiadura Handiko Trenaren proiektuari buruzko kezka azaltzen da herrian. Bidegorrien egoera eta Nekazaritza ekologikoaren egoerak ere toki garrantzitsu bat okupatzen dute kezken zerrendan.

Egoki jotzen da azaltzea zeintzuk diren eremu ezberdinen artean ezinegona sortzen duten gaiak. Ingurumen alorrean, gogobetetze-maila baxuena lortu duten gaiak ondoko hauek dira:

Taula 3. Gogobetetze-maila baxuena lortu duten ingurumen-gaiak

Asebetetze maila txikiena izan duten gaiak.	Batez bestekoa	Arloa
1. Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektua	1,39	Ingurumena
2. Dauden bidegorriak	1,57	Ingurumena
3. Mugitzeko ezintasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna	1,91	Ingurumena
4. Enpresek sortutako kutsadura maila	2,11	Ingurumena
5. Ibilgailu pribatuaren erabilera	2,54	Ingurumena
6. Oinezkoentzako gune eta kaleen hornidura eta ekipamenduak	2,54	Ingurumena

Gizarte-alorrean, gogobetetze-maila baxuena lortu duten gaiak ondoko hauek dira:

Taula 4. Gogobetetze-maila baxuena lortu duten gizarte-gaiak.

Asebetetze maila txikiena izan duten gaiak.	Batez bestekoa	Arloa
1. Etxebizitzarako sarbidea eta honen kalitatea eta prezioa	1,28	Soziala
2. Gazteentzako zerbitzuen hornidura eta kalitatea	1,75	Soziala
3. Adinekoentzako arreta zerbitzuak (eguneko zentroak, pisu zainduak...)	1,96	Soziala
4. Kirol zerbitzu eta ekipamenduen hornidura eta kalitatea	2,11	Soziala
5. Emakumearen desberdintasun egoerari arreta	2,12	Soziala

Azkenik, alor sozioekonomikoan gogobetetze-maila baxuena lortu duten gaiak ondoko hauek dira:


Taula 5. Gogobetetze-maila baxuena lortu duten gai sozioekonomikoak.

Asebetetze maila txikiena izan duten gaiak.	Batez bestekoa	Arloa
1. Nekazaritza ekologikoaren egoera	1,82	Sozioekonomikoa
2. Nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko egoera	2,05	Sozioekonomikoa
3. Saltokien egoera	2,17	Sozioekonomikoa
4. Dagoen prestakuntzarako eskaintza	2,2	Sozioekonomikoa
5. Enplegurako aukerak	2,36	Sozioekonomikoa

c) Zer hondakin mota birziklatzen duzu?

Birziklatzen dituen elementuekiko biztanleriak duen ustea jaso asmoz, inkestan elementu sail bat proposatu zen birziklapena egiten den ala ez ondorioztatzeko.

Hurrengo grafikoan kasu honen emaitzak jasotzen dira, bertan Atxondoko eta Durangaldeako Udaltalde 21eko kide diren udalerrien batez bestekoak ematen dira, 1 "inoiz ez" da eta 3 "maiz".


Grafiko 2. Birziklatzen diren hondakin-motak

Ikus dezakegu papera, plastikoa, beira eta baita pilak ere normalean birziklatzen direla. Beraz, esan dezakegu biztanleriaren portzentaje altu batek birziklatu egiten dituela material hauek.

d) Bere inguruko bizi kalitatea hobetzeko ohiturak aldatzeko prestutasuna

Galdera-sortari erantzuten dioten pertsonen euren inguruko bizi kalitatea hobetzeko ohiturak zein neurritan aldatzeko prest egongo ziren erakusten dute, hurrengo grafikoan jasotzen da emaitza. Bertako biztanleen erantzunak honako eskalan zehaztu ditugu: 1etik "inoiz ez" 3ra "maiz".

Grafiko 3. Ohiturak aldatzeko prestutasuna.



Aurreko grafikoan bezala, Atxondoko biztanleek aldaketarako azaldutako prestutasun-maila eskualdeko batez bestekoaren azpitik dago. Bestalde, Udalerriaren beraren batez bestekoa lortu ez duten jarduerak edo ekintzak ondorengoak dira: tasa edo zerga gehiago ordantztea garapen iraunkorrean inbertsioak egiteko, mendiak eta ibaiak garbitzeko kanpainetan parte hartzea, elikagai edo produktu ekologikoak kontsumitzea garestiagoak izan arren eta iraunkortasunerako batzarretan aktiboki parte hartzea.


e) Jarrera iraunkorra eguneroko bizitzan

Inkestari erantzuten dioten pertsonen euren inguruko bizitza kalitatea hobetzeko iraunkortasunaren mesedetan zein neurritan jarduten duten zehazten dute. Jarraian azaldu dugu Atxondoko pertsonen hainbat eremutan iraunkortasunaren mesedetan jarduten duten

neurria 1etik (inoiz ez) 3ra (maiz).

Hurrengo grafikoan jasotzen dira datu horiek.

Grafiko 4. Egunerokotasunean modu iraunkorrean aritzea.




Horrela, ikusten dugu modu iraunkorrean aritu ohi den pertsonen gehiengoa energiaren alorrari eta ur-kontsumoari lotutako gaietan egiten duela. Hala eta guztiz ere, maitasun hori are txikiagoa da erosketak egiterakoan. Aldi berean, esan dezakegu Atxondoko maiztasunaren batez bestekoa Udaltalde 21eko batez bestekoa baino handiagoa dela ur-kontsumoari, erosketari eta energia-kontsumoari dagokionean.

f) Bere udalerrian Tokiko Agenda 21 bultzatzen ari den jakitea

Hurrengo grafikoaren arabera, Atxondon kontsultatutako biztanleriaren %3,2 daki Tokiko Agenda 21eko prozesua bultzatzen ari dela. Halaber, beste %41k aipatzen du ez duela ezagutzen Atxondon prozesu hori sustatze ari dela.

Oro har, portzentaje altu batek, konkretuki %55,60k, ez dio galdera honi erantzuten, ziurrenik gai hori ez duelako batere ezagutzen.


Grafiko 5. Bere udalerrian Tokiko Agenda 21 bultzatzen ari den jakitea



g) Zerbitzuen gertutasuna oinez joanda

Hurrengo grafikoan Atxondon bizi diren pertsonen oinez 15 minutu baino gutxiagora dituzten zerbitzuak jasotzen dira.

Grafiko 6. Herritarrek 15 minutu baino gutxiagora duten zerbitzuak, oinez mugituz



Grafikoan jasotako datuetatik azpimarratzen da bertan bizi diren pertsonen %93,7k badituela birziklatzeko edukiontziak oinez 15 minutu baino gutxira, eta garraio publikoaren geltokia %96,3. Oro har, Atxondoko herritarrek badute oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko aukera, baina hiru gune nagusi dituen udalerria izanda ezin ditu denak hirukoiztu.

Atxondon bizi direnen joan-etorriak

Hurrengo taulan Atxondon bizi diren pertsonen lanegun arrunt batean egiten dituzten joan-etorriak azaltzen dira eta datuak Durangaldeko Udaltalde 21 osatzen duten udalerriekin eta Euskadiko Autonomia Erkidegokoekin alderatuta jaso ditugu.

Taula 6. Atxondon, Durangaldeko Udaltalde 21 osatzen duten udalerrietan eta EAEn bizi direnen joan-etorriak.

Adierazleak	Atxondo	Udaltalde 21	EAE
Pertsona bakoitzak egiten duen bidaia kopurua	2,3	2	2,55
Joan-etorrien batez besteko distantzia	5,2	8,2	10,34
Joan-etorrien denbora	21,7	16,55	20,0
Pertsona bakoitzak egunero egindako distantzia	13,06	14,86	26,37
Joan-etorrietan pertsona bakoitzak iragandako denbora	54,3	35,05	51,0


Datu hauek Udaltalde 21ekoekin eta Euskadiko Autonomia Erkidegokoarekin alderatuta (2004ko Ekobarometro Sozialean jasoak) honako ezberdintasunak lortzen ditugu.

Bidaien kopurua Udaltalde 21eko batez bestekoa (2 bidaia) baino zerbait altuagoa eta EAeko batez bestekoa (2,55 bidaia) baino arinki baxuagoa da. Joan-etorri bakoitzean egindako batez besteko distantziari dagokionez, Atxondon 5,2 km-koa da, EAekoa (10,34 km) baino txikixeagoa da.

Joan-etorrietan emandako denbora handiagoa da Atxondon Udaltaldeko udalerrietan eta EAEn baino. Pertsona bakoitzak egunero behar duen denborari dagokionez, ondorioztatu daiteke denbora luze jotzen dela ibilbide txikia egiteko.

Atxondoko biztanleen mugikortasunari lotutako datu esanguratsuei dagokienez, hurrengo grafikoan herritarren garraibide nagusiaren gaineko portzentajeak biltzen ditugu:

Grafiko 7. Joan-etorriak, motaren arabera




Aipatu beharra dago kontsultakoen artean %54,2k adierazten du kotxe pribatua erabiltzen duela lekualdatzeko garraibide moduan, eta beste %41,5 oinez mugitzen da. Beste garraibideei dagokienez, beren presentzia oso urria da, autobusez mugitzen direnak %4,4 izanik

Arrazoiaren arabera joan-etorriei dagokionez, hurrengo grafikoan ikus ditzakegu

Atxondoko datuak.

Grafiko 8. Joan etorriak, arrazoiaren arabera.



Atxondon joan-etorrien arrazoi nagusia lana da, %42,3. Horrean atzetik, aisialdia, eta asteke erosketa.

7.2. Ingurumen informazioa eta sentsibilizazioa

Udaleko ingurumen informazioa eta zabalkundea

Ez dira era egonkor batean ingurumen informazio eta sentsibilizazio udal kanpainarik egin, mankomunitateak egindakoez gain.

7.3. Udal-egitura

Egitura politikoa

Udal-batzaren osaketa

Kargua	Izena	Abizena	Abizena	Alderdi politikoa
Alkateae	JOSE ANTONIO	IGARZA	MENDIZABAL	EAJ/PNV
Alkateordea	MIGUEL ANGEL	BURUAGA	JAINAGA	EAJ/PNV
Zinegotzia	FRANCISCO JABIER	BARRUTIA	GASTELURRUTIA	EAJ/PNV
Zinegotzia	ANGEL	ALEJO	PEDROSA	EAJ/PNV
Zinegotzia	MAIA EZKARNE	GOIENAGA	MURUAGA	EAJ/PNV
Zinegotzia	JUAN JOSE	ALONSO	CAÑAS	EAJ/PNV
Zinegotzia	PEDRO JOSE	LEON	LOZANO	EAJ/PNV
Zinegotzia	SABINO	GAMBOA	JAINAGA	EAJ/PNV
Zinegotzia	FRANCISCO	BERROCAL	MORER	PSE-EE(PSOE)

Dauden Arlo edo Batzorde informatiboak eta beren arduradunak:

Obrak eta Hirigintza

Francisco Javier Barrutia Gastelurrutia

Gizarte Ongizatea, Osasuna eta Ingurumena

Maia Ezkarne Goienaga Muruaga

Kultura, Jaiak eta Kirolak

Angel Alejo Pedrosa

Ogasuna, Kontuak eta Langileria

Miguel Angel Buruaga Jainaga

Idazkaria:

Olga Bolinaga Santisteban

Kontuhartzailea:

Olga Bolinaga Santisteban

Arkitektua:

Fernando Plaza

Arkitekto Teknikoa:

Venancio Plaza

ATXONDOKO UDALAK UDALEKO ERAKUNDEETAN, UDALAZ GAINDIKO ENTITATEETAN ETA BESTELAKO ENTITATEETAN DUEN PARTAIDETZA

Udaleko erakundeak

- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Behargintzan elkartua

Udalaz gaindiko erakundeak

- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa.

Bestelako entitateak

- Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL).
- Urkiola-Durangaldeko Landa Garapenerako Elkarte.
- Urkiolako Parke Naturaleko Patronatua.

7.4. Udal Ingurumen Kudeaketa

Udaleko ingurumen araudia

Ez dago ingurumen araudi espezifikorik herrian. Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/98 Legea aplikatzen da, eta baita ingurumen babeserako gainerako sektoreko Araudia ere.

8.- ATXONDOKO TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA

8.1. Diagnostikoaren laburpena

Demografia eta biztanleria

- **Biztanleriaren garapena.** Ikuspegi demografikotik, Atxondok izan duen bilakaera XX mendeko hasieratik azken 15 urteetan eskualdeak izan duenaren oso antzekoa izan da. Udalerriko biztanleriak pixkanaka behera jotzeko prozesu orokorrean murgildu da. Atxondok gaur egun bere historiako biztanleria maila handienak aurkezten ditu, 60 eta 70 hamarkadetan izan zuen beherakadatik era nabarmenean errekuperatuz. 2004. urtean Atxondok 1.450 pertsonako biztanleria zeukan.
- **Biztanleriaren egitura.** 2001ean, Atxondoko biztanleriaren egitura ondorengo moduan zegoen banatuta: biztanleriaren %21,1 19 urtetik beherako pertsonak ziren, %63,7 adinen ertaineko multzoan zeuden; hots, 20 eta 64 urte bitartean, eta %15,2 65 urtetik gorako taldean zegoen. 19 urtetik beherako adin-multzoak pixkanaka eta arinki behera jotzen du, 64 urtetik gorako biztanleriaren garrantzia gero eta handiagoa da eta 20 eta 65 urte bitarteko multzoak pixkanaka-pixkanaka aurrera darrai. Zifra hauek zera islatzen dute: lan-mundutik kanpora dagoen biztanleria hartzen ari den garrantzia, etorkizunean gero eta handiagoa izango dena. Sexuaren arabera banaketari dagokionean, bi generoen artean egoera oso orekatu baten aurrean aurkitzen gara, gizonezko gehiago egotera zuzenduriko joera historiko bat ikus badaiteke ere.
- **Berezko mugimendua eta migratzailea.** EUSTATEk emandako datuen arabera, 1996-2003 epean udalerriko jaiotze-kopurua 11 izan zen eta epe berdinean heriotza-kopurua, aldiz, 19 izan zen. Aztertutako epe horretan hazkunde begetatiboko tasa negatiboa izan zela (-8) erakusten dute datu hauek. Azken hamarkadan hau joera orokor bat izan da, motela baina jarraia. Analizatutako azken urtean, 2003. urtean, jaiotze-tasa (jaiotze-kopurua bider 1.000/biztanle-kopurua, eta urteko batez bestekoa eginez) %7,73 izan zen. Bitartean, heriotza-tasak jaiotze-tasak baino garrantzi handiagoa dauka, hau %13,3koa izan baitzen. 1996-2003 epean gertatu mugimendu migratzaileari dagokionez, inmigrazioa emigrazioa baino zertxobait altuagoa da; beraz, migrazio-saldoa edo sarreren eta irteeren arteko aldea positiboa da kasu guztietan, baina beti ere kopuru oso txikietaz ari gara, eta horrek joera nagusiz hitz egin ezin izatea eragiten du.

Ekonomia eta enplegua

- **Jarduera eta egitura ekonomikoa.** 2001. urtean, Industriaren sektorea da udalerrian lanpostuak sortzeari gehien laguntzen duena, enplegu osoko %46,9. Hala ere, 2000. urtean balio erantsiaren %75,8 zekarren, eta indarra galduz joan da zerbitsuen sektorearen mesedetan, bai balio erantzian zein lanpostuetan. Zerbitzuen sektoreak sortutako balio erantsiaren dagokionean, sektore produktibo honek udal balio erantsiaren %12,8 dakar, eta lanpostuen %40,7 (149 lanpostu). Bestalde, merkataritza-establezimenduak sortzeari dagokionez sektore nahiko dinamikoa da, guztizkoaren %61,3 (2004 urtean 65).
- **Biztanleria aktiboa eta langabezia.** Adinaren eta generoaren arabera banaketari dagokionez, datuek banaketa desorekatu bat azaltzen dute emakumezkoen kalterako. 2005ean, langabezia- bulegoetan inskribatutako emakumezkoen kopurua 27 zen (%64,28), gizonezkoen kopurua 15 (%35,72) zen bitartean. Udalerriko langabezia-tasa biztanleria aktiboaren %6,5a zen 2005ean. Indize hau, aurreko urte bietakoa baino

handiagoa da, baina azken 10 urteotako garapena aztertuz gero, egoera irregularra izan dela ikus dezakegu, nahiz eta irregularidade horren barruan langabezia jaisteko joera egon den. Garapen hau eskualdekoaren oso antzekoa da, baina langabezia-indize altu samarragoekin, eta oso altuak Bizkaia eta EAeko orokorrarekin alderatzen badugu. Adinaren arabera banaketari dagokionez, 25 eta 44 urte arteko emakumezko zein gizonezkoak dira langabezia gehien kontzentratzen duten multzoak. Sektore produktiboaren arabera biztanleria langabetuari dagokionez, aipatu beharra dago langabezia-tasa handienak zerbitzu eta industriaren sektoreetan kontzentratuak daudela, aipatutako sektoreak ere udalerrian enplegu gehien sortzen dutenak baitira.

Gizarte-ekintza, elkarbizitza eta elkartasuna

- **Gizarte-zerbitzuak.** Durangoko Merindatearen Amankomunazgoko datuen arabera, 2004an bi biztanlek jasotzen zuten Oinarrizko Errenta Atxondon, 10.393,10€tako gastuarekin. 2004an biztanle batek jasotzen zuen Gizarte-Larrialdietarako Laguntzarik Atxondon, 13.163,69 €ko gastu batekin
- **Osasuna.** Udalerriko osasun-zerbitzuak, osasun-zentro bakarrera mugatzen dira, ondorioz, arreta zehatzago beharrezkoa denean, eskualdeko beste zerbitzu batzuetara jo behar izaten da, Durangoko anbulatoriora edo Larrialdietako zerbitzura, edo bestela Galdakaoko ospitalera. Ospitale hauxe da eskualdeari dagokion ospitale-arretarako zerbitzua.
- **Hezkuntza eta kultura.** 2001ean, eskolatzeko mailaren arabera biztanleriaren banaketa Atxondoko udalerrian Durangaldea eta Bizkaiko ertaineko baloreak baino baxuagoa zen, bakarrik oinarrizko ikasketak dituen biztanleriaren ehunekoa altuagoa baita, bigarren mailakoek eta goi mailakoek pisu gutxiago dutelarik.
- **Euskara.** Euskararen ezagutzari dagokionez, 2001. urtean, biztanleriaren %67,4 euskaldunak ziren, %7,6 ia euskaldunak ziren, eta %25 erdaldunak ziren. Udalak es dauka euskararen ezaguerari buruzko datu gehiagorik.

Lurraldea, Lurralde antolamendua eta Hirigintzako Planeamendua, eta Mugikortasuna eta Garraioak

- **Ingurune fisikoa eta naturala.** Atxondo Durangaldeko eskualdeko ekialdean kokatuta dago. Atxondok iraganean udalerriri ziren Apatamonasteriok (3,3 km²), Arrazolak (9,2 km²) eta Axpek (10,7 km²) osatzen dute. 23,2 Km²-ko azalera hartzen du; eskualde osoko %7,3 eta Bizkaiko %1,0, hain zuzen ere. Iparraldean Abadiño du mugakide; Hegoaldean, Otxandio; Ekialdean, Elorrio; eta Mendebaldean, Izurtza.
- **Geologia eta Geomorfologia.** Udalerriak korridore egitura bat du, Iparraldean Memaia mendiak eta hegoaldean kareharrizko mendizerra batek ixten baitute. Egiturari dagokionean Durangaldeko eskualde osoa egituratzen duen HE-IM norabidea duen mendizerraren barruan aurkitzen da. Litologikoki berriz Behe Kretazikoko materialak dira nagusi, Urgoniar Konplexukoak, eta haien artean 1.200 metro dituzten Kareharri Arrezifalak dute nagusigoa.
- **Klima eta meteorologia.** Euskal Herriko klima atlantiar eta mediterranearen klimen arteko trantsizio eremuan kokatzen da eta hainbat faktore dinamiko orokorrek baldintzatzen dute, horien artean azpimarratu behar dira Mendebaldeko korrantea eta Frente Polarra.
- **Hidrologia.** Hegoaldetik iparraldera Txareta ibaiak zeharkatzen du udalerria, Ibaizabal ibaiaren ibaiadarra, mendilerroetatik datozen ubide eta erreka

ugarien ur emaria jaso ondoren berarekin Apatamonasterion lotzen dena. Bakarrik Arabarekin mugakide den Atxondoko eremua Mediterranearen arroari dagokio, bertako urak Azunza ibaira baitoaz, Urkiola ibaiaren adarra. Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien Ingurumen Egoeraren Uren Kalitatea Zaintzeko Sareak kontrolatzeko zazpi estazio ditu Ibaizabal arroan. Estazio horietako bat ere ez dago Atxondoko lurretan ez eta ibaietan ere, eta horrek Atxondoko ibaiaren uren kalitatea zein den jakin ezin izatea eragiten du.

- **Landaredia.** Berezko zuhaitziak aldatu egin dira denborak aurrera egin ahala, leku askotan gizakiarentzat ekonomikoki errentagarriagoak diren espeziekin ordezkatuak izan dira, eta bertan behera utzi diren lekuetan basoaren berezko etapa jarraituekin. Emaizta euskal paisaiaren dibertsifikazioa izan da; gaur egun, landaredi komunitate eta formazio aniztasuna eta aberastasuna dira emaitza. Beraz, Durangoko Jarduera Eremuaren baitako paisaiaren osagarri nagusiak koniferak eta zelai atlantikoak dira, potentzialki hariztiak eta ameztiak behar luketen lurretan. Udalerriko baso-azalera zuhaitzeztatuaren banaketari dagokionez, 1999. urtean azalera osoa 1.572 Ha ziren, eta horietatik 18 Ha hostozabalak ziren; eta beste 1.328 Ha, koniferoak.
- **Fauna.** Urkiolako Parke Naturaleko ornodunen fauna 126 espeziek osatzen dute, nagusiki jatorri edo / eta dispertsio eurosiberiarrekoak. Horietako asko Mehatxupearan diren Espezien EAEko Katalogoan daude.
- **Paisaia eta ekologia intereseko guneak.** Atxondoko udalerrria Urkiolako Parke Naturaleko inguruko mendien barrena zabaltzen da, eta babestutako natur gune horri bere azaleraren zati garrantzitsu bat ematen dio; %26,4, hain zuzen ere, 613 Ha.
- **Paisaiaren eta biodibertsitatearen mantenuan eragina duten ekimenak.** Atxondoko udalerrriak 23,2 Km² ditu azalera, gutxi gorabehera. Landaketei dagokienean baso ustiaketak dira nagusi, batez ere koniferoak. Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak ustiatutako azalerari dagokionez, 1999. urtean Atxondon kokatutako 163 ustiategi zentsatuetatik %55,22 abeltzaintzarekikoak ziren eta %44,78 abeltzaintzarik gabekoak. Bestalde, Atxondon landa-erabileretara bideratutako guztizko azalera 2.010 Ha ziren, eta horietatik %36,26 abeltzaintzarekikoak eta gainerako %63,74 abeltzaintzarik gabekoak. Abeltzaintzako jarduerari dagokionez, kopuruari dagokionez garrantzitsuenak direnak ardi-aziendak dira, 980 abelburu guztira. 2000-2005 epean Atxondoko udalerrian 12,00 hektareako basoak Pinu intsignis berriak dira. 1999-2005 epean sute bat izan zen Atxondon, eta kasu horretan 3.000 Hektareako azalera bat kaltetua suertatu zen.

Lurraldea eta lurralde antolamendua

- **Lurraldearen Antolaketarako Artezbidetarako.** Euskal Hiriburuen Sistema Polinuklearraren (EHSP) baitan eta Lurralde Antolamendurako Artezbidetarako (Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua, 12/2/97an EAO.-n argitaratuak) zehaztutako jardute eremuen barruan Atxondo ageri da Durangoko Jarduera Eremuan.
- **Durangoko Jarduera Eremuko Lurraldearen Zatikako Plana.** Durangoko Jarduera Eremuko LZPren aurrerakina 2002ko otsailean osatu da eta COTPV-ra (Euskadiko Lurraldearen Antolamendurako Komisiora) bidaltzekotan da. Bere Memorian proposatzen diren helburu nagusiak hauek dira:
 - o Durangoko Jarduera Eremua indartu Euskal Herriaren eta Bizkaiaren

- artikulaziorako gako gisa, bere kokapen estrategikoagatik.
 - Aranaren amaierako urbanizazio handiaren eta baserrian oinarritutako nekazal jardueraren arteko elkarbizitza zaintzea.
 - Lurraldearen erabilpen egoki horretan oinarritutako hiri garapena bultzatzea.
 - Ibaizabalgo korridorearen konpetibitate eta birkualifikatze elementuak indartzea.
 - Eusko Tren Jarduera Eremuaren elementu artikulatzailea: bikoizketaren ezaugarri baikorrak.
 - Bitarteko naturalean eta landa paisaiaren babes aktiboa bermatzea, paisaia kalitatearen berme den baserriaren bideragarritasuna ziurtatuz.
- **Hirigintza-planeamenduko egitura eta ezaugarriak.** Indarrean dagoen planeamendu urbanistikoa, 1998ko azaroaren 18an, Bizkaiko Foru Aldundiak behin betiko onartutako Atxondoko Planeamendurako Arau Subsidiarioen barnean daude. Arau horiek 1986ko Irailaren 4 onartutakoak ordezkatu zituzten. Indarrean dauden Arau Subsidiarioen arabera, 1986. urtean onartutako arauen irizpide berdinak jarraitzen dira, Apatamonasterioko herrigunea bukatuz, gune historikoak bultzatuz eta errepidean oinarritzen den garapen industrialak bultzatuz. Aipatutako iharduera industrialak ondo dimentsionaturik daude Iharduera Ekonomikoen Planaren arabera, nahiz eta Apatamonasterioko herrigune inguruan zenbait aldaketaren beharra dagoen, Durango-Bergara Korridorearen eraikuntzaren ondorioz sortuko de zentralitatea aprobetxatuz.

Mugikortasuna eta garraioak

- **Bide-sarea.** BI-363 errepidean izandako ibilgailuen igarotzeari dagokionez, udalerrria igarotzean duenean bi neurketa estazio daude, bata Durangotik Axpeko desbideratzera heldu baino lehen (175A) eta bestea Elorrioko saihesbidera heldu baino lehenago (176A). 2004 urtean ibilgailuen Eguneko Batezbesteko Intentsitatea lehenengo estazioan 13.665 ibilgailukoa izan zen, zeinetatik 11% astunak ziren. Bigarren neurketa estazioan datuak altuagoak dira, EBI 15.018 ibilgailukoa izanik, hauetatik %12,5 ibilgailu astunak. Lortutako batezbesteko Indizeak errepide osoaren batezbestekoaren gainetik ibili ziren neurketa puntuetan. Horrez gain 175A estazioan 1999-2004 urte tartean %7,5 hazkundera eman zen, eta 176A estazioan 517-ko hazkundera. Honen arabera trafikoa handiagoa da Elorrio aldera, eta beraz segur aski Gasteiz eta Debagoiena haran aldera. Udalerritik igarotzen diren beste bi errepideak BI-3313 eta BI-4332 errepideak dira, biak udalerriko izaerakoak. Bizkaiko errepideen trafikoaren bilakaera azaltzen duten datuen artean ez dago estazio hauetan 2004koa ez den daturik, eta horren eraginez ezin dezakegu eman den joeraz hitz egin, nahiz eta gainontzeko eremuek izan duten bilakaera ber aizan dutela atzeman daitekeen.
- **Parke mugikorra.** Atxondon aipatzekoa da dagoen automobil-parkea handia. 2003an herriko motorizazio-indizea altua zen: 648,21 ibilgailu 1.000 biztanleko.
- **Irisgarritasuna.** Udalak ez du Irisgarritasun Planik.

Ingurumen sektoreak

URA

- **Uraren hornidura, kalitatea eta kontsumoa.** Atxondoko Udala Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoan sarrera eskatu du. Gaur egun sarearen kudeaketa udalarena da. 2005. urtean Atxondoko udalerrian etxebizitzarako ur kontsumoa 71.817 m³/eguneko izan zen, hau da, 137,40 l/bizt./eguneko, Durangaldeko Udaltalde 21 osatzen duten udalerrien batezbestekoa baino apur bat altuagoa. Datu hauek argitzera ematen dute urtez urte

sektore guztien ur kontsumoa handitu egin dela, aztertutako hiru urteetan industria ur gehien kontsumitu duen sektorea izanik.

- **Saneamendua.** Atxondoko hondakin-urak arazteko tratamendua Arriandiko Araztegian egiten da, Durangaldeako gainontzeko herrietakoekin (Iurreta, Izurtza, Durango, Zaldibar, Abadiño, Mañaria eta Berriz) eta sistemara lotutako industriekin batera. Ur zikinak arazteko sareak Atxondoko biztanleriaren %70ri eskaintzen dio zerbitzua. 2004an Arriandiko Arazketak 6.076.324 m³ tratatu zituen eta horietako 151.980m³ Atxondokoak ziren.

KALITATE ATMOSFERIKOA ETA AKUSTIKOA

- **Atmosferaren kalitatea.** Atxondon ez dago EAeko Airearen Kalitatearen Ikusapenerako eta Kontrolerako Sareko estaziorik, baina bai Durangon. Estazio horrek 15 parametro ezberdin neurtzen ditu: SO₂, NO_x, CO, PM₁₀ eta O₃, kasu. Airearen kalitate indizea ona, onargarria, txarra eta oso txarra bezala kalifikatzen da. Esan behar da, 2004an bi egunetan airearen kalitatea oso txarra izan zela, 2003an 4 izan ziren mota horretako egunak eta 2001ean bakarra. Aztertutako datuen arabera, esan daiteke airearen kalitatea ez dela txarra, baina hobetu daitekeela.
- **Zarata eta kalitate akustikoa.** Atxondok ez du udalerriko akustikaren kalitatea ezagutzeko aukera emango lukeen zaraten maparik edo azterketa zehatzik. Gaur egun ez dago udalerriko zaraten gaineko ordenantzarik.

ENERGIA

- **Energiaren kontsumoa.** Ia udalerriko energiaren kontsumoa osoa inportatu beharreko energia-iturrietatik dator. Udalerrian berezko energia-iturriak ia ez direla existitzen kontuan izanda, kontsumo horren eraginak Atxondotik urruneko aldeetan daude. Energia elektrikoa kontsumitzen duen sektore nagusia industriakoa da, eta urtez urte handitzen da. 2004an kontsumo osoko %96,20 izan zen; jarraian eta askoz atzerago Etxebizitza dagoelarik (%2,08).
- **Energia berriztagarriak.** Gaur egun, Atxondoko udalerrian biomasatik energia berriztagarriak sortzen duten 5 enpresa daude, nahiz eta Energiaren Euskal Erakundearen (EVE-EEE) informean ez den zein enpresa mota diren adierazten. Atxondon CADEM-ek (Energiaren Euskal Erakundea) ematen duen Energia Eraginkortasun Ziurtagiria duten 16 etxebizitza daude, eta aldi baterako Energia Eraginkortasun Ziurtagiria duten beste 16 etxebizitza.

LURZORUA

- **Potentzialki kutsatutako lurren inbentarioa.** udalerrian potentzialki kutsagarriak diren kokapenak 11 dira eta 6,21 hektarea hartzen dituzte; 62,100 m², hain zuzen ere. Ez da inolako azterketarik ezta bereskurapenerako jarduerarik ere burutu aipatu lurzoru horietan kutsadura dagoen egiaztatzeko.

HONDAKINAK

- **Hiri-hondakinen sorrera.** 2004an Atxondoko biztanle bakoitzak 1,12 Kg. egunean sortu zituen; hots, Bizkaiko batez bestekotik gora dagoena (1,09 kg eguneko eta biztanleko). Bertan azpimarratu daiteke epealdi horretan gutxitu egin dela etxeko hondakinen sorrera.
- **Gaikako bilketak.** Azken 4 urteetan, 2001-2004 epean, etxeko hondakinen gaikako bilketa eta birziklapena sortutako hondakin guztien %18,02tik %22,11ra igaro dira. Bitartean, isurketa modu adierazgarrian jaitsi da denboraldi berean. Horrek guztiak

erakusten du hondakinen gaikako bilketan herritarren partaidetza ona izan dela. 2004an, beira, papera eta kartoia, eta ontzi arinak biltzeko edukiontzi-kopurua ondorengoia izan zen. 2004 urtean beiraren edukiontzi bat zegoen 159 biztanleko, papera-kartoriaren edukiontzi bat 204 biztanleko, eta ontzi arinen edukiontzi bat 159 biztanleko

- Beira. Beirek 2004an sortutako etxeko hondakinen %7,40 zen, ehuneko ez oso altua.
 - 2001-2004 epean edukiontzietan bildutako paper/kartoiaren kopuruak gora jo du urtetik urtera. 2004an, sortutako etxeko hondakin guztien %10,80 zen.
 - Europako artezarauaren ondorioz azkenekoz barneratu den bilketa izan da ontzi arinena, ondoren, berreskurapen helburu garrantzitsuetara behartzen duen ontzien legeak behartu du bilketa. Ontzi arinak berreskuratzeko indizeak oso baxuak dira oraindik, ziurrenik sistema horren ezarpen berriengatik.
- **Hondakin arriskutsuak.** Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Eta Lurralde Antolamenduko sailaren Ingurumen Kalitateko Zuzendaritzak emandako datuen arabera, 2000-2004 epean Atxondon Hondakin Arriskutsuak Sortzeko Adierazpena egin duten 5 enpresa daude.

Abiadura Handiko Trena

- Abiadura handiko trenaren azpiegitura hau ez da Atxondon eragingo duen bakarra, Euskadiko Errepideen Plan Orokorrean Durango-Elorrio-Kanpazar korridorea aurreikusita baitago, eta hau udalerriko iparraldetik igaroko litzateke. Apatamonasterio etorkizunean bi azpiegitura garrantzitsu hauen artean geratuko litzateke, bi azpiegitura hauek beren hedapen osoan gertuen geratuko diren zatia hain zuzen ere, bakarrik 300 metrotara.
- Aldaketei dagokienean, 65 metro altueran eta ia kilometro bat luzeran izango dituen zubi baten eraikuntzak, begi-bistako hesi nabarmen bat izango da, fisikoa baina baita psikologikoa ere, biztanle zein bisitariarentzako. Bestalde eragin nabaria izango du ere sortuko duen zaratak.
- Azpimarratu behar da ere hirigintzaren aldetik Apatamonasterioko etorkizuneko herri garapenak mugatuko dituela.

8.2. Ondorioak

Atxondoko udalerria Durangaldeko eskualdearen ekialdean kokatzen da, Elorrio eta Abadiñoko udalerrien artean. Bere ezaugarri nagusia udalerrri modura 1962. urtean osatu zela da, antzinako Apatamonasterio, Arrazola eta Axpe udalerrien elkarketarekin, eta horrek azalera nahiko zabala izatea eragiten du, 23km. Hiru auzo nagusi eta hainbat sakabanatutako gune txiki izatearen ezaugarri horrek landa izaera mantentzea eragiten du, eta Apatamonasterio da hiri ezaugarriak aurkezten dituen eremu bakarra, eta aldi berean biztanleria gehien jasotzen duena.

Apatamonasterio udalerrriaren herriburua da, Atxondoko biztanleriaren %75 arekin, Durango – Elorrio industria ardatzaren magalean sortua eta garatua. Arrazola da udalerriko biztanleria gutxien duen eremua, 139 biztanlerekin, udalerriko %9,5. Axpe edo Axpe-Marzana Marzana, Olazabal, San Juan eta Santiago auzoek osatzen dute. Entidade hau, Arrazolak baino bizilagun gehiago izan arren, azken 20 urteetan biztanleria gehien galdu duen auzoa da.

2005. urtean 1.423 biztanleko populazio bat zuen. Biztanleria honen bilakaera oso irregularra izan da, historian zeharreko goraberekin, udalerrria osatu zenen 950 biztanle baitzituen, baina hori baino lehenago, 20. hamarkada inguruan, 1.300 biztanle izatera iritzi zen, eta gaur egun kopuru horiek gainditu dira, eta hala ere 1991. urtetik etengabeko beherakada bat ematen ari da. Guzti horrek garaien araberrako desplazamenduetan du jatorria. Eskualdearen industrializazioarekin Atxondoko biztanleria udalerrria uzten hasi ziren, baina mugikortasunerako hobekuntzekin batera eta inguruaren erakargarritasunagatik joera hori alderantzizkoa bihurtu zen, eta Atxondo populazioa jasotzen duen udalerrria bihurtu da berriro ere.

Hala ere Atxondon, eskualde osoan zein EAEan gertatzen den bezala, biztanleria zahartzeko joera ikusten da, baina gainera Atxondo motako landa inguruko herrietan joera hori areagotzen da. Horri berezko hazkunde negatiboa izatea gehitzen zaio, eta horregatik ondoriozta dezakegu Atxondo biztanleria nahiko nagusia jasotzen duen udalerrria dela, batzuetan hirugarren adinekoak ere, baina jende gaztea udalerrria uzteko joera duela, bertan geratzeko dituzten zailtasunengatik edo beste herri garrantzitsuago batzuek jende gaztearentzako duten erakargarritasunik.

Iharduera ekonomikoari begira, industria da Atxondoko iharduera nagusia, eta ondorioz lanpostu eta aberastasun iturri nagusia da. hala ere, establezimendu kopurua aztertzen baldin bada hirugarren sektorea geroz eta garrantzi gehiago duela ikus daiteke, batez ere ostalaritzarekin loturiko alorretan. Beraz Atxondo enpresa eta pertsonen zuzenduriko zerbitzuetan bereizten den udalerrri bat bihurtzen ari da, industriaren agerpen oso inportante batekin. Aldiz Banka, Aseguruak,... bezalako zerbitzuen eskasia nabari bat ematen da, agian horrelako zerbitzuak bilduko lituzkeen gune bat ez dagoelako. Udalerriko industria, eskualdean orokorrean gertatzen den bezala, metalaren inguruan antolatzen de, eta dibertsifikazio baxukoa da. Langabezia Durangaldeko Udaltalde 21en parte diren udalerrien batzbeztekotik gora dago, baina hala ere ezin da langabezi tasa altuez hitz egin. Nahiko agerikoa da aldiz langabezia hau emakumetan zentratzen dela, gizonen bikoitza izateraino. Langabezi gehien duen sektorea zerbitzuak dira.

Landa izaera duen udalerrri batean lehen sektorea ia ez agertzea ondo azaltzen du Atxondok udalerrri modura izan duen garapena, iharduera hauek denborarekin utziz joan baitira. Gaur egun aldi baterako zeregin bezala mantentzen da, eta askotan etxeko kontsumorako soilik.

Gizarte zerbitzuei dagokienean, udalerriko nagusien egoerak ardua berezia behar du, geroz eta biztanle gehiago direlako. Durangoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuak Udalak kudeatzen ditu.

70. hamarkadako eraikuntza booma igarotakoan oso apurkako hazkunde bat eman da, gutxinaka murriztuz doan hazkunde bat, 86-91 tartean ia gelditu arte, eta 1991-1996 urte tartean bakarrik 25 etxebizitza eraiki ziren. Azken urteetan aurreikusitako 256 etxebizitzetatik 74 eraikitzen ari dira, aurreikuspenen %29a beraz. Hazkunde horiekin gaur egun Atxondok 602 etxebizitzako parkea dauka.

Atxondo egituratzen duen harana nahiko egonkorra mantentzen da, oso aberatsak eta garrantzitsuak diren berezko fauna eta landaretza espazioak kontserbatuz, batez ere hirigintza eta industriak ez dutelako bertan beste udalerrri eta eremuetan egon den interesik izan. Basogintzak aldiz bai izan du bere agerpena, gaur egun 1.200 hektarea hartzen dituelarik. Etorkizunari begira aldiz EAEan aurreikusitako azpiegitura obra handietako batek Atxondoko udalerrria zeharkatuko du, Abiadura Handiko Trena, eta horrek ingurua erabat baldintzatuko du, batez ere Apatamonasterio inguruan, azpiegituratik hurbilen dagoen gunea. Horrelako proiektu bati Atxondo bezalako udalerrri batetik aurre egiteko aukerak oso mugatuak dira.

Arau Subsidiarioak indarrean daramaten urteetan era inportante batean garatu dira, aurreikusitako etxebizitzaren %30era iritiz, baina ez da berdina gertatu industriaren aurreikuspenekin. Hauetan bakarrik urbanizatzeko Markoia Ekialdeko lurzorua kudeaketa eraman da aurrera, zatikako plana onartua duen eremua. Landa eremuei dagokienean, nekazal iharduerei loturik ez dauden etxebizitzak eraikitze joera ikusi da, inguruak duen erakargarritasunarengatik, Arau Subsidiarioek garatzea posible egiten duten 24 etxebizitzetatik 8 eraiki direlarik, lizentzien gehiengoa Axpe inguruan eman direlarik. AHTren proiektuak ere hirigintza planeamenduan eragina du, Sistema Orokor bat izateak duen eraginagatik, eta horrek hegoaldera haztea galeraziko du.

AHT proiektuagatik zein Atxondok lurraldean duen kokapenagatik, mugikortasuna udalerrian gai oso garrantzitsu bat da. BI-632 errepideak sortzen duen trafiko handiak, eguneko 13.000 ibilgailutik gorakoa, Apatamonasterioko biztanleentzat arrisku oso altua suposatzen du, eta errepidera sarbidea ere eragozpen handiak eragiten ditu, oinezkoentzako batez ere baina baita bertara sartu nahi duten ibilgailuentzat ere.

Ingurumen bektoreei dagokienean, zarata eta kutsadura atmosferikoa bide azpiegitura desberdinak eta industriak udalerrian duen kokapenari oso loturik daude, baina baita biztanleek ibilgailu pribatuan egiten duten erabilerari eta kontsumo ereduari ere. Energia kontsumoa berriz etengabe hazten doa, eta industria da udalerriko energia kontsumitzaile nagusia, kontsumoaren %96 hartuz.

Hondakinen sorrerari dagokionean, beherako joera bat antzematen da, berreskurapen indizeak gora egiten duten neurri berean. Atxondon Hondakin Arriskutsuak Sortzeko Adierazpena egin duten 5 enpresa daude, eta Celulosas Moldeadas Hartmann, S.A., eta Fuchosa, S.A. EPER Euskadi 2003 inbentarioan sarturik daude, Atmosfera Kutsatu dezaketen Ihardueren katalogoaren barruan.

8.3. Interpretazioak

Interpretazioen azpikapitulu honi ekiteko helburuz, udal mailan detektatzen diren arazo eta egoera posibleak jorratu nahi izan dugu.

Atxondo udalerrri oso berezi eta desberdina da Durangaldeko Udaltalde 21 osatzen duten udalerrien barruan. Duen lehenengo berezitasuna bere sortze berria da, eta horrek hiru gune oso bereiztu izatea eragiten du, inguru eta errealitate desberdinuekin. Horrela Apatamonasteriok hiritar izaera nahiko nabaria du, Atxondon emandako industrializazio prozesuaren ondorioz sortua, industriaren langileak etxebizitza beharren ondorio .

Axpe eta Arrazola landa izaerako guneak dira, XX. Mendean zehar bere garrantzia galduz joan direnak, lehen sektorearen ohiko iharduera galduz joan direnak. Inguru natural erakargarriak eta familia bakarreko etxebizitzak egiteko aukerak gune hauek berriz ere baloratzea eragin du, eta horrek biztanleria berria jasotze eragiten du.

Zerbitzu eta ekipamenduei dagokienean egitura hirukoitza izateak hauek ere hirukoiztea eragiten du, edo behintzat zerbitzu eta ekipamendu ezberdinak herrigunetik urrutien bizi diren bizilagunei hurbiltzeko ahalegina egitea. Biztanleriaren zahartzearekin gainera etorkizunean behar hauek handituko dira, eta beraz egin beharreko ahaleginak ere areagotuko dira. Gainera gaur egun ere Apatamonasteriok ez ditu bere tamainako beste herri batzuk dituzten zerbitzu berdinak.

Ekonomiari dagokionean industriak udalerrian duen garrantzia azpimarratu behar da, baina hala ere, aurrerago esan den bezala, industria hau metalaren eraldaketren inguruan antolatzen da eta dibertsifikazio maila oso baxua da. Guzti horrek arrisku indize altua ematen dio globalizazioaren aurrean, eta Ekialdeko Europaren merkatuen zabalkuntzaren aurrean. Beharrezkoa litzateke beraz sektorea dinamizatzea eta beste sektore batzuk ere indartzea. Abantaila suposa dezakeen sektorea aldiz zerbitzuen sektorea litzateke, ostalaritza bereziki, eta hau kalitatezko turismoarekin lotu. Axpe eta Arrazola auzoetan badira zenbait esperientzia eta ondo funtzionatzen dute. Gainera iharduera hau udalerriko lehen sektoretik ekoiztutako produktuekin osatu liteke, sektore honi berriz garrantzia emanaz. Langabeziari dagokionez emakumearen egoera azpimarratu behar da, etorkizunari begira gainditu beharreko oztopoa.

Abiadura Handiko trenaren proiektua udalerrriaren garapena erabat baldintzatzen du, udalerrria egituratzen duen haranaren sarreratik igarotzen baita, eta honek Atxondoko biztanleen bizi kalitatea kaltetzea suposatzen du. Proiektu honek Atxondoko errealitatearen arlo guztietan du eragina, eta udalerrria zeharkatzen duen trenbidearen zubiaren eraikuntzak hirigintza planeamenduaren etorkizuneko bilakaera baldintzatuko du.